

IKER Bilduma / Colección IKER

IKER 20

Piarres Lafitteren ekintzabideak (1920-1944) Kultura jasoko euskaltzaleen sarearen baitan. Amelia Hernández Matak paratua. 2007.

IKER 21

Jean Haritschelbar-i omenaldia / Homenaje a Jean Haritschelbar / Hommage à Jean Haritschelbar. Batzuk. 2008.

IKER 22

Intelektuala Nazioa eraikitzen: R. M. Azkueren pentsaera eta obra. Jurgi Kintana Goirienak paratua. 2008.

IKER 23

Juan Mari Lekuona-ri omenaldia / Homenaje a Juan Mari Lekuona / Hommage à Juan Mari Lekuona. Batzuk. 2009.

IKER 24

Agirre Asteasuakoaren Eracusaldia. Sermoia ikuspegi sozio-diskurtsiboaren argitan. Arantza Ozaeta Elorza. 2010.

IKER 25

Elgoibarko Ahozko Euskara. Jesus Mari Makazaga Eizagirre. 2010.

IKER 26

Pirinioetako hizkuntzak: lehen eta oraina. A. Sagarna; J. Lakarra eta P. Salaberri. 2011.

IKER 27

Onomastique du Nord du Pays Basque (XF-XV^e siècles). Eugène Goyheneche. 2012.

IKER 28

Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika Joseba Sarrionandiaren lanetan. Aiora Jaka Irizar. 2012.

IKER 29

Koldo Mitxelena-ren zinema- eta liburu-kritiketako diskurtso-estrategiak: enuntziatu parentetikoak. Agurtzane Azpeitia Eizagirre. 2012.

IKER 30

Lehen Mundu Gerra «Eskualduna» astekarian. Eneko Bidegain. Euskaltzaindia, Bilbo, 2013.

IKER 31

Approche Textologique et Comparative du Conte Traditionnel Basque Dans les Versions Bilingues de 1873 à 1942. Natalia Mikhaïlovna Zaïka. 2014.

IKER 32

Gorbeia Inguruko Etno-Ipuin eta Esaundak II. Juan Manuel Etxebarria Ayesta. 2016.

IKER 33

Piarres Larzabalen antzerkigintza: 1950-1982. Isabelle Echeverria. Euskaltzaindia, Bilbo, 2016.

IKER 34

La politique linguistique de la révolution Française et la langue basque. Egoitz Urrutikoetxea. 2018.

IKER 35

Gerraosteko Euskaltzaindiaren historia kulturala (1936-1954). Anton Ugarte. 2018.

IKER 36

Le dauphin: 1757ko gutuneriari buruzko osagarriak eta gogoetak. «othoi çato etchera». Xabier Elosegi. 2018.

ISBN 978-84-948489-8-8



9 788494 848988

20 €

iker
36



LE DAUPHIN: 1757KO GUTUNERIARI
BURUZKO OSAGARRIAK ETA GOGOETAK, «OTHOI ÇATO ETCHERA»

LE DAUPHIN: 1757KO GUTUNERIARI
BURUZKO OSAGARRIAK
ETA GOGOETAK,
«OTHOI ÇATO ETCHERA»



LE DAUPHIN: 1757KO GUTUNERIARI
BURUZKO OSAGARRIAK
ETA GOGOETAK,
«OTHOI ÇATO ETCHERA»

LE DAUPHIN: 1757KO GUTUNERIARI
BURUZKO OSAGARRIAK
ETA GOGOETAK,
«OTHOI ÇATO ETCHERA»

LE DAUPHIN: 1757KO GUTUNERIARI
BURUZKO OSAGARRIAK
ETA GOGOETAK,
«OTHOI ÇATO ETCHERA»



Xabier Elosegi Aldasoro

Xabier Elosegi Aldasoro Tolosan (Gipuzkoa) sortu zen 1937an. Batxilergoa bukatu ondoren, merkataritzako eta industriako peritu-ikasketak egin zituen. Familian euskaltzaletu zen, batez ere bere aita Perikoren eta osaba Jesusen eraginez. Gazterik *Euzko Gogo*a aldizkariaren harpidedun izan zen. Euskaltzaletasunak eta abertzaletasunak bultzaturik, Ekin taldean aritu zen. 1962ko agorrilean Lapurdira joan zen bizitzera eta hantxe kokatu zen, zenbait urtez Bordelen bizi izan bazen ere.

Zenbait liburu eta artikuluren egilea, besteak beste:

Sarako etxe zaharrak 1505an (1994, Ikuska).

Sara, etxeak eta deiturak lau mendez (XVI-XIX) (2005, Eusko Ikaskuntza).

Sarako ofizioak XVIII. mendean (2007, Bulletin du Musée basque).

Sara: 1914/1918-ko gerla eta intsumisioa 1884/1917 urtetan (2014, Lapurdi 1609 elkartea).

Euskara batua Iparraldetik (2013, 31 eskutik).

Gure erroen bila (2014, Lapurdi 1609 elkartea)

Sara 1914/1918 gerla eta intsumisioa (2014, Lapurdi 1609 elkartea).

Gure erroen bila (2016, Lapurdi 1609 elkartea).

Senpereko (eta Lapurdiko) euskara XVIII. mendean (2018, Lapurdi 1609 elkartea).





XABIER ELOSEGI

***LE DAUPHIN:*
1757KO GUTUNERIARI
BURUZKO OSAGARRIAK
ETA GOGOETAK,
«OTHOI ÇATO ETCHERA»**

IKER-36

**EUSKALTZAINDIA
2018**

Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la Biblioteca Azkue de la Real Academia de la Lengua Vasca:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:

www.euskaltzaindia.eus/azkue



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



“Le Dauphin” proiektuaren babeslea: MSHA
Argitalpen honen babeslea: Euskararen Erakunde Publikoa

© Xabier Elozegi

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabetunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema infomatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Testu nagusiaren hizkuntza-orraketa, gutunena eta horien zatiena izan ezik: Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia (HIZBEA).

Maketazioa: Composiciones RALI, S.A.
Particular de Costa, 12-14 - 48010 Bilbao

Inprimategia: G.Z. Printek, S.A.L.

ISBN (Euskaltzaindia): 978-84-948489-8-8

Lege-gordailua: BI-2004-2018

EDUKIEN AURKIBIDEA

AURKEZPEN GISA (Xarles Videgain).....	XI
1. AITZINSOLASA.....	1
1.1. Gutunen kodetzeaz.....	3
1.2. Lan honetan ukan dudan laguntza.....	4
2. 1757KO GUTUNERIARI BURUZKO OHARRAK, HERRIZ HERRI..	5
2.1. AHETZE.....	5
2.1.1. 40. gutuna (1757-03-23): David Borotra igorleak Mar- tin Borotra semeari.....	5
2.1.2. 48. gutuna (1757-03-23): Joannes Larralde igorleak Betry Larralde semeari.....	7
2.2. AZKAINE.....	8
2.2.1. 8. gutuna (1757-02-26): Maria de Bortairay igorleak Joannis Hiribarren kusiari.....	9
2.2.2. 27. gutuna (1757-03-16): Marittipo de Soubiet igorleak Laurens Perusquy senarrari.....	9
2.2.3. 32. gutuna (1757-03-19): Maria de Saint Martin igorleak Joanis Diharce semeari.....	11
2.2.4. 36a. gutuna (1757-03-22): Gachina St Pée igorleak Catherine (veuve de) Gelos koinatari.....	13
2.2.5. 36b. gutuna (1757-03-22): Pierre Etchegaray igorleak Catherine (veuve de) Gelos koinatari.....	14
2.3. BIDARTE.....	15
2.3.1. 31. gutuna (1757-03-17): Catherine Douat igorleak Pierre Latige senarrari.....	15
2.3.2. 44. gutuna (1757-03-26): Gracianne Gorte igorleak Dominique Gorte anaiari.....	16
	V

2.4.	DONIBANE LOHIZUNE	18
2.4.1.	20. gutuna (1757-03-13): Marie Darburu igorleak Marie Duhalde alabari	18
2.4.2.	34. gutuna (1757-03-21): Tereçha Labadie igorleak Joanis Dupuy semeari	22
2.4.3.	37. gutuna (1757-03-22): Gana Haurra Fumat igorleak Adrien Salla semeari	24
2.4.4.	41. gutuna (1757-03-24): Machume Bastereche igorleak Esteben Lafontaine semeari	24
2.4.5.	45. gutuna (1757-03-26): Estonta Durquiet igorleak Martin Durquiet anaiari	25
2.4.6.	46. gutuna (1757-03-28): Maria Bordachipi igorleak Pierre Lahitun semeari	26
2.5.	GETARIA	28
2.5.1.	13. gutuna (1757-03-02): Joanna Salla igorleak Jean Castillou auzoari	28
2.5.2.	15. gutuna (1757-03-03): Joanna Castillou igorleak, Jean Castillou (metre de grabe) aitari	29
2.5.3.	18. gutuna (1757-03-10): Maria de Lamarque igorleak, Bernat de Lupoy semeari	31
2.5.4.	33. gutuna (1757-03-20): Betry Daguerre igorleak Martincho Daguerre anaiari	32
2.5.5.	35. gutuna (1757-03-22): Catherine Desclaus igorleak Martin de Heuty (Marilatxeneko nagusia) semeari	34
2.5.6.	38. gutuna (1757-03-23): Joanna Duhalde igorleak Janne Castillou senarrari	35
2.5.7.	42. gutuna (1757-03-26): Sabadine Clauset igorleak Martin Darango semeari	37
2.5.8.	43. gutuna (1757-03-26): Joanna Aprendisdeguy igorleak Martin Darango (Pirrareneko nagusia) senarrari	38
2.6.	HENDAIA	39
2.6.1.	2. gutuna (1757-02-04): Marie d'Etcheverry igorleak Pierre Daguerre semeari	39
2.6.2.	3. gutuna (1757-02-12): Gacina de Biscarrondo igorleak Patchiqu de Biscarrondo anaiari	40
2.6.3.	4. gutuna (1757-02-12): Gacina de Biscarrondo igorleak Martin Josepe de Biscarrondo anaiari	41
2.6.4.	9. gutuna (1757-02-28): Gaçina Diyarz igorleak Joannes Hiraburu senarrari	41
2.6.5.	26. gutuna (1757-03-15): Catalin Marie Berrogain igorleak Catherine Laborde, veuve de Jelos adizkideari	42

2.7.	SARA	46
2.7.1.	5. gutuna (1757-02-14): Catalin Lalanne igorleak Esteban Gourdo senarrari	46
2.7.2.	7. gutuna (1757-02-26): Miguel Harismendy igorleak Bernard Harismendy semeari	48
2.7.3.	10. gutuna (1757-03-01): Martin Borda igorleak Andreco Borda semeari	49
2.7.4.	14. gutuna (1757-03-02): Martin Durruitz igorleak Domingo Durruitz semeari	50
2.7.5.	19. gutuna (1757-03-12): Joannes d'Etcheverry igorleak Joannes d'Etcheverry semeari	52
2.7.6.	22. gutuna (1757-03-14): Joanna de Bidart igorleak Joannes d'Etcheto semeari	53
2.7.7.	23. gutuna (1757-03-15): Piarres d'Etcheverry «mothela» igorleak Joannes d'Etcheverry semeari	54
2.7.8.	25. gutuna (1757-03-15): Martin Etchart igorleak Joannes Etcheverry ilobari	55
2.7.9.	28. gutuna (1757-03-16): Ziburutik igorria. Cathalina Ithurriague igorleak Gabriel Ithurriague (marinier de Sare) anaiari	57
2.7.10.	47. gutuna (1757-03-29): Marie Dithourriague igorleak Estebe Echegaray semeari	58
2.8.	SENPERE	59
2.8.1.	6. gutuna (1757-02-20): Maria Molleres igorleak Bitor edo Bernat de Farandiret hartzaileari	60
2.8.2.	11. eta 12. gutunak (1757-03-01): Maria Dihitx igorleak Haurra Maria Hiriart alabari	62
2.8.3.	16. gutuna (1757-03-07): Joanes de Matet igorleak Joannes de Matet semeari	63
2.8.4.	24. gutuna (1757-03-15): Betry d'Etcheberry igorleak Joannes d'Etcheberry semeari	64
2.8.5.	30. gutuna (1753-03-15): Martin Larralde sieur de Bastidaguerre igorleak Saint Martin de Duronia Mirande ilobari	65
2.9.	URRUÑA	66
2.9.1.	1. gutuna (1757-02-02): Martin de Arrunde igorleak Martin Arrunde semeari	66
2.9.2.	39. gutuna (1757-03-23): Haraneder apaizak Pierre Etchegoyen ilobari	67
2.10.	ZIBURU	68
2.10.1.	21. gutuna (1757-03-14): Jean Lafitte Bourguignon igorleak Joanis Lafitte Bourguignon semeari	68

2.10.2.	29. gutuna (1757-03-14): Pierre d'Etchevers igorleak Pierre d'Etchevers anaiari	69
2.10.3.	49. gutuna (1757?): Francha Barere igorleak Pierre Hayet senarrari	71
2.11.	EZEZAGUNA	74
2.11.1.	gutuna (1757-03-09): Igorlea: ? – Hartzaila: Bernat Aroqui	74
3.	IGORLEAK	75
3.1.	Nongoak dira?	75
3.2.	Igorleak, idazleak	76
4.	HARTZAILEAK	79
4.1.	Nongoak dira?	79
4.2.	Non dira?	80
4.3.	Ofizioak	80
5.	IPAR EUSKAL HERRIKO HERRITARREN ALFABETATZE MAILAZ	81
5.1.	Lapurtarrak, alfabetatuak XVIII. mendean?	81
5.2.	Lapurtar emazteak euskal idazle XVIII. mendean?	83
5.3.	Lapurtar herri xumea euskal idazle?.	84
6.	ITSASGIZONEN BIZITZA LABURRA	87
7.	1757KO LAPURDIZ OHAR BATZUK	89
7.1.	Lapurdiko jende gehiena biziki hertsiki bizi zen	89
7.2.	Elkarren berri eta euskararen erabilpena	90
8.	FAMILIA BATEN HISTORIA	92
8.1.	Familiaren konposaketa	92
8.2.	Familia Baionan, alaba zaharren ezkontzak	93
8.3.	Ama-alaben bilakaera	97
8.4.	Dokumentuaren irakurketa eta interpretazioa	98
8.5.	Ibilbide desberdinak	100
9.	AHETZEKO HILKETA ETA BERRI TRISTEAK	101
9.1.	Lehen datuak	101
9.2.	Biktimak, errudunak ala errudun ekarriak	102

9.3. Saubat Behotas	102
9.4. Bertrand Detchevoyen	106
9.5. Jean Hirigoyen	109
9.6. Amizola eta Ostaleria	110
9.7. Nork hil zuen Saubat Behotas eta zergatik? Nork kolpatu zuen Bertrand Detchevoyen?	112
BIBLIOGRAFIA	115



AURKEZPEN GISA

Xabier Elosegik *Le Dauphin* itsasontziko gutuneriak eskaintzen digun lana guziz atsegingarri bezain interesgarri da. Artxiobotan egin duen lan zehatz eta jarraikiari esker, parte bat, bere gogoetei esker bertzalde, 1757ko Lapurdiko gutunak aberasten ditu molde oso ongi antolatu eta trinko batean.

Xabier Lamikizi esker, urte bereko eta Lapurdi bereko 50 gutun argitaratuak izan ziren 2016an Iker UMR 5478k ateratzen duen *Lapurdum* agerkarian. Hor ziren informazioak ez ziren guti baina lehenbiziko helburua baitzen gutun horien ezagutaraztea, haien testuinguru historikoa ez zen gehiago sakondu eta bereziki nor ziren gutunen igorleak eta hartzaileak ez zen hurbiletik bilatu.

Bere gain hartu du Xabier Elosegik lehenik igorleak eta hartzaileak nor ote ziren ikustea, artxiotoak erabiliz. Agiriak irakurri zituen arreta handiz, eta lan horrek gauza eta bazter berriak argitzeko bertutea izan du. Alde batetik, *Lapurdumen* agertu ziren gauzak zuzentzen ditu behar delarik, hala nola igorlea edo hartzailea nor den egiaztatuz, bakoitzari buruz bildu dituen berezko datuak gehituz, eta haien familiez berri asko emanez. Pertsonaiak nor diren ongi argituz, bereziki puntu bat aztertzen du Xabier Elosegik, hots, ea igorleek bazekiten idazten. *Lapurdumen* fidatu ginen igorleen sinadura ikustearekin eta ez zen aski. Alabaina, Xabier Elosegik inkesta egiten du eta beste dokumentu batzuetan (bataio-agirietan, ezkontza-agirietan, notario-agirietan) ea gure gutunetako igorleak ez ote diren agertzen, eta agertzen direlarik ea sinatu duten ala ez. Datuak mintzo dira: inkesta egin ondoan, orduko Lapurdiko euskaldunen alfabetatze-tasa *Lapurdumen* erran bezain gora ez zela Xabier Elosegik frogatzen du. Proiektu zientifiko batean gauzak zuzentzea beharrezko da eta horren egiteko atea ireki du Elosegik. Eta frogatzen ere gutunen idazle gehienak ez zirela jende xumeak, aitzitik jendartean aski gora zirenak, hala nola Jean Laborde famatuaren familiakoak.

Ez da horretan bukatzen lana: ohar batzuk eginik itsasgizonen bizitzaz, edo hobeki errateko, haien heriotza goiztiarrez, euskarak orduko Lapurdin zeukan pisua azpimarratzen du Xabier Elosegik. Ondotik, gutunen problematika zabalduz, bi kasu ikertzen ditu bereziki. Lehenik Berrogain anderearen fortuna jarraitzen du Hendaiaetik Akizera eta Baionaraino Donostiatik iraganez, eta Marie Detcheto alabak ezkontzaz ezkontza egin duen bidea erakutsiz agirietan dauden berriak eta *Le Dauphine*ko gutunak dioena gurutzatuz. Bigarren kasua guziz ausart izan da, ezen, *Le Dauphine*ko gutun batean zegoen ohar labur bat oinarritzat hartuz, hilketa baten testuingurua eraikitzen baitu, notario-agiriak erabiliz, zeinetan gainera bi euskarazko testu ezezagun atzeman baititu eta artikuluan argitaratzen. Itxura guzien arabera, beste testurik euskaraz izatea artxibo horietan ez da ezinezkoa, eta peskizan abiatu Xabier Elosegik beste testu andana interesgarri bat emanen digula ziurtzat jo daiteke.

Le Dauphin ikerketa proiektua zuzentzen dudan aldetik, guziz ekarpen ona da Xabier Elosegirena. Gutuneria horrek bide ematen du ikerketa sakontzeko eta hedatzeko, euskarak gizartean izan duen tokia eta funtzioa hobeki ezagut dezagun. Gure eskerrak bihurtzen dizkiogu beraz Xabier Elosegiri, diogularik: jo aitzina!

Xarles Videgain, *Le Dauphin* ikerketa proiektuaren arduraduna
(IKER UMR 5478 CNRS)

1. AITZINSOLASA

Othoi çato etchera. Le Dauphin itsasontziko euskarazko gutunak (1757). Correspondance basque du bateau Le Dauphin (1757) deitutako liburua 2016an argitaratua izan da: *Lapurdumen ale bereziak 2-2016* dela kontsideratzen dugu hemendik aurrera. Liburuaren oinarria, 1757. urtean, Lapurditik Louisbourgerako bidaiari *Le Dauphin* itsasontzian zeuden 50 gutunen historia da. Dokumentuak papereratu aitzin, hainbat urrats gertatu dira.

Alabaina, gutun horien lehen berria Baionan hartu nuen Xamarren eskutik: Baionako Euskal Museoan, 2013ko urriaren 18an, eman mintzaldi gogoangarri batean, “Euskara Jendea”-ren asmoa agertu zigun, eta jada egina zen DVD bat aurkeztu ere, *Mugetan gaindi* izenekoa. Bertan, Beñat Oihartzabalekin egin elkarrizketa agertzen zen; horrela izan nuen 1757ko euskarazko 50 gutunen berri. Xamar eta haren lagunaren asmoa (euskararen historiari buruzko 6 DVD), izen bereko liburuaren ondotik (2006an argitaratua) heldu zen, eta zombait urtetako lanaren fruitua zen.

Gorago aipatu *Lapurdumen ale bereziak 2-2016* horrela antolatua da:

Lehen atalean agertzen dira:

- Xabier Lamikizen “*Le Dauphin* itsasontziaren testuinguru historikoa: Louisbourgeko euskaldunak, ekonomia atlantiarra eta gerra (1713-1758)”, 17-43 or. Hain zuzen, Xabier Lamikizek gutun horiek Londreseko HCAREN artxibategian (TNA) 2003an aurkitu zituen, prestatzen ari zen tesiaren dokumentazioa ikertzen ari zelarik. Aurkikuntza ederra zor diogu.
- Manu Padillaren “*Le Dauphin* itsasontziko gutuneria (1757) edo euskararen historia behetik, 45-77 or., eta Euskara Ile Royalen, dokumentuen argitan”, 79-83 or.

Bigarren atalean:

- Manu Padillaren eta Xarles Videgainen eskutik, “Edizioaren aurkezpena”, 87-92 or.; “*Le Dauphin*: euskarazko gutunak”, 95-160 or.; “Hiztegia”, 163-187 or.; “Adiztegia”, 189-193 or. eta “Izendegia”, 193-201 or.

Hirugarren atalean:

- *Le Dauphin* dokumentazioaren argazki zenbait: 1. Rôle d’équipage, 203-207 or.; 2. Joanes de Matet-en gutuna, 208-209 or.; 3. Maria de Lamarq-en gutuna, 210-211 or.; 4. Mari Darbururen gutuna, 212-216 or. eta 5. Francha Barreren gutuna, 217-223 or.

Liburuan badira hainbat atal eta parte arras interesgarriak, baina oroz gainetik gutunak berak, “*Le Dauphin*: euskarazko gutunak”, 95-160 orrialdeetan emanak izan direnak.

Liburuaren argitaratzea enetzat izan zen sekulako berri ona: 1757. urteko 50 gutun! Haste-hastetik saratarren gutunak hartu nituen esku artean. Eta segidan ohartu nintzen gutun horietan agertzen ziren pertsonaiak (igorleak, hartzaileak eta bertze) ezagutzen nituela edo ezagutzeko bideak eskura nituela. Zoin etxetakoak ziren, zoin ofiziotakoak eta zer loturak zituzten...

Lehen emaitzak, saratarren gutunez, X. Lamikiz, M. Padilla eta X. Videgain hirukoteari igorri nizkien 2016ko maiatzaren 2an. Orduan bildu nituen datuak, dudarik gabe, liburuaren osagarri gisa hartzen ahal ziren. Gisa batez, liburuan anonimoak ziren pertsonaiek, nahiz izen-deiturak ezagutu, bizi berri bat hartzen zuten, ene ustez. Gutunetan agertzen ziren xehetasunak egiaztatzen ahal nituen nire datuekin eta artxiboetan aurkitzen nituenekin.

Adibidez, 7. gutunean, eta urrunago erakusten dudan bezala, Miguel Harismendy Xantakoreneko nagusiak, Bernard Harismendy semeari idazten dio: *çure anaya prima escondu ha goanareneco alabarequin*. Hain zuzen, nire artxiboetako datuen arabera, ezkontza 1757an gertatu zen, ezkontideak zirelarik Martin Harismendy eta Marie Hiribarren Goanareneko alaba. Berantago, Harismendy-Hiribarren bikotearen alaba prima edo andregaiak, Catherine, Michel Etcheparerekin ezkondu zen. Horrela bada, gutun bat historia bat (edo zombait historia) bilakatzen zen.

Sara herriarekin hasi lana osatuz, bertze herrietako gutunak ikertu nituen. Horretarako baliatu ditudan dokumentuak izan dira:

- Herrietako bataio-ezkontza-heriotzak: herri batzuetan deus ez, hala nola Ahetzen eta Azkainen, eta besteetan 1750 inguruetan hutsune handiak direlarik, Saran, Senperen, Urruñan bezala. Erregistro horiek AD64 deitu webgunean kontsultatu ditut.

- Notarioen agiriak. AD64 webgunean kontsultatu ditut.
- Alfred Lassusen itsasgizonei buruzko lanak, gehienik Ekaina elkartearen monografietan eta baita ere zonbait liburutan.
- Jean-Claude Paronnaud (2014).

Horrela herriz herri ari izana naiz, gutunen pertsonaien berriak ikertzen. Hori izan da, hain zuzen, lan honen xedea eta ekarpena. Baina bada bertze zerbait ere. Ikertzen ari nintzen dokumentuetan sinadurak, gehienetan, eskas ziren. Alta gutuneriak, oro har, frogatzen omen zuen lapurtarren alfabetatze maila handia. Eta alderdi hori ez dut alde batera utzi; aitzitik, ahal izan dudan kasu guzietan entseatu naiz igorleak ba ote zekien idazten frogatzera.

Ene lanaren erditsua egina zelarik, irakurri nuen *Argia* astekarian (2016-09-04ko 2.519 zenbakia), Miel A. Elustondok egin lan interesgarria, *Helmugara iritsi ez ziren 50 gutunak* izenekoa. Artikuluan luze-zabal agertzen zen Manu Padillaren irakurketa lapurtarren alfabetatze mailaz eta alfabetatze sistemaz. *Argia* astekariaren artikulua harrigarria egin zitzaidan, ordurako M. Padillak berak hartua baitzuen ene mezua (ikus gorago) eta baita ere erantzuna eman 2016ko ekainaren 5ean. Ez da ezinezkoa ere *Argia* astekariaren artikulua egina izatea maiatzean eta argitara ematea irailean. Betiere, oro har, ulertu nuen bazela borondatea lapurtarren alfabetatze maila biziki gora egia zientifiko gisa aurkezteko. Izan ere, iduriz, gutuneria horren berme zen. Alta, ene lanaren ondorioa kontrakoa da, hein handi batean.

1.1. GUTUNEN KODETZEAZ

Lan honetan, behin baino gehiagotan sigla batzuk erabili izan ditut, hala nola H20. Lehen hizkia ondoko zerrendan da, igorlearen eta hartzailearen harreman-motaren arabera egina. Bigarren zenbakia aldiz gutunarena berarena da. Beraz, H20 kodea horrela ulertu behar da: amak alabari egin gutuna (hots H letraz adierazia), *Lapurdumen* 20. zenbakia duena.

Horra A letratik K letra artio, igorlearen eta hartzailearen arteko harreman-mota. Parentesien artean dagoen zenbakiak mota bereko gutunen zenbakia ematen du.

A: amak semeari (12); B: aitak semeari (9); C: emazteak senarrari (7); D: arrebak anaiari (5); E: adiskideak, auzoak (3); F: anaiak anaiari (3); G: osabak ilobari (3); H: amak alabari (2); I: koinatu-koinatak (2); J: kusunak (1); K: alabak aitari (1); ?: (1).

Horra mota bereko gutunen zerrenda, *Lapurdum* agerkarian agertzen denaren arabera:

- A1: 2. gutuna; A2: 18. gutuna; A3: 21. gutuna; A4: 22. gutuna; A5: 32. gutuna; A6: 34. gutuna; A7: 35. gutuna; A8: 37. gutuna; A9: 41. gutuna; A10: 42. gutuna; A11: 46. gutuna; A12: 47. gutuna
- B1: 7. gutuna; B2: 10. gutuna; B3: 14. gutuna; B4: 16. gutuna; B5: 19. gutuna; B6: 23. gutuna; B7: 24. gutuna; B8: 40. gutuna; B9: 48. gutuna
- C1: 5. gutuna; C2: 9. gutuna; C3: 27. gutuna; C4: 31. gutuna; C5: 38. gutuna; C6: 43. gutuna; C7: 49. gutuna
- D1: 3. gutuna; D2: 4. gutuna; D3: 28. gutuna; D4: 44. gutuna; D5: 45. gutuna
- E1: 6. gutuna; E2: 13. gutuna; E3: 22. gutuna
- F1: 1. gutuna; F2: 29. gutuna; F3: 33. gutuna
- G1: 25. gutuna; G2: 30. gutuna; G3: 39. gutuna
- H1: 12. gutuna; H2: 20. gutuna
- I1: 36a. gutuna; I2: 36b. gutuna
- J1: 8. gutuna
- K1: 15. gutuna
- ?: 17. gutuna

1.2. LAN HONETAN UKAN DUDAN LAGUNTZA

Lan hau hasi aitzin, hilabetetan egon nintzen Xarles Videgain adiskideari galdezka: noizko duzue gutuneriaren argitaratzea? Egiazki denbora luze egin zitzaidan, eta, azkenean, 2016ko primaderan argitaratua izan zelarik, Xarlesekin nuen lotura areagotu zen. Hain zuzen ere, hasteko, Xarlesen eskutik ukan nuen proiektuari buruzko hainbat datu, eta batez ere gutuneria osoaren argazkiak.

Ene lana, aipatu dudanez, saratarren gutunei buruzkoa, hasi zen 2016ko apirilean. Eta zerbait topatu bezain laster Xarlesi pasatzen nion abisua, eta berarekin ikusten nituen ene aurkikuntzak. Erraten ahal dut, batere dudarik gabe Xarlesen laguntza baitezpadakoa izan dela. Hasteko ez zituen sekula nik erraten nituenak kritika bezala hartzen, ez, bederen kritika ezkor gisa. Elkarrekin ikusi izan ditugu hainbat kasu dudazkoak eta elkarrekin egiaztatu. Eta materiala bildu ahala beti izan dut haren laguntza.

Bertzalde, ukan ditugun elkarretaratze horiek biziki aberasgarriak izan dira enetzat eta horretaz ere ene esker ona, bihotzez.

2. 1757KO GUTUNERIARI BURUZKO OHARRAK, HERRIZ HERRI

Herriz herri egin ikerketa honetan, lehen-lehenik entseatu naiz igorleak eta hartzaileak herri bakoitzaren testuinguruan kokatzera. Artxiboak baliatuz eta gutunen testuak alderatuz atera dudana uzta ez da ttipia gelditu. Nire ustez balio du testuinguru sozialaz jabetzeko. Ez ditut errepikatu liburuaren egileek aipatu hainbat eta hainbat datu: Louisbourg hiriko egoera eta historia –zer zuten igortzen hemengoek harat eta hangoek honat–, zein ziren orduko kortsuzaleen irabaziak eta abar. Gutun bakoitzarentzat lehen-lehenik ematen ditut *Lapurdumen* agertzen diren testuak eta datuak. Baina zenbait kasutan, liburuan badira zenbait huts. Kasu horietan, eta horietan bakarrik, ondotik agertzen dira ene zuzenketak.

2.1. AHETZE

Oharra: Ahetzeko artxibategia biziki urria da elizako agirietan, 1757tik hurbilenak diren urteetan.

2.1.1. **40. gutuna (1757-03-23): David Borotra igorleak Martin Borotra semeari**

Oharra: liburuan, testuan, 40.2v (1. lerroan) *dorreo* - 40.2v (12. lerroan) A bertsoan «*amicolla*» - B bertsoan «*Amikola*». Ene ustez, Dorrea Ahetzeko etxea. “Izendegia”-n beharko luke eta ez “Hiztegia”-n. Amizola Ahetzeko etxea da (gaur egun desagertua), baita ere Ahetzeko erreka baten izena.

La presente soit rendue à Monsieur De Lalongue Bourgois, pour Remettre à martin Borotra son garson sil Lui plait, de Louisbourct a Louisbourct ahetze le 24èmè de mars 1757

Ene seme maitea Erreçevitu dut Çure letra joanden abendoaren 5an eguina, Çeinetan plaçer eta axeguin jçan Baitut Çure berri onen aditçeas, eta Estut berçe lettraric batere erreçivitu Çu horras gerostic, Bainan hitçes Çure Berriac aditçen nituen urtheguçian, eta ossasuna dut jaincoari esquer, eta desiratçen darotçut Çuri ere gauça Bera, fortuna onbatequin neure bihots guçias, baita Çure aitabitchic, eta Çure amabitchic, Bere famillequin ossasuna dute eta dugu, eta milla gorainçi dauçute Eta bay ene espossac, eta Çure ahaide eta adisquide guçiec,

eta Çuri hemengo berrien adiarasteco, segurda aditu içan tucula hemengo Berri tristiac, ehaile gaisçoa preso harturic jondone laurendy egunian, 1755co urthean, parisat eramadute, Sabat dorreco Çena norbaitec hilçea delamedio, eta by hilabete badu jendec daraçatela, bidean heldu dela libro bere etcherat, Baignan oraino esta agueri gaisçoa, eta ostaleriaco premua urthe berian jondoni jauni inguruan preso harturic toulon nen da condenaturic galleretarat seculacots, adisqueideac ongui mellaturic Es urcatçeco. eta diote denbora bates harequin jbili Çen guiçon bat orobat hura beçalla jujamendu beras condenatua dela, amicolla ohiaren colpatcea eta, seroraren leiho hausteco sujeta delamedio, eta itxasoan beçala leihorreen ere fortunac arribatcen dire, Betrieneco jaungaisçoa malobran hari dela lur peçabat gainera Eroriric lehertu jçan da joanden udan, Eta oren baten buruco hil Confesaturic, Çure Çervitçari gelditçen nais ene seme maitea david Borotra, Çure aita guçis fidella eta obedienta,

La présente soit rendue à Monsieur De Lalongue Bourgeois, pour remettre à martin Borrotra son garson. Egiazki Jean Baptiste Lannelongue zen, Baionan sortua 1712an eta Louisbourgen, kortsario nagusia, merkataria eta abar. Ikus *Dictionnaire biographique du Canada.*

Martin Harismendy notarioaren 1752ko martxoaren 13ko agiri batean (3E3973, 316. or.) aipatzen den bezala, David Borotra Ahetzeko Garatenea etxeko nagusia zen, *sieur ancien et foncier de garatenea et acquereur de celle de chanchourenea de la paroisse d'ahetze.* Agiria David Borotraren testamentua da. Bertan aipatzen da seme zaharrena, Bertrand, desagertua dela, *Bertrand Borotra sieur Jeune de la dite maison partit suivant le Bruit Commun sur mer de la ville de Bordeaux où il était pour travailler de son metier de charpentier, et qu'on n'en a pas aucune nouvelle depuis près de dix ans qu'il quitta sa famille, Ce quy Luy fait presumer mort, neanmoins au Cas qu'il soit en vie luy laisse vingt sols, et comme il ne reste au Comparant qu'un autre fils nommé martin Borotra, il le fait et institue pour Son heritier general et universel* eta agiriaren bururatzean, *temoins requis et Cy signés Ce que n'a fait Ledit testateur pour ne le Sçavoir en estant Sommé par moy.* Martin Borotra, hartzailea eta Daviden semea, Ahetze Garateneko nagusi gaztea zen.

David Borotra Ahetzeko auzapez izan zen 1733. urtean. Sei alditan egon zen Uztaritzeko Biltzarrean 1733. urtean Ahetzeko ordezkari gisa.

David Borotra igorleak ez zekien idazten.

Oharra: gutunaren egilea Jean Darretche errienta da, euskarazko eta frantsesezko hainbat testuren egilea.

Gutunean, familiaren berrien ondotik, igorleak semeari aipatzen dizkio herriko gertakariak. Ahetzen 1755. urtean (edo lehenago) gertatu zen hilketaz ari da: *ehaile gaisçoa preso harturic...parisat eraman dute, sabat dorreco zena norbaitec hilçea delamedio*. Badakigu Dorreko (eta Marroreneko) jaun-andereak Saubat Behotas maiasturua eta haren emazte Marie Borotra zirela. Hain zuzen notarioen zenbait agiriren bidez (Harismendy, 3E3971, 251. or. 1750-09-02 — Detcherry 3E9829, 234. or. 1753-07-02 — Harismendy 3E3975, 460. or. 1754-01-28 — Planthion 3E4760, 481. or. 1754-07-31 481 — Detcherry 3 9831, 104. or. 1755-03-26), jakiten ahal da Saubat Behotas bizirik zela 1754ko uztailaren 31n, *qu'il a acheté du pouvoir de Saubat behotat me de la maison de marrorenia du meme lieu D'abetze une journée de chaux*, baina 1755eko martxoaren 26a baino lehen zendua zela, *et marie Borotra veuve de Sauvat Behotas vivant charpentier de maison, maitresse de celes de dorrea et marrorenia d'autre*.

Gutunaren igorlearen arabera, hilketa gertatu zen 1755eko agorrilaren 10a baino lehen, *ehaile gaisçoa preso harturic jondone laurendy egunian, 1755co urthean, parisat eramadute*, nahiz ez den datarik ematen. Egun horretan eraman zuten preso eraile gaixoa.

Ez da dudarik gutunaren egilearentzat preso eraman zuten hori ez dela gaiztagin bat: bietan erabiltzen du gaixo hitza; lehenean Parisa eramana izan dela errateko, eta bigarreanean ez dela oraino libratua errateko, *Baignan oraino esta agueri gaisçoa*.

Ez dut hilketa horren berririk nehon topatu, ez justiziaren artxiboetan, ez Ahetzeri buruz egin liburuetan. Notarioen agiriek argitasun zerbait ematen dute. Ikus “Ahetzeko hilketa” izeneko azpikapitulua hemen berean.

2.1.2. **48. gutuna (1757-03-23): Joannes Larralde igorleak Betry Larralde semeari**

La presente Lettre soit Rendue A Monsieur Betry Larralde qui lest apresent Jganis a terreneube A Jnanis Fait ahex le 1 avril 1757

Enez semaiz maitea harcendout libertatez souri by Leroren Jscribatceco Eta dembora berean henbego berrien gastiatcequo ossasounadougou Jaincoary Esquer desiratcen guidouque sourez hala balis gourez besala ounguida arebca domins senara corsoubandou Eguintoutez hirour presa serbaiten Esparança Doutez anaya biac Espaniandirez ossasounarequin direz areba mariatoac mila

goraincy gousien partes ossasounadougou amac milla goraincy sou Iqusy nahis sangrignean dagoela ahaidez Eta adisquidez gousiez goraincy aguereco semeary mila goraincy berez familiac amac Eta ahaidez gousiec aguereco bianayac corsouban direz Corsouçalec serbait Eguiten doutez sourez servitçari guelditcen nais Enez semay maitia sou Jcusiateragnoco chagrignian

Joannez Larralde

Martin Harismendy notarioaren 1748ko azaroaren 30eko agiri batean (3E3969, 76. or.) aipatzen den bezala, Joannes Larralde Ahetze Goanttipireneko nagusia zen. Betry Larralde semearen ezkontza da aipatua agiri honetan: emaztegaia Senpereko Aldapa eta Ihitzagerre etxeetako alaba Marie Diharse; senargaia Betry Larralde, teilagina, Ahetze Goanttipireneko semea. Bertan dira Joannes Larralde, emaztegaiaren burasoak eta lekuko eta adiskideak. Notarioaren hitzetan, *desquels Ceux qui le Scavent ont Cy Signé Ce que n'ont fait pour ne le Scavoir lesdites parties à la réserve du dit Diharse en étant Sommés par Moy.*

1758ko urtarrilaren 8ko agirian, *Quittance de la somme de 200 livres par Michel dastaritz pretre docteur en theologie a ceux de goanattipirenea d'ahetze* izenekoan (M Harismendy 3E3979, 20. or.), aipatzen da etxe horretako nagusi zaharra Joannes Larralde dela eta nagusi gaztea Joannes Larralde “*maitre tuillier*”.

Betry Larralde 1757an Niganichen zen, baina ez dakigu teilagin gisa ala itsasgizon gisa.

Bertzalde gutuneko pasarte batek *anaya biac Espanian direz ossasounarequin direz* erakutsiko luke teilagintzara joanak ziratekeela, denbora haietan maiz gertatzen zen bezala.

Joannes Larralde igorleak eta Betry Larralde hartzaileak ez zekiten idazten.

2.2. AZKAINA

Oharra: Azkaineko artxibategia biziki urria da elizako agirietan, batez ere XVIII. mendean. 1733. urteko agiri batzuk dira 1757tik hurbilenak. Hemen agertzen ditudan xehetasunak Alfred Lassus historiagilearen lanetan topatu ditut eta notarioen agirietan.

2.2.1. **8. gutuna (1757-02-26): Maria de Bortairay igorleak Joannis Hiribarren kusiari**

La Presante soit rendu à joannis hiribarren a presens A Louisbourg

Ene adisquide maitea

Esribatcen dausquiçut bi lerro hauc çury aditcerat emateco ene eta cure ezposaren ossasunaren berry ceînetan ossasuna baitugu çure hurrequin batean dessiratcen nuque edo quinduce çurea hala icatea, badaquiçu lau atorra nolla eman nausquitçun eta sembat hetaz progoitchatu çaren uste nuen oray baiño lehen satisfactua içanen nintcella ceînetan hamar escutu montatcen baitute, nere nessesitateac huntarat obligatcen nau, beras othoisten caitut lehenbico comoditatean egortceaz erran den hamar escutuac hec, eta othoisten caitut çure fammillarat erretira caitecin ecen çure emaste gaichoa çure arribada nois icañen duen gdago cerbaitequin, salutatcen caitu cure andreac haide eta aquide guiciec eta ni guelditcen naiz çure cussina maria de bortairay servitçary ascainen oxailaren 26an 1757an

Ez dakigu xuxen, amaren aldetik edo aitaren aldetik, nola zen kusina Maria Bortaire Joannis Hiribarrenekin.

Maria Bortaire merkataria zen, *badaquiçu lau atorra nolla eman nauzkitçun ... uste nuen oray baiño lehen satisfactua içanen nintcella ceînetan hamar escutu montatcen baitute.*

1764ko agorrilaren 22ko Duhalde notarioaren agiri batean (3E9607, 147. or.) Marie Bortaire (beste dokumentuetan Borthairy) aipatzen da eta dokumentuaren azken lerroetan, lekukoak aipatuz: *et non le second et la comparante pour ne savoir écrire ainsi qu'ils ont déclaré à ce faire étant sommés par moy.*

Joannis Hiribarren hartzailea, 1717. urte inguruan sortua, Magdeleine Dabbadierekin ezkondua zen eta itsasgizona, *officier marinier*. Brest hiriko ospitalean zendu zen 1757ko martxoan baino lehen (A. Lassus).

Marie Borthairy igorleak ez zekien idazten.

2.2.2. 27. gutuna (1757-03-16): *Marittipo de Subiet igorleak Laurens Perusquy senarrari*

a Monsieur Monsieur Laurens Perusqui, Marinier, A Louisbourc Laurenz

Asco demboraz egon gara zure letarren esparanza bainan batere ezdugu izatu; zure orde cenbait saratarrec ceinec ikussi baitzaituzte errandaucute ossaasun on bat cindueta, baetare cerbait irabaçi duzula. Guc gure berriac gastigatcen ganaizquitzuun Gabriel Lecunberricoarequin eta guero Ciburu pattineneco semearequin, baina biac elga anglessez hartuac izandira, eta Lecunberricoa han hilda. Belchagno ere oraino Anglaterran da. Zure semea eta alaba aguitz ungui dira, bieç mila gorainci egortzen dautzute, baetare bere anayari ere, bertce garaitico zure ahaide guciac ere ungui dire; Naussianeco appheza hilda orai duela sei edo zazpi ilhabete. Hassi naiz zure zorren pagatcen eta zure ontassuna asqui estatu onean da. Hemen ezda Gerla hotsic baicin, baitugu herrico soldadoac Bayonan, eta marinelaç cortsuan dabilza eta cerbit eguiten dute, eta bertce cenbait erregueren cerbitzuan dire. Mr Bidartec gorainci zuri eta Martin chumeari. Jaincoac dizula ossassun on bat eta fortuna eguiteco Gracia; zure cerbitzari.

Marittipo de Subiet Ascain le 16 mars 1757 tournés s'il vous plait, zuc egorri terciota hutza errecibitu dut, ceren urina uncian issuri cen; pastillaco macailluac erremetitu daitazte, bainan zure harbi pastea ez daut oraino eman Sansonec, eta manta ere ez da oraino eguin.

Perusquy-Bidart bikotearen semea zen Laurens Perusquy; Laurens, *charpentier de navire* eta *fils de Jaureguia* gisa ezagutua, 1735eko urtarrilaren 13an, Marie de Çubiet-ekin (Hargibeleko ondokoa eta merkataria) ezkondu zen. Ezkontza-kontratua, Dolhagaray notarioaren aitzinean (3E9585, 12. or.) 1735eko urtarrilaren 17an egina izan zen. Ezkongaiiek ez zuten sinatu, *pour ne le scavoir comme ils ont déclaré de ce faire interpellés par moy*.

Gabriel Lecunberricoarequin - eta Lecumberricoa han hilda: Gabriel Hiriart zen.

Naussianeco appheza hilda orai duela sei edo zazpi ilhabete: Chrisant Darrayoaguerre Nagusiareneko ondokoa zen, apaiz eta teologian doktore. *Zure semea eta alaba aguitz ungui dira, bieç mila gorainci egortzen dautzute, baetare bere anayari ere, - Mr Bidartec gorainci zuri eta Martin chumeari*: Laurens Perusquyren seme bat, Martin delakoa, Louisbourgen zen. Dolhagaray notarioaren 1736ko martxoaren 13ko agirian, Laurens Perusquyren testamentua agertzen da (3E9576, 343. or.) eta ondoko orokor gisa Martin semea aipatua da, *son fils agé d'environ trois mois*. Erran

behar da itsasgizonek behin baino gehiagotan egiten zutela ordenua itsasoratze aitzin.

Duhalde notarioaren 1764ko martxoaren 20ko agirian (3E9607, 5. or.) Marie Çubieten ordenua agertzen da. Dituen ondasunak norentzat izanzen diren aipatzen du, ondoko partikularrak eta ondoko unibertsala izendatuz. Senarra zendua baitzen (ikus 3E9607, 36. or.) eta haurrik ez, ilobak dira ondokoak, *son héritier général et universel martin perusqui son neveu - et lecture luy ayant été faite mot à mot en son idiome basque*; ondotik, lekukoak aipatuz, notarioak dio sinatu zutela, baina ez ordenu egileak, *et non la testatrice pour ne savoir écrire ainsi qu'elle a déclaré, à ce faire sommé par moy*. Notario beraren 1768ko martxoaren 28ko agiri batean (3E9611, 44. or.) errepikatzen dira datu guzi horiek.

Marie Çubiet igorleak eta Laurens Perusquy hartzailak ez zekiten idazten.

2.2.3. **32. gutuna (1757-03-19): Maria de Saint Martin igorleak Joanis Diharce (de Charlesenea du lieu d'Ascain) semeari**

Lapresente serarendue aJoanis Diharce, fils de Charlesenea, dulieudascain marinier apresent A Louisbourg Sibourelle 19 mrs 1757

Ene seme maitea

Errecibitu nuben çuc egorri dautaçun Lettra de Changea, non demboraberean, Dirubac errecibitu baintuben, milla Esquer Darotçut, Jaincoa otoistuco dut Cure Ossasunarentçat, aitag etanic ossasun onbat dugu Jaincoari Esquer, haurrideec ere bay, anaya premua, erregueren servitsuan da vrte huntan, aditu dugu, Monsieur fagosserequin partitcera dohala, Louisbourquera goateco aguien hor Elcar batuco duçube, Joaniz Eta putico, Corsurat goanat dire, ahaide eta etcheco adisquideac, ungui dire, milla gorainci dautçugu aitag Eta nic, nais Çure ama samurra

Maria de Saint martin

aitac otoisten çaitu ahalic Lasterrena vnat ethorceas, alabaiñan sahartuda, bota saharpare bat, Eta athorra bat egorcen dausquičut Raimond Eistoquenecoarequin

Othoi çato etchera liburuaren egileek Ziburun ematen dute gutun hau, Ziburutik igorria izan baitzen. Igorlea eta hartzaila azkaindarrak izanik, hobetsi dut Azkainen ematea.

Joannis Diharce (itsasgizona) eta Marie (Marie edo Domindigna) Saint Martin (igorlea) bikotearen semea zen Joannis Diharce hartzailea, 1737an sortua. Burasoak Xarlesenea edo Xarlesbaitako jaun-andereak ziren.

Joannias Diharce hartzailea (*Joannis le cadet* deitua) 1737an sortua zen eta beso ezkerre hebaindua zuen 1762an; halere 1774an arrantzan ari zen (Paronnaud).

Anaya premua, erregeren servitsuan da vrte huntan, aditu dugu, Monsieur fagosserequin partitcera dohala, Louisbourquera goateco aguian hor Elkar batuco duçube. Joannis Diharce, 1734an sortua zen eta erregeren zerbitzuan aritua, 1780. urtean *hors service* deklaratu izan zen (Paronnaud).

1761eko urriaren 8ko Duhalde notarioaren agiri batek (3E9604, 233. or.) ematen dizkigu zenbait argitasun familiar buruz. Agirian, Joanis Diharcek (dokumentuan Jean Diharce «*marinier*»), Marie St. Martin amari ematen dio ahala: «*à laquelle il donne plein et entier pouvoir. - ce qui pourra luy etre du de la campagne du comte de gramont et de son voyage a Quebec sur le corsaire Le Marchand - et de la campagne qu'il se propose de faire sur le corsaire Le Labourt de Saint Jean de Luz*». Ama ez da agiria egin izan zenean. Semeak (iduriz Joannis premua) ez daki sinatzen.

1774ko uztailaren 29ko bataio batean, burasoak ziren Jean Pierre Diharce (ontzi-maiasturua eta, menturaz, «*putico*» delakoa) eta Marie Arruspe Xandirubaitako jaun-andereak. Aitabitxia Jean Diharce Xarleseneko nagusia.

Jean Detcherry notarioaren 1776ko otsailaren 29ko agirian (3E9852, 216. or.) igorlearen testamentua agertzen da. Bertan aipatzen da *a comparu Domindigna Saint Martin femme de Jean Diharce, officier marin, sieur de Charlesbaita, habitant de la paroisse d'Ascain*; ardua ikusten den formula erabiltzen da, *lecture faite à lad. testatrice en son idiome basque*, eta azken lerroetan notarioak dio lekukoek sinatu zutela *et non la testatrice qui a déclaré ne le savoir*.

Marie Saint Martin igorleak ez zekien idazten.

2.2.4. **36a. gutuna (1757-03-22): Gachina St Pée igorleak Catherine (veuve de) Gelos koinatari**

Oharra: liburuan, izenburuan, hartzailea: “Catherine (veuve de) Gelos”. Ene ustez, (veuve de) hori tronparria da. Egiazki Catherine Gelos, veuve Saint Pée baita.

A Mademoiselle mademoiselle Catherine Gelos Veuve a Louisbourg founs de labay

Ascainen Eguina marsoaren 22an 1757

Ene coinata maitea harcendut Libertate sury by Leroren Escribatçeco osasuna dugula familia gusiak Eta desiratcen nuce surea osasuna puerfet bat familia gustiarecien batean. Cuc hortico Egori presentac Eresibitua ditut picunecin hamabi Libera Eta michelecín berse hamabi Libera Eta nic suri Egortcen darotçut Esagutça chume bat picunecin urdai aspibat Eta 2 harilco jostal hary eta baratçeco hasiac Eta sansun hiriart sure osabaren Bateleco arotcarecín urdai aspi bat Eta bi jostal hari harilco eta baratceco hasiac amac goraintçi Eta gure semeac Eta alabac Eta Coinata piarres herianda Eta trabailuban harida bere ofisioan oraino Eta isatu Corsuan sure sapata Eguileac ni presatcen nau Eta gastia dasu ser Eguin ahal desacedan lehenbisico Comoitatean Eta Egori nahi narotçun serbait guehiago bainan denborac Causatu baitu oraino guerlaren aparantcia handia da Baionan Eta donibanen badire hemesorsi Corsucale untçy istileroan Eta Corsurat goanac guehiago Esta hemen Berse negosiori Corsua Eta Corsua basic Eta bisia garastia oguia asci arasoinda bainan arnoa Eta gacia dira garastia. Estut presentean guehiago suri declaratçeco Ene Coinata maitea basic naisela sur serbitcary Bihotz gustias

gachina St pe

Hartzailearen izena, beraz, Catherine Gelos zen. Catherine Gelosen burasoak ziren Joannes Gelos bardoztarra eta Catherine Laborde, Bidarten ezkonduak baina Louisbourgen kokatuak. 1750. urtean senar-emazteak bizirik ziren Louisbourgen.

Hartzailea, Catherine Gelos, (Bidarte Alapeirako ondokoa) 1740ko urtarrilaren 20an ezkondu zen Bidarten Jean St. Pée (Azkaine, 1714-08-14), Michel St. Pée eta Françoise Hiriart bikotearen semearekin.

Michel Garrin notarioaren agiri batean (1754-03-08 – 3E9621, 151. or.) Catherine Gelosek bere ahal guziak ematen dizkio Louisbourgen den

Catherine Laborderi. Dokumentuan Catherine Gelosen sinadura agertzen da, *Catherine Gellos*.

Jean St. Pée, bigarren ontzi-kapitaina zen 1748an eta ondotik ontzi-kapitain gisa agertzen da. Bidarten 1753ko agorrilaren 21ean egin zen hiletazerbitzuan aipatzen da *decedé à l'Isle Royale de Capbreton, âgé d'environ 40 ans*. Catherine Gelos, alargundurik, Louisbourgen bizi zen. Erran behar da haren ama, Catherine Laborde, Jean Laborderen arreba zela; Jean Laborde, Louisbourgen, kargudun handi (erregaren diruzain orokorra), ontzi-armadore, eta merkataria zen.

Gachina St. Pée igorlea Jean St. Pée-ren arreba zen. 1779ko urriaren 25ean zendu zen Azkainen 70 urte inguru zituelarik; *femme de Pierre Etchegaray sieur de haran gaineco etchea* gisa aipatua (Pierre Etchegaray 36b. gutunaren igorlea). Gachinak, gutuna egina izan zenean 47-48 urte zituzkeen.

Eta sansun hiriart sure osabaren, Catherine Gelosen senar zenduaren osaba zen Sansun Hiriart.

Igorleak Piarres Etchegaray senarra aipatzen du: *Coinata piarres herianda Eta travailluban harida bere ofisioan*.

Gachina St. Pée igorleak ez zekien idazten (ikus 36b). Aldiz, Catherine Gelos hartzaileak bazekien idazten.

2.2.5. **36b. gutuna (1757-03-22): Pierre Etchegaray igorleak Catherine (veuve de) Gelos koinatari**

Ene Coinata maitea osasunadut Eta desiratcen nuce surea puerfet bat jsatea familia gustiarecin batean herenegun Ethori nais baionnatic travailluan harituric sure osaba monsieur Labordaren batelean Eta goletan Etaoray donibanerat noha travaillurat semea baionan dugu Escolan Eta osasunadu Eta guc Ere osasunadugu familia gustiac salutatçen dut sure ama Eta betrico Eta sure aispas Eta apa Eta Louisa Eta hordiren Ene adiscide gustiac Eta guelditcen nais sure serbitcari Bihotz ones Cure Coinata maitea

pierre Etchegaray

Pierre Etchegaray igorlea, Gachina St. Péeren senarra zen eta ontzi-maiasturua, *Ethori nais baionnatic travailluan harituric sure osaba monsieur Laborderen batelean Eta goletan Etaoray donibanerat noa travaillurat semea*

baionan dugu Escolan, 50 urte ingurukoa. Emaztearen bidez zen Catherine Gelosen koinatua.

36b.a ez da egiazki gutun bat: ez da bertan berezko datarik, ez da agertzen Azkainetik idatzia denik, ez eta ere nori zuzendua den. 36a gutunaren, emaztearen gutunaren, segida baizik ez da 36b gutuna. Biak esku berekoak dira, menturaz, Pierre Etchegarayenak.

1757ko otsailaren 21ean Duhalde notarioaren aitzinean egina izan zen akordioaren bidez (3E9601, 29. or.) jakiten da: *pierre detchegaray me. charpentier de navires et gracieanne semper sa femme - reconnaissent avoir reçu. - en ecus de six livres et autre bonne monnaye de cours de marie sabarots veuve foncière de laboulé dud lieu y habitante la somme de 150 livres*; dokumentuaren azken lerrotan aipatzen da *en presence de Me. martin duhalde pretre et vicaire et charles darrigade temoins habitants du meme lieu à ce requis et cy signés avec led detchegaray et non lad sabarots et semper pour ne le savoir ainsi qu elles on déclaré de ce interpellées par moy.*

Salutatçen dut sure ama Eta betrico Eta sure aispa. Horren arabera Catherine Gelos hartzaileak bazuen Louisbourgen ahizpa bat.

Pierre Etchegaray igorleak (ikus 36a) eta Catherine Gelos hartzaileak bazekiten idazten.

2.3. BIDARTE

2.3.1. **31. gutuna (1757-03-17): Catherine Douat igorleak Pierre Latiga senarrari**

Lapresent Letre soit Rendue apierre Latiga de Louis bourc aLouis bourc

Bydarten eguina Mars 17 1757

Ene esposmaitea estut faltatu nahiican Lehen bicico ocasionehuntan Curi ene eta ene famillaren beriac gastiatu gabe ama jaincoac ereman daut eta aita hartan Candelas Ceinatuba dut bertce familia gucia Vungui gare presentean desiratcennuque halabacine Cuc egori leytra gainda eta belanais eta bi letra erecebitutut behar orduban eguin dautcut anitz Letra eta Cuc esbatero erecibitu esta ene falta hanitz penadut Cuc prometatu Mecac emanduteta orai hanitz pena dut deusic ecin egoria nihorc esdaut hartunahi berdin galdubac direla berac dohacila salba edo Damna eguitentut Biltra bentan bat espada bertceda aguiian aribatucodela gelditcen nais Cure espos fidel maite Katalin Duat nic

oyerec eta aitac eta Cusinac Milla ama cahara Cure jcaba jaincoac hautatudu piarres estut hemen ematen deus gehetasunic batere Berdin Letrahauc aribatcen badire guconec eraredautcute jaincoac Dacula fin ona Cure ahaide eta hauco eta adisquide guciec Milla gorainci

oyer Dyratcaba

Oharra: Pierre Latiga (horrela idatzia da gutunean) egiazki Pierre Lartigue zen.

Catherine Douat, Betry Douat eta Sabine Leon bikotearen alaba, 1750eko urtarrilaren 27an ezkondu zen Pierre Lartiguerekin (1723-05-28); Pierre Lartiguere burasoak ziren Pierre Lartigue eta Marie Erremon (edo Garat).

Gutunaren azken partean Oier (= Auger) Iratçabal idazleak, idazlariak, hartzen du hitza eta gutuna bururatzen du. Oier ehulea zen eta Kontrestako semea.

Gutunean Catherinek dio *ama jaincoac ereman daut*: Sabine Leon, Catherine Douaten ama, 1757ko otsailaren 22an zendu zen.

Eta azken partean Oierrek dio, *nic oyerec eta aitak eta Cusinac Milla ama cahara Cure jcaba jaincoac hautatudu*, delako ama zaharra Gratianne Errecart zen (heriotza, 1757-02-02). Egiazki Oierren emaztearen ama eta Pierre Lartiguere izeba. Gauza ageria da bien arteko ahaidetasunezko lotura. Hain zuzen Oier Iratçabal 1740ko urtarrilaren 16an Marie Lartiguerekin (Pierre Lartiguere kusina) ezkondu zen. Bertzalde, Lartigue-Douat bikotearen seme baten (Auger, 1753-10-13) bataioan Oier Iratçabal aitabitxia izan zen.

Pierre Lartigue hartzailea, 1753an joan zen Louisbourgera eta bertan gelditu –1755ean Niganichera joan zen–. Louisbourgen zendu zen 1758. urtean.

1750eko urtarrilaren 27an Pierre Lartigue eta Catherine Douat bikotearen ezkontza-agirian ez batak ez besteak ez dute sinatzen, idazten ez dakitelako. Aldiz, lekukoen artean da Oier Iratçabal eta honek sinatzen du.

2.3.2. **44. gutuna (1757-03-26): igorleak: ? Gorte igorleak Dominique Gorte anaiari**

A Monsieur Dominique Gorte a presant a Lussibourc a Lissibourc

Bidartten Egina martçoarean 26 1757

Ene anaia maitea hartçen dut libertad çuri bilerroren Ecribatcequo Eta familiaquo berrien curi aditçerat Ematequo ossasuna dugu jainquoari Esquer ceinetan Desiratcen baiquindue cure halla ballis hirur letra jçatu ditugu Eta niç Egorridut lehen bat amaç biia eta connataç bat Eta orai hurrur bat banna bat marsanç handiarequin eta bertçe bat larrametequin Eta bertçe bat tilliquinnequin asquenequo letran Escribaturic helduçarela Etcherat Vda hastean possilbebada hargatic Cerbeit Egorrigogo gindubenaç Ecin irisquatugare Egortçerat chasquanarenequo jaunna Eta hartubaç dire garnesein Eta deussic ballin ba duçu Eseiia çaita letra chanaiaç ahaliç hobequiena Eguiniç bei untcitan Egortçerat Eta niholere possilbebada Cato Etcherat gure jçusterat anaç Eta cunnataç milla gorrantci Eta connataç othoi catoçela Etcherat Etçhortçerat possilbebada niholere hemenere badela jnobres frango mortehentean chortçurat - 60 tt jlabetean Eta chortçurat bilabeterentça - 150 tt nahidutena Eguiten dute cato ahal badgiuçi Etcherat cure ama maitea lehenniç Eta gerogu hurren çuc aditçerat Emandaroquigutçun berriac aditu Eta ondoban cu horquo miserietaric Etoria jcusinahis Etcherat cato Etcherat bi seme jçatutugu lehen biçquoa hil chen sortuta cortçigarren Egunean Eta bertçea haur gallant bat dugu Elqaarri Eguinen diogu beguitarte cato Etcherat presentian Eçdut curi ceraditçera Eman guelditçeinais cure cerbitçari fidel bihosones cure arebamaitea Eta bertçe fammilla gucia orobat. piarre hiribarren griaçan gorte maria bastres

othoi cato Etçerat

Oharra: Erran behar da liburuan Gracian Goute aipatzen dela igorle gisa: Gracian huts bat da Dominique beharrez. Goute, aldiz, irakurketa ez-zuzen baten ondorioz agertzen da, egiazki Gorte delarik.

Igorlea Gracianne Gorte (edo Corte) zen. Hartzailea Dominique Gorte (edo Corte).

Gorte deitura Bidarten lehen aldikotz agertzen da Joanes Gazte Gorte baigorriarra Marie Larreguy Joanesetxeberria etxeko ondokoarekin ezkondu zelarik 1697ko urtarrilaren 13an; seme alabetan Gorte deitura agertzen da gehienik baina, zombait aldiz, Corte, Gorte Etcheberry edo soilik Etcheberri deitura emana da. Pierre semea (1698-02-04) izan zen Joanesetxeberriko jauna; Bernard (1705) Bizkarreneko jauna bilakatu zen ezkontzaz. Alabetan Gratianne (1702-01-08) Pierre Manchulasekin, *officier marinier*, ezkondurik (1734-01-26) Emaztehandiarenea etxeko anderea bilakatu zen (ikus 3E9622, 411. or.); Françoise (1714-05-19) Jean Duhalderekin ezkondurik (1744-02-15) Mariahiriarte etxeko andere gisa agertzen da agiritetan; Salvat, 1719an sortua eta itsasgizona, Ile Royale-n hil zen 1740an.

Bernard Gorte Marie Bastres Bizkarreneko ondokoarekin ezkondu zen 1730eko urtarrilaren 31n. Bien alaba Gratianne (1733-11-18), eta seme Dominique (1735-09-17) izan ziren gutunaren igorlea eta hartzailea.

Dominique Gorte jadanik 1751n Louisbourgeko *l'Espérance* itsasontzian zen eta, bertan zenbait urte eginik, 1755eko urtarrilean itzuli zen Baionara; urte bereko martxoan Louisbourgera itzuli zen.

Gratianne Gorte 1755eko urtarrilaren 14an ezkondu zen Pierre Hiribarren izenekoarekin. Ezkontza-agirian emaztegaiak ez zekien idazten *qui ont cy signés avec ledit epoux ce qui n'a pas fait la partie pour ne savoir écrire*.

Ezkontza aitzinetik, 1754ko abenduaren 22an, Michel Garrin notarioaren aitzinean egin ezkontza-itunean (3E9621, 381. or.), Pierre Hiribarren *officier marinier* zela aipatzen da. Senargaiak agiria sinatzen du, emaztegaiak ez.

Bi seme jcatutugu lehen biçquoa hil chen sortuta cortçigarren Egunean Eta bertçe haur gallant bat dugu. Lehen haurra Jean segidan hil zen (1755-10-23); bigarrena, Arnault, 1756ko urriaren 25ean sortu zen.

Pierre Hiribarren, 1759ko uztailaren 3ko notario-agiriaren arabera (3E9623, 554. or.), preso zen Ingalaterran, *Pierre Hiribarren marinier depuis quelque temps prisonnier de guerre en angleterre*.

Eta bertçe fammilla gucia orobat piarre hiribarren graçian gorte maria bastres, Pierre Hiribarren, igorlearen senarra zen; Graçian Gorteri buruz ez dakit ezer; Maria Bastres Gratianneren ama da.

Joannis Gorte, 1735ean sortua, Joanesetxeberriko kusia ere itsasgizona zen eta Ile Royale-n arrantzan ibilia 1751-1755 urteetan.

Gracianne Gorte igorleak ez zekien idazten. Dominique Gorte hartzaileari buruz ez dakigu ezer, baina ikusirik haren adina (21 urte), pentsa daiteke ez zekiela idazten.

2.4. DONIBANE LOHIZUNE

2.4.1. **20. gutuna (1757-03-13): Marie Darburu igorleak Marie Harboure alabari**

Oharrak: Liburuan, izenburuan, hartzailea: Marie Harboure. Ene ustez: hartzailea, dudarik gabe Duhalde da, eta ez Harboure. Gutunaren azalean berean ere Duhalde deitura agertzen da.

Liburuan, testuan: 20.3r (6 lerroan): A *conxarat ateratu*; B bertsioan: *Kontxarat ateratu*. Ene ustez: *corxurat ateratu* = kortsurat ateratu.

20.3v (15 lerroan): A bertsioan *sastiluri*; B bertsioan: *Sastiluri*. Ene ustez: Castillou, Jean: *gorainxi osaba sastiluri*, Pierre Duhalde getariarra eta Goanna Duhalde (Jean Castillou-ren emaztea, ikus 15. gutuna) anai-arrebak ziren.

20.3v (17 lerroan): A bertsioan *nahi gaitubela haren familac osasuna dubela ene haur maiteac*; B bertsioan *nahi gaitubela haren familak osasuna dubela. Ene haur maitea*. Lerro oso bat falta da (hori gutunaren beraren argazkian ikusten ahal da). Ene ustez, testua delarik: *nahi gaitubela nor bere familetan eta aitu dudala haren familac osasuna dubela ene haur maiteac*. Gutunean *maitea* da eta ez *maiteac*. Lerro osoa ahantzia izan da.

20.3v (19 lerroan): A bertsioan, *granganec eta ganisec*; B bertsioan, *Granganek eta Ganisec*. Lerro oso bat falta da hemen ere, gutunaren beraren argazkian ikusten denez. Ene ustez, testua *granganec eta bere andreac eta madam lebretet eta ganisec* da.

A mademoyselle Mademoyselle Marie harboure duhalde demeurent ches Monsieur de Laborde Trezorie Du roy Louizbourq

Donibanen eguina marxoaren 13

Ene haur maitea estinat faltatu nahi hiri ene berijac marcatu gabe cenac eraten baitun estunala aspaldijon gure beriric jcatu hanbat gastoago gurexat nic eguin dausquinat beti unsi gusietan letrac eta hic es jsatu estun beras ene faltaric egori dinat bat lanxecanetuquin bersea hire cusina defuntubarequin cenac etori baixen miselequin bajonarat gasoa eta egori naunan harequin berajnquin mantalina anegeletacoa ungi fina bere erribana eta siricubatequin cenac hire matantac churunecoac cuxan sartu omen baixuben eta berce bi letra patineneco siburuco premubarequin cenac egun angeletaran baita gasoa Ene haur maitea badin hilhunen hogoy eta sejean exetic partiru hinxela egundano hirur urte egundano estinat jsatu oren laurden baten erepausuric basaquinat gusijac ene faltat direla cenac ene becatubac handijac baitire banan esparanxa dinat jeancoac misericordia jsanen dubela nitas cergatit ene uste gusijan ungi harcen tinat eta adixen tugunaren arabera estela posile salbaxea hemen non estugun becatuba purgaxen beras esparanxan nijagon jencoac estausquidala bi pena emanen ene haur maitea dominica comentuban esquibas cuxaturic exerat etori sijaetanen ganxen hirur jlabeteren buruco marcas et ni gaixarequin eta gabearequin anaja bisentec jcusiric ene sangrin handija hamabors libera eman sitinan bere bartetit saflenxat eta orano hanix behar aita laurenxec aituric ene dolore handijac exerat etori sixaitanen era bere pesunan gaisoa esqueletaric hela ganincenenean hura norxare ene afijutu gasoa harxasu curaje jsanen dut nic

çure habraren sendaxecoa beharden gusija emansinan asquenean paruca eta sapela eta galderdi pare berijac eta beguisuri baitacoec nenoni ganic sapata pareberijac eta bi atora olal pesatit hec pagaxecotan aita laurenxec gastijaxen daun gorainxi eta jeancoari gomendaxen habela eta letra bat eguin diosanala falta gabe anaja bisentet ere bai gorainxi mila mila eta otoisten haute nitas oroit hadiela jencoac benedicatuco habela ene haur maitea ene haur maitea badaqun ganis nola exerat nola etoricen sarpan borsoseqin eta esquijes esquebias betea bisajarano presune exirunan besala exaquinat bisiric nola egotu ninxen hura jcusi nubenean gasoa eta neronj jop besala asdipat gabe egundano besala aita laurenxec aituric hurere sendarasi sinan beharden gusija emanic cenac bijac gusta baitire laragoj libera pasaturic eta nirijere socolotat eta masapanac eta biscoxac gaisoac egorcen sijauquidan denboratit denborara secular estinan pagatuco haren borondatea bisi naisseno bainan sendubec asco hortaco eguiten diten diten salbaxeco eta hura halacoa dun ene haur maitea ganisona ganxunan corxura eta anglesec harturic exatu sistenen espainijarat lisibona eratendioten portu batera senac gasoa etori baixen ones berehun lecoatan bere lagunequin pilala triste batean exunan hura jcustea baisic berxe miraculuric bulus gorija huren egundano besala candeguletaco jaunarequin eguin sunan gasoa eraten sautalaric eja hemen cer eguinen ene sangrinaxen miserija huntan eta beti sor egujten ene haur maitea corxarat ateratu bela eguiteco eta adi ene haur maitea costara santabarraco aroca ganer gusijec exitu gerostit jeancoac escpacatu etea bergina ama maiteac aiseago contaxen daunat pasatududan baino ene trublea ene haur maitea orai beris gan sijaitan bajonatit badin partitu dela hogoy eta sorsiegun estinat deusere beriric hemenxe njagon jeancoaren esparanxan harc plaser duben gusiaren erebixeco ene haur maitea dominjca abijatu sijaitan harcere gan behar dubela corsura aita graffeli eraten sijen duacola maseterearj minxaxera hardesala corxura minxatu dubenean bajex gogotit eta beras harequin sioan gasoa orai laster ene ama maitea gurexat estuxu asqui arebac egorxen tuben diru gusijac eta cerori miserija hortan asajatu behar dut nic ere cure lagunxera ene haur maitea jsatu tinat behin hirur hogoy libera eta berxe behin larogoy libera estauquinat gastijaxen ene sangrin gusijac cergatic hi urrun baitaut eta badinat hire behara jeancoac usten nabeno ene haur maitea begui suri baitaco marilantat perxecutatuba nijalabin jcaten dudala diruba franco hire ganic eta paga desadala edo hi gastija haren pagaxeco hic egorxeas badacinala dirubac eman sauquinala gurexat fantesijan sartuba dun letra eguin dautela eta hic es erepustaric eguin nic pagaxen tinat gusijac jencoac nahi baitu horla estebenic gorainxi mila eta egorxen dau biletta bat letra hunen barnean lahitunen semijarenxat eran dionasala pagamendu hori eguin isosala sor justuba duben besala ene haur maitea ganisec eta ganabrac jsatu diten disputa ganabarc aditu dubela esconxen haisela toqui gusijetan eta ganisec esex eta nic eman dinat bacea jeaincoas landan ni ama naisela eta nic jeacin behar dudala lehenic eta orduban jacinen dutela jea hala den es ala bai jeancoac eracuxico daun cer eguin

eta bergina maiteac aguijan ene otojxa adituodin ene har maitea hiri cer jspira gorainxi osaba sastiluri mila damu dudala haren afesioneas gusijac jeancoac uquitu nahi gaitubela nor bere familetan eta aitu dudala haren familac osasuna dubela ene haur maitea gorainxi granganec eta bere andreac eta madam lebretet eta ganisec eran sijataunen hire gorainxiac emateco falta gabe dominjac ere gorainxi mila mila eta jeancoari gomenda disinala ganabrac ere mila mila gorainxi eta ganeraco ahaideta adisquide gusijec ene haur maite maitea geldixen naun hire ama mait maitea tonbarano mari darburu ene haur Maitea enaquinan nola eman mila sasi ehunac

Pierre Duhalde (*officier marin* eta sortzez Getaria Xuhurrareneko semea, Munjou Duhalde ontzi-kapitainaren semea) 1731ko urtarrilaren 7an ezkondu zen Donibane Lohizunen Marie Harboure (gutunean Darburu) Harburuneko ondokoarekin (Marie Harbururen aita, itsasgizona, 1729ko ekainaren 4an zendu zen).

Ezkontza-agirian bi ezkontideen sinadurak ageri dira. Bertzalde, lekukoen artean ageri dira, besteak beste, Michel Claret merkataria eta Marsans Harismendy. Ezkontza, beraz, ez zen jende xumeen ezkontza, handikien ezkontza baizik. Bertzalde, seme-alaben bataioetan ere maiz agertzen dira ontzi-kapitainak eta maila sozioekonomiko handiko jendeak.

Aipatutako Pierre Duhalde (edo Betry Duhalde) ontzi-kapitaina zelarik zendu zen 1745eko urriaren 6an anglesek haren kortsu-ontzia harrapatu ondoren, Donibane Lohizuneko etxean, 38 urte inguru zituelarik.

Marie Darburu igorlea 1758ko urriaren 1ean zendu zen.

Bikotearen seme-alaben artean:

- Marie Stephane (1732-08-02), gutunean aipatua, *estebenic gorainxi mila*,
- Marie 1733 edo 1734an sortua eta 1740an Maria ahizparen amabitxia (orduan ez zekien idazten),
- Bi Jeanne (1735-06-23 eta 1736-08-27); dudarik gabe horietako bat gutunean aipatu Ganabra, *ganisec eta ganabrac jcatu diton disputa ganabrac aitu dubela esconxen haisela*,
- Jean, 1738ko urriaren 22an sortua, (data berean sortu zen Joachin anaia) eta gutunean zehar maiz aipatua: *badaqun ganis exerat nola etoricen sarpan borsesequin - ganisona ganxunan corxura eta anglesec harturic - senac gasoa etori baixen ones - orai beris gan sijaitan bajonatic badin partitu dela hogoy eta sorsiegun*,

- Antoine, 1739ko azaroaren 2an sortua,
- Marie, 1740ko azaroaren 10ean sortua,
- Jeanperitz, 1742ko buruilarren 19an sortua, bataioko amabitxia Maria ahizpa, hartzailea, izan zelarik,
- Dominique, 1744ko urriaren 13an sortua eta gutunean aipatua, *ene haur maitea dominica comentuban esquibas cuxaturik exerat etori sijaetanen - ene haur maitea dominjca abijatu sijaitan harcere gan behar dubela corsura.*

Harrigarria da alaba Maria, hartzailea, zein gazterik (20 urte inguru zituen) joan zen Louisbourgera; iduriz neskato gisa zen, *ches Monsieur de Laborde Trezorier Du roy Louizbourq.*: *Ene haur maitea badin hilhunen hogoy sejean exetit partitu hinxela hirur urte egundano.*

Harrigarria ere Dominique semea (gutunean, *dominica*) hamabi urte zituelarik komentuan egotea eta hamahiru urte egin gabe kortsura joatekotan egotea.

Gorainxi osaba sastiluri; Pierre Duhalde getariarra eta Goanna Duhalde (Jean Castillou-ren emaztea, ikus 15. gutuna) anai-arrebak ziren. Hain zuzen, 1734ko buruilarren 19an Donibanen egin zen bataioan, gurasoak ziren Jean Castillou eta Goana Duhalde, sortuberria Marie, eta amabitxia *Marie de Harburu dame jeune de Harbururenea de Saint Jean de Luxz qui ont cy signé.*

Eta nic eman dinat bace jeaincoas landan ni ama naisela, alargundurik zen 1745. urteaz geroz.

Mari Darburu igorleak eta Marie Duhalde hartzaileak bazekiten idazten; 1744ko urriaren 13ko Dominique anaiaren bataioan, amabitxi gisa, ageri da honen sinadura.

2.4.2. **34. gutuna (1757-03-21): Tereçha Labadie igorleak Joanis Dupuy semeari**

La present soit rendu a joanis dupuj mattalot a louis bourqe laregi çuben lijhenequori emastiac goraingçi

Donibanen martçhoaren 21inan egiñgña 1757

Ene seme maitia jscribatçen dausçicut bi lero hauc çuri ene eta familla gusijaren ossasuna marqatçeco ossasuna dugu jainquari esqer desiratçen nuqe çuria hala balixs ene bijoxs gusijas badaçisu ene estatuba çein pobreaden eta ene ahalac çein

çhumiac diren ungi mortifikatuba gelditçen nais segurçi çuri ene anudijuaren marqa egori nahija egortçen dautçudan baingno nobleqijago egortçen dautçut beras ahal dagidana ustariçhen semiareqin çapote bat eta athora bat çhurija eta çhano bat qopotiac horadura gorijadu esin hedatu nais gehijago egortçerat martchoaren 9an eresibitu dut çuq lehenbisi egin çinduben letra eta bigarena estut jsatu salutatçen çaituste çure bi arebe eta osaba çhopitec eta matanta gusijec eta gaiñgñeraco ahaide gusijec eranen dijosu çure qusiñgña bernat dupujri amac eta arebac goraintçj ossasun dutela gaingneraquan gomendatçen dautçut orhoit çaitesen bethi jainquas eta bisi çaitesen jainquaren beldurtasunian esen jainquari dataijoanc jainquabain atçematen du bere contcolasijone gusijac eta jainco handijac estijotça haquari faltatçen bere grasija eta benedisijone seindubac jsan çaitte beras bethi jainquas orhoituba eta gero çure ama gaçhuac duben desira çure jqustequos othoisten çaitut jsan desaçun amarençat behar dusun atentçijoni eta amaren sthisfatceco duçun borondatia ahal dagiçun besain labursqi çure batistijo seinduba hartu duçun leqhurat eretiratçeco çure amari sathisfasiijone ematerat jainquaren grasijareqin batian gomendijo huntan usten çaitut esparantcan sathisfasiijone emanen dautasula cure çerbitcari gelditçen nais cure ama tereçha labadija

Ferreol Pouy (Dupuy, Dupouy) eta Marie (= Tereçha) Labadie 1735eko azaroaren 23an ezkondu ziren Donibane Lohizunen. Ezkontzan ez senargaiak ez emaztegaiak ez dute sinatzen, idazten ez dakitelako.

Ferreol Dupuy eta 18. gutuneko Pierre Dupuy (Maria Lamarqueren senarra) anaiak ziren.

Bataioetan zehar izen-deiturak zombait gisatara agertzen dira: Ferreol eta Philippe; Pouy, Puy, Dupoy, Dupouy, Dupuy - Marie, Therese, Terecha; Labady, Labadie, Dabadie, Labadija. Laborari familia, etxetiar gisa, Donibaneko hainbat etxaldetan egon zen, besteak beste, Ametzaga, Koiorenea eta Betritxorenean.

Joanis Dupuy hartzailea 1738ko buruilaren 18an sortu zen.

Eranen dijosu çure qusiñgña bernat dupujri; 18. gutunaren hartzaileaz ari da hemen. Hain zuzen Bernaten aita eta Joanisena anaiak ziren.

Dupuy-Labadie familiak ukan zuen ere beste seme bat, Pierre, 1743ko maiatzaren 20an sortua, baina urtea gabe zendua.

Salutatçen çaituste çure bi arebe eta osaba çhopitec. Hain zuzen familian sortu ziren Marie (1737-03-18), Marie Marguerite (1740-04-27), Marie (1741-11-07) eta Marie (1745-07-31).

Teresa (edo Marie) Labadie igorleak ez zekien idazten.

2.4.3. **37. gutuna (1757-03-22): Gana Haurra Fumat igorleak Adrien Salla semeari**

Oharra: liburuan, izenburuan, igorlea: “Gana Haurra de Fumat”; “hartzailea: Adrien Salla”. Ene ustez: Gana Haurra Fumaten senarra eta seme-alabak beti Sales deituraz agertzen dira.

La presente lettre soit Rendüe a Monsier adrien de salla marini et presentement a Louisbourq

Donibanen marz 22an 1757

Nere seme maitia presenteco ocasionias baliatuba jsan nadintzat moment bat sury by Lerro hauquietan Gure ossasuna onas partalier eguiteco deliberacionia desiratcen nuque suria presentecoan Gauça berian Causi baleça eranen dautçut nola erecibitu Guinduben Letra de Chanjaren diruba eta deliberacionetan Gare diru hura berry baten Gagnian emateco, eta esin au sartatu Gare sury deusere egortçerat sergatic pena handia dela jdouritçen sait horat salboric ethortcia, asa sure serbitcary Guelditcen nais sure ama fidela Ganahaura de fumat Aitac eta familla Guciac milla Goraintcy dautcu sure adisquide guciec ere bay, adrien angueletarandela adituric milla doloretan gare jaincoary othoitz eguinendiogu salboric ossasunan jdouc saicätela

Martin Sales eta Joanna (= Gana Haurra) Fumat 1723ko urtarrilaren 26an ezkondu ziren Donibane Lohizunen. Biak ziren laborari etxetiarren familiakoak. Ezkontza-agirian aipatzen da ez zekitela idazten, *lesquels interpellés avec l'Epoux et l'Epouse de signer ont déclaré ne saçvoir.*

Familian sortu ziren bi haur Donibanen: Pierre (1726ko apirilaren 28koa, Balkoineko etxetiarrak zirelarik) eta Adrien, hartzailea (1731ko abenduaren 31koa, familia Ametzagan etxetiar gisa); eta beste bat Urruñan (1734-05-18), Bixargorrireneko etxetiarrak zirelarik.

Gana Haurra (Jeanne) Fumat igorleak ez zekien idazten.

2.4.4. **41. gutuna (1757-03-24): Machume Bastereche igorleak Esteben Lafontaine semeari**

La Presante soit rendue A Esteben Lafontaine fils de St. Jean de Luz a Louis Bourg

A Saint Jean de Luz le 24 mars 1757

Neure semé maitia

Satis fatuba jçan ondoan çuc asquén Eguin letraz Nolha sindoasen Louis bourquerat particerat occationnia favorable atcemanic Escribatcen darosquit çut Bilerro hauc cury satisfatcerat Emaiteco Neuré ossasuna Cure ahaide guciequin batian ceinac Desirat cen Bainuqué Presenteco huneq hala aurqhy Bacintça; othoisten saitut hortit lastér Jlquitcerat Eguiçu Ecén Badaquit Lechou horrec cér ondorío duben Eta nic Esdut Bertcé Errecurtçaric Baiciq curé Esperança Jaincoa othoistucodut arren Eman diesaçun hunat Ethortcéco chedia Eta Exajetaric Libraturic didan Cure Jcusteco axeguina Guelditcenais cure amá

Machumé Bastereche

Martin Lafontaine donibandarra eta Marie (edo Machume edo Marichume) Bastres (liburuan Bastereche) Senpere Etxeberrittoko alaba, Donibanen ezkondu ziren 1727ko urtarrilaren 21ean. Ezkontza-agirian Martin Lafontaineren sinadura agertzen da (senarraren aita ere aski eskolatua zen, *chirurgien* gisa aipatua). Lekukoez ari, apaizak dio *et non les autres avec l'epouse qui ont déclaré ne scavoir*.

Etienne (Estebe) semea 1727ko azaroaren 1ean sortu zen.

Familian sortu zen ere Gracia (1731-07-18), baina laster zendu zen (1732-09-02). Aita, Martin, laster hil zen; haren aldeko hileta-elizkizuna 1732ko otsailaren 22an gertatu zen. Agirian aipatua da: *marinier ... noyé au figuier*.

Eta nic Esdut Bertcé Errecurtçaric Baiciq cure Esperança. Machume Bastres alargunaren sostengu bakarra Louisbourgeko semea zen. 1732ko otsailaren 22az geroz, *dans la maison de feu morroin Hiribarren* bizi zen etxetiar gisa.

46. gutunean ere Esteben Lafontaine aipatua da.

Marichume Bastres igorleak ez zekien idazten.

2.4.5. **45. gutuna (1757-03-26): Estonta Durquiet igorleak Martin Durquiet anaiari**

A Monsieur Monsieur martin durquie Durquiet A Louis burq marchoarean 26an donibanen Eguina Ene anaja maitea

iscribatcen dausquitçut bi Lerro hauc curi gure osasunaren marcatceco ceinetan hanits on baita jaincoari esquerrac desiratcen nuque çuria hala balits hanits pena sofritu dut Çuc amari Causatu dioçun changrinas Çure eta ene ganic

esdu mereci changrinic içatea exenplu harçaçu eta icus açu nola jaincoac Cuc haren aldera iduqui duçun Conduita bera çure aldera iduqui duen othoisten çaitut beras horiec guciac ahanciric jaincoas orroitcea eta amari eta guri çure icusteco atceguina laster ematea ecen ama gaichoa çure ikus minac beldur nais mundutic eraman deçan esdu cutasco aiphamenic eta suspiraric baicen eta othoy haren amudiori ihardets dioçaçu anaja ganistoc gorainci gure burasoa uste dut haren aldetic hanits icanen den consolatua ecen halaco manerac ditu guelditcen nais çure cerbitçari çure arrega estonta durquiet

Martin Durquiet, Ziburu Portolononeko nagusia, 1728ko urtarrilaren 14an ezkondu zen Donibane Lohizunen Marie Etchebehererekin; ez senargaiak ez emaztegaiak ez zekiten idazten.

Familia horretan sortu ziren, Donibane Lohizunen, beste seme-alaben artean:

- Jean 1728ko urriaren 20an sortua eta 1747an zendua (ikus beherago),
- Martin 1732ko urtarrilaren 6an sortua, hartzailea,
- Estebenie edo Estonta, 1737ko uztailearen 27an sortua, igorlea.

Beste seme-alabak izan ziren: Joannes (1730-09-26) – Estonta (1734-10-31/1734-11-10) – Marie (1739-10-22) – Joannes (1741-10-28) – Pierre (1744-08-04/1748-11-30).

Anaja ganistoc gorainci: izan zitekeen 1730ean ala 1741ean sortua, biak Joannes izenekoak.

Familia horretako Martin aita (40 urte inguru) eta Jean semea (19 urte inguru), itsasoan hil ziren (hileta-elizkizuna 1747ko otsailaren 25ean).

Ez dakit zehazki zein izan zen Martin hartzailearen *falta: hanits pena sofritu dut Çuc amari Causatu dioçun changrinas.*

Estonta igorlea 1758ko apirilaren 23an hil zen, 22 urte zituelarik. Ama, Marie Etchebehere, 1758ko abenduaren 11n zendu zen.

Itxura guzien arabera, Estonta Durquiet igorleak ez zekien idazten.

2.4.6. **46. gutuna (1757-03-28): Maria de Bordachipi igorleak Pierre Lahitun semeari**

A Monsieur Monsieur pier Lahitun den la navire leroia A louibourque
Donibanen Eguina marchoarean 28ean 1757ean

Ene ceme maitea escribacen dausquiçut bj lero curj marquacecco gure ossasunaren berjjac ossasun dugu jancoarj esquer ceinetan deçiratcen baiquinducque curia halabalix abustinnec çalutacen çaitu bere bijjox gusijas eta enbarquadanda corxurat lixardj baitaco jaunarequin baiionaco barandire denbora onaren beiradaude ene haur maitea harcasu quraiie egundaino baino borondate onetan da cure osaba cure alderat jancoac eman dauqu gero obligacijonen pagatcecoa salutacen çaitu gallantac ossasunadu bere familia gusijarequin jdurjquicen nuben brestetic cure partjadaco letra çeinetan axeguin hartuco bainuben gasina chipjtonecoa enequindago nescato lafontenj emanen diioxoxu ene eta chjptoren gorainxjjac estebenj ajjaracico diiosu jthurbouruco nescachac gastiac haren diruben beira daudecela esconçeco eguindecala fortu hainix emastequj alargun batec gástigacendu ceina baita marja hirj berj eta quriae har decala amac horj ethorj orduco emastegaiia billatuco diioela ene ceme maite othoisten çaitut hor abuçatugabe lehen bai lehen etcherat ethocias cure eguin ahalac eguixu jancoa çalborj ekarçen çaitubenian chanjatubac gare moicorenrat estut berçeric curj marçaçeco decjracen dauçut ossasuna perfet bat eta gueldjcen nais cure cerbjcarj çure ama fidela marja de bordachipj

Maria Bordachipi (ezkontza-agirian, Marie Martine) 1722ko agorrilaren 23an ezkondu zen Mathieu Lahiton (itsasgizona, sokagilea, *cordier*), Etxeberriko ondokoarekin. Ezkontza-agirian aipatua da senargaiak bazekiela idazten, ez, aldiz, emaztegaiak, *et non l'épouse et Martin Lahiton frère de l'époux qui, interpellés de signer ont déclaré ne scavoit le faire*.

Familia horretan sortu ziren: Martin 1723ko abenduaren 4an eta Pierre, hartzailea, 1728ko buruilararen 7an.

Marie Bordachipy, alargundurik, 1750eko otsailaren 4an ezkondu zen Augustin Gaze itsasgizonarekin: *abustinec çalutacen çaitu bere bijjox gusijas eta enbarquadanda corxurat*.

Pierre Lahiton hartzailea, Domeins Segurarekin ezkondu zen. 1750-1752 urteetan balea arrantzan ari zen, 1753-1754etan Ile Royalen arrantzan, 1756an erregearen zerbitzuan, 1761ean kortsuan. Eriturik, 1765eko abenduaren 14an hil zen Donibane Lohizunen.

Martin Lahiton, semea eta itsasgizona, ezkondu zen Donibane Lohizunen Gana Daguerrerekin 1753ko azaroaren 14an. Bikote honen alaba (Marie, 1753-10-26) legeztatua izan zen. Saint Pierre eta Mikelune uharteetan zen arrantzan 1765., 1766. eta 1767. urteetan.

Lafontenj emanen diioxoxu ene eta chjptoren gorainxijac estebenj adjjaracico diiosu jthurbouruco nescachac gastiac: Esteban Lafontaine 41. gutunaren hartzaileari buruz ari da.

Marie Bordachipy igorleak ez zekien idazten.

2.5. GETARIA

2.5.1. **13. gutuna (1757-03-02): Joanna de Salla igorleak Jean Castillou-ri. Lotura gisa aipatzen du: «auzoak»**

A Monsieur Monsieur jean Castillou m° de grabe pour monsieur Laborde a Luisbourg

A Guettary le 2 mars 1757

Ene hauco maitea Prezentequo coury adicera emaittequo Neure ossasunaren Beria eta denbora Verean coure famillarena ossasuna Dougou jaincoary esquer deciracen guindouque coubena ala jcatea Neure seme joannis gomendacen daucout oyoy coure qonpania ona Eguiteas hauco onen adisquidetacouna hunetaq hourtetan da senalle coure Esparancan gueldicen Nais Esparanca dout coure parteti q esdiocula faltatuquo halaber ene semea piarressy goraincy milla coure famillaq saloutacen saitou eta piarres hacharrenequoq Bere Biox gucias eta Naiz cure servicary joanna Desalla

Joanna (edo Jeanne)- Salla Xabadinederrareneko ondokoa (*héritière*) zen Saubat Etcheverryrekin, 1724ko otsailaren 1ean, Getarian ezkondu zelarik. Bikoteak hainbat seme-alaba ukan zituen Getarian, eta, horien artean, Pierre 1728ko urriaren 5ean eta Joannes 1736ko urriaren 28an. Senarra, itsasgizona, Martinique uhartean hil zen erregearen ontzi batean: hileta-elizkizuna Getarian egin izan zen 1748ko martxoaren 18an.

Jeanne Sallak egin gutunean dio, *Neure semea joannis gomendacen daucout eta geroago coure parteti q esdiocula faltatuquo halaber ene semea piarressy. Guziaren argigarri, erran behar da Jean Castillou, maître de grabe (edo grave) zela: bakailoa idortzeko edo gatzatzeko arduraduna.*

Gutun berean aipatua da, *eta piarres hacharrenequoq Bere Biox gucias.* Pierre Etcheverry ontzi-kapitaina zen eta Getaria Haxarreneko nagusia.

Badakit Jean Castillouk ez zekiela sinatzen (1748ko ekainaren 13ko bataioan, *le parrain a été Jean Castillou ... qui n'ont pu signer pour ne savoir écrire*). Jean Castillou itsasoan hil zen Arroxela inguruan. Haren aldeko hileta-elizkizuna Getarian egin izan zen 1758ko buruilaren 7an: *matelot de 55 ans environ mort sur mer au retour de Louisbourg.*

1751ko azaroaren 20an bataiatua izan zen Pierre Etcheverryren (Haxarreneko nagusia eta ontzi-kapitaina) eta Sabadine Perere-ren semea, Martin. Amabitxia Joanna Salla zen, *et la marraine Jeanne Salla dame de*

Sabadinederrenea qui n'a pas pu cy signer pour ne savoir Ecrire de ce faire interpellée par moy.

Goanna Duhalde eta Pierre Duhalde (ikus 20. gutuna, *gorainxi osaba sastiluri*) anai-arrebak ziren.

Haxarreena, Xuhurrarenea (Castillouren etxea) eta Xabadinederrarenea Getariako etxeak.

Ikus 15. eta 38. gutunak.

Joanna Salla igorleak eta Jean Castillou hartzaileak ez zekiten idazten.

2.5.2. **15. gutuna (1757-03-03): Joanna de Castillou igorleak, Jean Castillou (metre de grabe) aitari**

Monsieur Monsieur jean qastillou Metre de Grabe pour monsieur Laborde a Louis bourg

Getharian egina marchoareen 3 1757

Ene aita maitia hartcendut libertade Curi bi leroren Esqribatceco Eta denbora berian Curi Ene osasunaren beria aditcerat Emateqo Cinetan ona baita Eta desiratcen bainuque Curia hala jcaitia cure qonpania guciareqin batian sallutatcen caitut Ene bihotc gucias eta halaber sallutacen caituste aispá nanaq Ceinetan miariscen baita nesqato Eta domincheq eta qailantaq eta goanahauraq Eta dominiaq mila gorainci Eta areba chabadineq Eta hiribarongo ania arebeq eta baroineneq familiaq mila gorainci hachareneqo familiaq mila gorainci goanapittoa chabadineneqoq Eta bere alabaq mila gorainci Eta othoi gomendatcen darotcula haren semia joanis cure prudencias Esenplu on baten ematias bere burasoaren aldera miseria gucien erdian horeq sofritcen ditubeneq Ematen dautdatela Enepenagucia mila gorainciamaq Eta arebaq Eta gaineraqo cure hauco ahaide adisqide gucieq mila gorainci Ene aita maitia bihotces Curi Erateqo hemengo dolere Eta miseria gucieq baino gehiango affligitcenaute Cuhor gerla triste huneqin jcanaq Eta Cu jqusinahia Cureberiaq Escinjqines hilcerat goasguaciaq Ene aita maitia Egicu bethi quraie Ceruqo aitaq bethi jcaren du gure artha Eta Cure dolore guciaq ofregi ahaliq hobeqiena Cure horqo dolorieq Ematen dute Ene bihotcian penariqhandiena agerida ginqoq horla placer dubela qonplibedi bada bethi jaunaren borondatia goanden urthian Egori darosquitcut corci letra Eta Estaqit Jcátu othe ducun batere hiriartenas landan gastiati narotcun supreni escintescen nola mahitcheneqo semia Esposatuden butuneneqo alabarequin diolariq Escarotcula Eman hitciq Eta trufatu cindubela Eta senqriqeneqo premuba Ere esposatuda danielen arebareqin hauq marqatcen

darosqitcut Es nais curi hutsiq Eta damuriq Egin batere horietas Esdolora batere Ceren jnqoaq premetitcen baiqitu horiec gucia qomeni estiren gaucetan Estut presentian deus berceriq Curi cer gastia baiqiq Ere naisela gelditcen Cure Cerbitcari Cure ume naisen becalaqo miserabilia orai Eta bethi bihos Eta borondate ones Eta Escin pagatubes bethia joanna de qastillou

Jean Castillou (Bidarte Mailiareneko semea) 1726ko urtarrilaren 13an ezkondu zen Goanna Duhalde Xuhurrareneko ondokoarekin; seme-alabetan (9 bederen) badira hiru –Joanna (1726-10-08), Joanne (1728-09-08) eta Jeanne (1738-08-29)– igorle posible. Ezin jakin zein, baina itxura guzieren arabera, lehena zitekeen, gutuna egin zuelarik 30 urte zituen.

Castillou-Duhalde bikotearen Marie alabaren (Getaria, 1734-09-19) bataioan amabitxia da, *Marie de Harburu dame jeune de Harbururenea de Saint Jean de Luxz qui ont cy signé.*

Gutunean aipatzen dira Jean Castillouren zombait alaba. Aipatuak dira ere, *areba chabadineq Eta Hiribarongo ania arebeq eta baroineneq familiaq*; ezin jakin zein diren Hiribarron eta Baroinenea etxeak, menturaz Bidartekoak, Jean Castillou bera Bidarten sortua baitzen.

Hachareneq familiaq; ikus 13. gutunari buruzko iruzkina.

Goanatiptoia chabadineneqoaq Eta bere alabaq mila gorainci Eta othoi gomendatcen darotcula haren semia joanis; ikus 13. gutunari buruzko iruzkina (Goana tipitoa = Joanna Salla, joanis = Joannes Etcheverry).

Nola mahicheneq semia Esosatuden butuneneq alabareqin; 1756ko urtarrilaren 20an gertatu ezkontzaz ari da: Jean Sendide (Mahetxeneko semea) ezkondu zen Jeanne Etcheberry Butuneneko alabarekin. Laster, 1757ko urriaren 22an egin zen Getariako elizan Jean Sendideren hileta-elizkizuna: *Joannis Sendide matelot age de trente six ans, sieur de Boutounenea et Martinhandiarena decédé Dans les prisons de Plimout en Angleterre le 27 septembre dernier suivant les lettres.*

Senqrineq premuba Ere esposatuda danielen arebarequin; 1756ko otsailaren 4an gertatu ezkontzaz ari da: Joannis Bardoix (Senkrineneko ondokoa) ezkondu zen Jeanne Lasserrerekin.

Eta goanahauraq Eta dominiaq mila gorainci; Dominique 1746ko ekainaren 4an sortu zen. Hamasei urte zituen hil zelarik, 1763ko martxoaren 7ko hileta-elizkizunean aipatua zen bezala, *les honneurs funebres De Monju ou*

Dominique Castillou fils de Chouhourrenea de cette paroisse, Matelos agé D'Environ 17 ans, qui deceda à L'hospital de porchester.

Ikus 13. eta 38. gutunak.

«joanna de qastillou» igorleak sinatzen du gutuna. Sinadura berbera ageri da 1757ko apirilaren 13ko bataio-agiri batean, *et la marraine jeanne Castillou heritière de Chouhourrenea qui a cy signé.*

Jean Castillou hartzaileak ez zekien idazten.

2.5.3. **18. gutuna (1757-03-10): Maria de Lamarq igorleak, Bernat de Lupoy semeari**

Lapresente lettre soite reandue a Bernat de Lupoy çentiqa a Louisbourg Louis (bourg) fait aguethary, ce 10 Marz 1757

Enne seme maitea gastiaren dauxut milla gorainxy Estut Erreçibitu çureganiq aurten Es Letraiq Es çolament gorainxibat jçatu ditut 2 tt ahex Bordaganiq chanpeletaço Eta Egorxen dausquixut çanpelaq çançingorrieneço jaunarequin gueldixen nais cure ama allargun gaçhoa çure çerbitçary mariade Lamarq

Gutunean Lamarq eta Lupoy deiturak ageri dira. Egiatzkoak: Lamarque eta Dupuy (Dupouy).

Pierre Dupuy (Dupouy, Dupuy) 1729ko urtarrilaren 18an ezkondu zen Donibane Lohizunen Marie Lamarquerekin. Ezkontza-agirian agertzen denez, biak ziren etxetiar familiakoak eta ez zekiten idazten, *lesquels n'ont point signé pour ne le savoir.* Donibanen sortu ziren seme-alaba guziak eta horien artean Bernat (Bernard) Dupoy (1732-01-07), *fils des bordiers de St. Joseph.*

Pierre Dupuy, 34. gutunean (Donibane Lohizune) aipatzen den Ferreol Dupuy-ren (Teresa Labadie-ren senarra) anaia zen: *eranen dijosu çure quisingña bernat dupujri.*

St. Josephen ondotik Garsin izeneko Akotzeko etxean egon ziren etxetiar gisa 1735ean eta 1740an. Akotzeko jendeek maiz egiten zituzten bataioak eta ezkontzak Getarian. Menturaz Akotzen bizi zen Maria Lamarque, eta Getariatik igorri zuen gutuna.

Donibanen egin zuten Lamarque-Dupuy bikotearen seme Josephen hileta elizkizuna (1732-10-08): *marinier, fils du bordier de St. Joseph.*

Eta Egorxen dausquixut çhanpelaq çançingorrieneqo jaunarequin Zanzingorrireneko (Getariako etxea) nagusia Pierre Etchepare zen.

Pierre Dupuyren heriotzaren berri 1750eko maiatzaren 14ko ehorzketa-agiriak ematen du (48 urte ingurukoa zen eta laboraria): *gueldixen nais cure ama allargun gaçhoa.*

Marie Lamarque igorleak ez zekien idazten.

2.5.4. **33. gutuna (1757-03-20): Betry Daguerre igorleak Martincho Daguerre anaiari**

Oharra: liburuan, testuan: 33.2r (28. lerroan): A bertsioan, *Castilluri*; B bertsioan, *Zastiluri*. Ene ustez: Castillou Jean (getariarra eta 13., 15. eta 38. gutunen hartzailea).

a Monsieur Monsieur Le fevre Belle fille Consul de france a Pavo pres bonnaventure pour La remitte a Martincho Daguerre marinier faisant Lapeche de la morue En terreneuve a Percibiack a Pavo

fait a guethary le 20 mars 1757an

Enne annaia maitia Escribatcen darosquicut bi Lero hauq Curi neure ossasunaren beria adicerat Emaitequo ossasunadut jainquoari Escer Ceinetan desiratcen bainuque Cure hala balis Cure Compainiarequin baitean gorainci gastiatcen darocut hailaber aitaq Eta amaq Eta domindinaq eta gurehaureq Emastia bederaci Jlabete huntan Eri dut Eritasun serios batequin semebat jcatu dugu hura unidetan Emanadugu 74 10s pagacen dugula Eran darosquicut heimengo beriaq Nola Esten untchiriq hourat heldu hautaquo jende gucia Corsurait ganci niere Corsurait nindoan Lotinent Eta Monsieur Detçheverri ondoquo hamalau pecetaquo Corsusale baitean Monsieur harismendirequin particequo prest guinen hemendiq lau jlabeteren buruquo uste dut jcanen direla 40 Corsusale Canpoan Eranendarocut Cure Letra sainderiq nola Esten niondiq Ethorri Es Ethorcequo apariancariq Ere Eta Estaquigu nori adreca Cergatiq espaitauqucu jaun haren jceniq gastiatu Etaneure jdurian hoube Cinduque Cegoreq jaun haren atçamatea Eta denbora berian tresorerait Letra dasainden tirace Luceago jcaniq Ere Lehen ere Escribatu darocut Monsieur Daguerrerequin Letrabait hartanbarna nola tudan gure Letra dasaindequo sopra baçubeq Monsieur Felefeilenaq 142 tt 10s justuban gantiquox guri eguin behar lauquegu Cerbeites on Cergatiq asco galdu baitugu guq hourien ondoan berarein gainerat usten dut niq asco urax Eguin dut Eta othois Eguiten darocut niere hourietas desquargacequox Çu hourequin antolacias hour Etaniq heimen emanen diosquatet Cure Etchequori suma houri bera nola Ere gastiatcen baitucu Eta hala houren beraren Escuquo senalearequin Cegoreq

jcusiquo ducu nola Eguin neure gorainciaq Emaren diosqucu familia guciari Eta jaun sapadori eta duqeren familia guciari Eta seinaren semeari Eta denbora berean Mosieur lefeifeili Escribatcen diot Egitequo horas gorainci Castiluri familiaq ossasunadubela hailaber despaldari eta Chanini Eta troubari Eta neure jlobari Eta pumaderi Eta miselli funsean gucier i piales piter tiro baiteq Eremandu Corsuban mastrucen bera cure familiaq ossasuna du jainquoari Escer Cure Esposaq salutacen caitu hailaber amaguinarebaq Eta Cure haureq Eta katuruq et Detcheveriq Estut presentean Curi Cer gastia beiciq gueldicen naicela Cure anai fidela

Betry Daguerre

Goannis Daguerre itsasgizona eta Domins Miquelau senar-emazteak Eskosemereneko etxetiarrak ziren Martin (1719-11-09) eta Betry (1721-11-27) semeak sortu zirelarik. Ondotik Daguerre-Miquelau bikotea etxe beraren jaun-andere gisa ageri dira.

Goannis Daguerre eta Domins Miquelau bizirik dira 1757an: *gorainci gastiatcen darocut hailaber aitaq Eta amaq Eta domindinaq* (Betry Daguerre-ren emaztea).

Emastia bederaci Jlabete huntan Eri dut Eritasun serius batequin semebait jcatu dugu hura unidetan Emanadugu: Betry Daguerre 1747ko urtarrilaren 31n ezkondu zen Domindiña (gutunean aipatua) Daguerrekin. Seme-alaben artean, Jean sortu zen 1756ko agorrilaren 14an.

Niere Corsurat nindoan Lotinent Lau jlabeteren buruquo uste dut jcaren direla 40 Corsusale Canpoan. A. Lassusen arabera, Betry Daguerre 1756an *officier marin* zen eta ondotik kapitaina. Betry Daguerre Eskosemerenea etxeko nagusi gisa aipatua da 1740tik goiti.

Martincho Daguerre Bidarten ezkondu zen -1745eko otsailaren 8an, ez da aipatzen idazten dakienik- Jeanne Sala Korkeneko (Krokerenea?) ondokoarekin: *çure Esposaq salutacen caitu hailaber amaguinarebaq Eta Cure haurreq*. Laster hil zen Martincho Daguerre. Hain zuzen haren alargun Jeanne Salak, Miguel Garrin notarioaren aitzinean egin agiri batean (3E9623, 404-409 or.), aipatzen du senarra *s'étant embarqué de la ville de Bayonne en l'année 1755 pour les Isles de paveau et Quebecq pour y faire son commerce - qu'il estoit décédé à Montreal vers le mois de Septembre de 1757 laissant des biens*.

Betry Daguerre igorlearen sinadura gutunean eta beste dokumentuetan (ezkontza-agiria: *qui ont cy signé avec l'époux*) berdin-berdina da.

2.5.5. **35. gutuna (1757-03-22): Catharine Desclaus igorleak Martin de Heuty (Marilatxeneko nagusia) semeari**

Lapresente Lettre soite Reandue a Martin de heuty sieur de mariltçhenea
apresente Reste a Louisbourq de Louisbourq

fait aguethary ce 22 marz 1757

Enne seme Maitea Estut faltatunay jçatu presenteqo oqasione huntan çury
By Lero esqribatu gabe Eta Cury Ene ossasuren Beria gastiatu gabe çeinetan Baita
ona jainqoary Esquer desiraxen nuque çurea halla Balix Çure conpaniarequin
Batean Enne seme Maitea sallutaxen Çaitut Bihox Çamur Batequin jainqo
handiaren partes othois othoisten Çaitut Ethor çaquisquiq Etçherat Estut vrrieriq
Eta es çilariq galdexen niq Çubaiçiq çhutiq nagollariq hiraxen hary nais cu
jqusinai çu çare Enne Erreçurxagusia othoisten Çaitut Esnaçaçula aqabaras

Estut presentean Çury Çer gastia Baiçiq naicella Cure Cerbixari Cure ama
orai Eta Bethiere qatarine desclaus

Catherine Desclaus, Marilatxeneko ondokoa, 1733ko otsailaren 15ean
ezkondu zen Bertrand Heuty itsasgizonarekin. Ezkontza-agirian aipatzen da
soilik lekuko batek, *Munjou de Cendide*-k, sinatu zuela, beste guziek ez zekitela
idazten.

Marilatxenean sortu ziren, besteak beste:

- Martin (1733-12-07)
- Salvat (1735-10-18)
- Martin eta Marie (1738-09-19)
- Martin eta Catherine (1744-10-23)
- Marie (1746-02-09)

Bertrand Heuty Martinique uhartean zendu zen 1748ko urtarrilaren 9an,
erregearen zerbitzuan.

Saubat Heuty semea, 1735eko urriaren 18an sortua, 1756ko uztailaren
4an hil zen Plymoutheko ospitalean; hala agertzen da hileta-elizkizunaren
agirian (1756-08-16). Marilatxeneko semea zela aipatzen da eta 21 urtekoa.

Çu çare Enne Erreçurxagusia othoisten Çaitut Esnaçaçula aqabaras; 1748an
zendu zen senarra.

Martin Heuty, 1733ko abenduaren 7an sortua (A. Lassusen arabera,
officier marinier, eta Marilatxeneko nagusia), Jeanne Apprendisteguy

senpertarrarekin ezkondu zelarik, 1760ko agorrilaren 19an, ez zekien idazten: emaztegaiak ere ez. Heuty-Apprendisteguy bikotearen Catherine alabaren bataio-agirian (1762-06-19), aipatua da Catherine Desclaus amabitxiak ez zekiela idazten, *la marraine Catarine desclaus dame ansiene de Marilatchenea qui n'ont scu signer de ce faire requis par moy*.

Martin Heuty 1751n Louisbourgera joan zen. 1759an kortsuan, 1762an erregeren zerbitzuan, 1765etik-1771 arte arrantzan Ternuan eta Saint Pierre eta Mikelun uhartetan, 1773an erregeren zerbitzuan eta 1784an arrantzan Saint Pierren ibili zen.

Catherine Desclaus igorleak eta Martin Heuty hartzaileak ez zekiten idazten.

2.5.6. **38. gutuna (1757-03-23): Joanna Duhalde igorleak Janne Castillou senarrari**

A Monsieur Monsieur Janne Castillou metre de Grabe pour Monsieur Laborde a Louis bourq

Getharian Egina marschoaren 23 1757

Ene Espos maitia Estut faltatu nahi jcan presentego oqhasione hau Curi adicerat Eman gabe ene Estatubaren beria Ceinetan presentian hanis miserable baiqare ni Eta alaba goanahaura chumia baina desiratcen nuque handisqi Letra hunec Curia disposicione hobian qausitcia sallutatcen Caitut ene bihotc gucias Eta halaber salutatcen Caituste Cure haur gucieq Eta partikularqi alaba Catharenaq salutatcen Caituste Eta Cure hauco ahaideadisqide gucieq mila gorainci hachareneqo jauna partituda qorsurat masans harismendirequin Egun Erecebitudugu Cure letra francian gaindi letra sangia barnian bainan aurthen Estugu jçatu Cure letrariq batere bia baiqiq Eta heq letra sanjaq barnian Eta guq Egiten ditugu qomoditate gucietan letraq marqatcen darotacu Estucula qanigonequin jçatu Letrariq baina egin gintuben Ceinetan aispá nana miaristcen baitugu nesqato bodrireqin Eta bodriri Eman gindiocan letraq Eta nola horaqoan presabat egin baitcuten hartan bodri Ethoricen Eta eran Caroqun jtsasoan jtsasorat Echatu citustela letraq anglesen beldures Eta orai ere horat particerat doha tuliquneqin jçatu ditugu qutcha chumia Eta qartbat Et baqalu paqabat Eta muchil informatu dugu Eja Ceren Esqasa ducun Eta eran daroqu Estucula deusen Escasiq jcatecos capata parebat egorceqo mehiac bainan Egorcen ditugu Curetcat tiliqunequin baril bat nafar eta capata parebat Eta Larmeteqin haren hardeareqin athora bat Eta capata parebat jnqoaq dicula Erecibitceqo gracia Cure jjusteco desira handian gare guciaq aflightubaq handisqi qanigonen uncian marqatu narotcun gure seme maitiaren doloria eta migel harismendi q gastiatu caroqun

granbitatiq nola miliq Eman Ciotcan anaiari Eta belatcen semeari berehun Eta hirur hogoi libera bainan gure semiaq Esomen du Erecibitu batere haren qonpaniatiq Ethori diren giconeq Eran daroqute Eta hor hartubaq ditubelaqoan paga Estecacun gastiacten darotcugu gelditcen nais cure Cerbitcari Cure Espos fidela orai Eta bethi Cure aldera bihotc ones bethia

Joana duhalde

Oharra: liburuan agertzen den gutunaren transkripzioan bada oker bat: “Eta nola Choraqoan presabat egin baitcuten “-en ordainetan hau da zuzena: “Eta nola horaqoan presabat egin baitcuten”. Ondorioz, liburuaren Izendegian “Xorako oik.” ez da zuzena.

Jean Castillou (sortzez Bidartekoa) eta Joanna Duhalde (Getaria Xuhurrareneko ondokoa) Getarian ezkondu ziren 1726ko urtarrilaren 13an.

Joanna Duhalderen aita Monju Duhalde zen, ontzi-kapitaina (ikus 1731ko apirilaren 18ko bataio-agiria). Joanna Duhalde 1763ko agorrilaren 30ean zendu zen.

Familian anitz haur sortu ziren (9 bederen).

Marqatu narotcun gure seme maitiaren doloria: Monjou Castillou (Getaria, 1732-09-28) itsasgizonaren heriotzaz ari da, hain zuzen 1756ko maiatzaren 26an zendu baitzen Plymoutheko ospitalean, erregearen zerbitzuan ari zelarik, ontzia anglesek harturik.

1759ko urriaren 10ean Michel Garrin notarioaren aitzinean egin agiri baten bidez (3E 9623, 617. or.) badakit Joanna Duhalde igorleak eta Catherine Gelos 36a eta 36b. gutunen hartzaileak, biak alargunduak, kitatu zituztela lau urte lehenago 52 liberako mailegu baten ondorioak. Agiria bi lekukoan aitzinean egina izan zen. Bururatzean notarioak dio, *ce que n’a fait lad. Duhalde pour ne sçavoir Ecrire ny le second temoin.*

Ikus 13. eta 15. gutunak.

Gutun honen egilea, menturaz, Joana Castillou (Castillou-Duhalde bikotearen alaba) da, 15. gutunaren egilea.

Joanna Duhalde igorleak eta Jean Castillou hartzaileak ez zekiten idazten.

2.5.7. **42. gutuna (1757-03-26): Sabadine de Clauset igorleak Martin Darango semeari**

Lapresente lettre soite Reandeue aMartin de Darango sieur de pirraenea
apresente Reste aLouisbourg De Louisbourg

fait aguethary ce 26 Marz 1757

Enne seme maitea Estut faltatu nahy jcatu prsenteqo oqasione huntan çury Enne Eta Enne familla gusiaren ossasuna Beria gastiatu gabe ossasunadugu jaunqoary Esquer desiratxen guindue Çurea halla balix Çure qonpaniarequin batean sallutaxen caitugu familla gusiaq generalean gaineraqo cure aide adisquide gusieq Milla gorainxy Enne seme maitea çure jcusteço desira handibat dut Eta othoisten çaitut jçan sasü Cuq ere gauça Bera Estut presentean Cury Cer gastia Baiçiq naicella cure cerbitxari cure ama fidella Eta Leialla Sabadine Clauset

Sabadine Clauset Piarreneko (Pirrarena = Alaperea) ondokoa zelarik, 1724ko urtarrilaren 18an ezkondu zen Bidarten sortua zen Bernard (= Jean) Darangorekin.

Martin Darango (1725eko azaroaren 14an sortua) premua zen, eta Piarreneko nagusi gisa aipatua gutunaren azalean.

Bernard Darango, Sabadine Clauseten senarra, laster hil zen Getarian (1758-07-09), 60 urte zituelarik; itsasgizona zela, *matelot*, aipatzen da agirian.

Sabadine Clauset-en anaia, Bertrand Clauset, 1750eko buruilaren 9ko hileta-elizkizunaren arabera Louisbourgen hil zen 40 urte inguru zituelarik. Berria ilobak (iduriz, Martin Arango) eman zuen gutun baten bidez, «*selon les nouvelles scures Ecrites par son neveu*».

Martin Arango hartzailea 1757ko abenduaren 16an hil zen, gosez eta hotzez, *de faim et de froid*, ontzia hondoratu ondoren, salbatu eta bost egun berantago. Ehorzketa-zerbitzua 1758ko urriaren 21ean egin zen Getarian.

1760ko otsailaren 8ko Detcherry notarioaren agiri batean (3E9836, 141. or.) Saubadine Clauset (gutunaren igorlea) eta Jeanne Aprendestiguy (Martin Arango hartzailearen alarguna) agertzen dira; biak alargunduak dira eta Jean Damestoy jaunari dioten zor baten aitortpena egiten dute agirian. Damestoy jaunak eta bi lekukoek sinatzen dute agiria, baina ez bi

alargunek: *et non les autres parties qui ont déclaré ne le savoir, interpellées de ce faire par moi.*

Ikus 43. gutuna.

Sabadine de Clauset igorleak ez zekien idazten: 1755eko buruilarren 3ko bataio-agirian, *la marraine Sabine Clauset dame ancienne ... ce que n'a fait la marraine pour ne savoir, de ce faire interpellé par moy.*

Martin Arango hartzaileak bazekien idazten.

2.5.8. **43. gutuna (1757-03-26): Joana Aprendisdeguy igorleak Martin Darango (Pirrareneko nagusia) senarrari**

“Lapresente Lettre soit Reandeu a Martin de darango sieure de pirraenea apresente Reste a Louisbourq De Louisbourq

fait aguethary ce 26 Marz 1757

Enne Espos Bihox Maitea

Estut faltatu nahy jçatu presenteqo oqasione hau Çuri Enne eta famillaren ossassuna Beria çury aditçerat Eman gabe çeinetan Baita onna jainqoary Esquer Desiratçen Baiquindue Çurea halla Balix cure conpaniarequin Batean Enne Espos Bihox Maitea sallutaxen caitut Bihox samur Batequin semeaq Eta aitaq Eta amaç anaia arrebac gauça Bera maulioneqo Eta mutçhurdineneqo famillaq gauça Bera Enne Espos Bihox Maitea segurqui Esnuben Vste aurtengo huntan Esçintudalla jçusiçqo Erran nahy gure jainqoary Esçixaiolla comeny jçusiada gure gastetasuna hulla pasatu Behar dugulla jainqoac digulla grasia çaharxea haren glorian Eremaiteq Enne Espos Bihox Maitea horay artean Egotu nais segurquy hunguy hacoranduriq Eta Bisquitartean satifatu nais Esçarella heldu Enne Espos bihox maitea jainqoac nahy badu Es dieçaçudala guehiago hunelaco Bihox miniq Eman othoisten Caitut Eguiada partitu Bacine patraqanequin Eta horay angueletan dire halleriqere jçusiada Escarella Errisqu hartan Enne Espos Maitea hanix changrinetan nais presentean nahy nauçuque çerbeit Egorry Eta Bisquitartean nihorq Estautaut Emaiten conselluriq Emaiten jrisqu handibat della Enne Espos Maitea Esparanxadut gure jainqoac Emaren dausquixula çeinbeit jspirasione on hunat Lehenbiciqo qomoditatean Ethorçeçeqo segurquy ninere partetiçqo hunguy adresatuçqo naxaio Hothoy conply decalla çer Ere baixaio comeny Eta hura

Enne Espos Maitea Estut presentean Çury çer gastia alefin Cure jjusteqo changrines Vrxen hary naicella Çure Çerbixary çure Espos fidela horay eta Bethiere jonnade Apendisteguy

Gutunean Apendisdeguy ageri da, baina deitura, dokumentazio guzian, beti Apendisteguy da.

Martin Arango, Pirrareneko ondokoa, eta Joanna Apendisteguy, Goietxea eta Zendidea etxeetako alaba, Getarian ezkondu ziren 1751ko otsailaren 3an. Senargaiak sinatzen du, emaztegaiak ez du sinatzen: *en presence de leurs parents et d'un nombre des temoins Dont une partie a cy signé avec l'epoux.*

Familiaren seme-alabak agertzen dira: Marie, 1752ko azaroaren 30ean sortua, eta Michel, 1755eko buruilararen 3an sortua.

Maulioneqo Eta mutçhurdineneqo familiaq gauça Bera: Alaperea (edo Pirrarena) etxeko anderea Joana Apendisteguy da; Maulioreneko jauna Jean Apendisteguy da; Mutxurdineneko etxeko anderea Jeanne Apendisteguy da; hirurak anai-arrebak eta Zendideko nagusi zaharraren (Michel Apendisteguy) seme-alabak.

Martin Arango (Getaria 1725-11-14) 1757ko abenduaren 16an hil zen; ikus 42. gutuna.

Joana Apendisteguy igorleak ez zekien idazten. Aldiz, Martin Arango hartzaileak bazekien idazten.

2.6. HENDAIA

2.6.1. **2. gutuna (1757-02-04): Marie d'Etcheverry igorleak Pierre Daguerre semeari ("Don Qoche idazlariak egina")**

A Monsieur Monsieur Pierre Daguerre A Louisburque

Ahenday 4e fevrier 1757
Ene seme maitija

Escrivacendisut Bilerro hauq surymarquacerat emateco Estatu miserable Baitan quaucicenais erresivitudut sure Lettra Ere han iqussydut sure Berrijaq Baignan Esnaibessala martineq eta huncija galdudute Berris Ere horraçu Desiradu arrequin servait icendus mariqatania assareda sure contra Estyosula Lettrabat Eguinlau hurtehuntan alababat badusu iduridubena perfeq Etorryqoda horat Baquija Eguitendenian Jduriquicen Du Emendiq harat orroitu saren Baigno obequy orroituçu sarella guissona hor Laster aberasten omendira Suc ere ?adusu gaihona hor

sure Lettra Ematen Dossuna arren conseluvaq hunguy artasu sure annaya Bessela Esagusasu deusit Egorceco dusunian horren ganat adresasu adisquide handibatdugu Etacontu horre hungui Eguignedu ganes pellobaitaco ganda Corsurat sure gorancijaq Emandijosagu banuque sury servait gastijaceco icenda Berceoqueasionebat ganessen Berririq Estugu deusit jaquiten Badusu gastijasasu apachappanaq gorrancy haren galsardy gorrijaq nontusu ganachume assareda surecontra Merrisidu sureganiq gusama Ere Bai

Marie d Eceverry
haucuquouaq gorrancy
Donqocheq Eguindu Lettrahau

Ez dugu ezer jakiterik ukan Daguerre-Etcheverry bikoteari buruz ez eta ere Pierre Daguerre semeaz.

Ez da daturik hartzailearen ofizioaren berri jakiteko ez eta ere aspalditik Louisbourgen ote zen.

2.6.2. **3. gutuna (1757-02-12): Gacina de Biscarrondo igorleak Patchiqu de Biscarrondo anaiari**

A Monsieur Monsieur patchiqu de biscarondo A Lisbpourc
endan eguina oxalen amabijan

Ene anaya maitja esribatcen dosquicut belero familia gucien partes vngui gare jainqoary esquer amaso dugu etxituba eta sure emastea ere esxituba espatuda bainan orai vnguida aura ere vnguida cuben beri hainits estucube gastigatcen nolacaiten eta es deus hainits egortcen letrabat solamente estucu eguiten esguri es emasteari penatuba gare hainits berriric gabes otoisten cuit cuhurjcatias etacure beriac gastiacias miguel etcheverriari goraintci aitac eta familia guciac eta osabas beri onac ditugu eta cubec ere aitudugu cerbait baducula hobe atxeguindut otoisten caitut letra hunen barnian egortcendut anajary et nola es homen baitcaite erealequin erendatuqo dioçu otoisten caitut erepusta eguitias lehenbico comoitatian

guelditcen nais cure cerbitcary gacina de biscarondo

3 eta 4. gutunen euskara ez du iduri «hendaiarra» denik.

Ez da Biscarrondo deiturako nehor agertzen Subernoa eta Hendaiako agirietan. Alabaina, Pierre Biscarrondo saratarra itsasoan hil zen (Sarako hileta-elizkizuna 1766ko azaroaren 14an egin zen). Bordatxarreko etxetiarraren semea zen eta 18 urtekoa. Bertzalde, A. Lassus historialariaren arabera, (*Sare*

II, 427 or.) Patchicou Biscarrondo izeneko saratar bat itsasgizona zen, *Patchicou Biscarrondo 3ème canonnier sur le Diane, capitaine Forestier. Il devait s'y embarquer en janvier 1762 pour une nouvelle croisière.* Beste daturik ez dago.

2.6.3. **4. gutuna (1757-02-12): Gacina de Biscarrondo igorleak Martin Josepe de Biscarrondo anaiari**

A Monsieur Monsieur Martin josepe de biscarondo A Lisbourc
endajan eguina oxalaren amabican

eneanaja maitia escribatcen darasquitcut bilero auc curi gureberies satisfacione emateqo ossasuna dugu bainan amaso etxituba dago aitudugu cerbait baducubela atxeguindugu saraqo guison gastebat anguelec arturic gure etchia jodu cure companiatic cuhurqui gobernacaite eta ossabas ere berri onac ditugu amaso bearretand cerbait fagore eguiocu aurten etorcaite niolere posible bada goraincy aispac ere otoisten caitut erepusta eguitias lehenenbicico comoitatian guelditcen nais cure cerbitcary errespetu handibatequin gacina biscarondo”

Ikus 3. gutuna. Beste daturik ez dugu.

2.6.4. **9. gutuna (1757-02-28): Gaçina Diyarz igorleak Joannes Hiraburu senarrari**

Oharra: liburuan, testuan, 09.2r (10. lerroan), *Mr Manesco miarritz quouaren ganat.* Ene ustez, “Izendegia”n behar luke *deit.* eta ez *hip.* Hain zuzen, Manescau gaskoi deitura aski hedatua da aspaldidanik Ipar Euskal Herrian, eta, bereziki, Miarritze inguruan.

Monsieur Monsieur Joannes hirabouru charpantie marein a Louis bourc fait a hendaye

Hendayan Eguigna otxailaren 28-1757

Ene Senar maitea

Causitçen gare ossasuna parfait Batian familia gucija non Desiratçen nuque Çuria Ere hala çaiteta Eta Contignuatxia halaber nere Bihotz gouçijaz ççatudut Çuc Egorri dautaçun Letra chanjia non marquatçen baititu berogoy Louis Çeignetan adreçatuaba Baita Mr Manesco miarritz quouaren ganat Beras ççatu nais jaun haren Baitan nola Egorri dautaçun Eta Errepusta Emandarot nola Estuben Chanje

Egortçaille horren ganic deus funsic Erreçibitu vntxiac galdu direla Batçubec Eta Bertçiac Es aguery non diren Esdarot sinatu ortaric hartuco dituçu Çure precossijoneac Ene Espos maitea Eguignen duçu hahalic hobequijena Ecen jduritçen Çait pagatçeco Borondateric jçatu Balu sinatuço çubela afin salutaçen çaituste çure Burassuec Eta anaya arrebac Eta coignatec Eta Bertçe ahaide Eta adisquide guçijec halaber milla goraintçy osassuna on bat dessiratçen dautçutela Ene Espos maitea guelditçen nais Çure cerbitçary Çure jqousteco dessira handy Batequin

Gratianne Diharce ezin jakin noiz ezkondu zen Joannes Hirabourerekin. Bikote honen berri ukan dut D'Hospital notarioaren 1754ko martxoaren 7ko agiri baten bidez (3E9895, 59. or.). Agirian Joannes senarra kanpoan dela aipatzen da, *absant sur mer en TN*; Bernatxoreneko jaun-andereak dira Joannes eta Gratianne. Gratiannek Bernard Garat itsasgizonari, *officier marin*, hektarea bat baino gutixeagoko, *de la contenance de deux arpans*, lursail bat saltzen dio.

Agiriaren azken partean aipatzen dira bi lekuko, Esteben Duhalde, *capitaine de navires*, eta Jean Duhalde, *marinier*. Biek sinatzen dute, baina ez besteek, *ce qui n'ont fait les parties pour ne sçavoir escrire*.

Itxura guzien arabera Joannes Hiraboure Hendaiako semea zen. Hiraboure-Diharce bikotearen seme bat, Joannis, Urruñan sortu zen 1749an Bernatxenea etxean. Itsasgizona izan zen, 1777an erregearen zerbitzuan, 1780an zendua, *en Amérique*. Bikote beraren beste seme bat, Martin, Urruñan eta etxe berean sortu zen 1754an. Itsasgizona, 1778an erregearen zerbitzuan zen.

Gratianne Diharce igorleak ez zekien idazten.

2.6.5. **26. gutuna (1757-03-15): Catalin Marie Berrogain igorleak Catherine Laborde, veuve de Jelos adiskideari**

Oharrak: liburuan, izenburuan, igorlea: Cathalin Marie Berrogain. Testuaren bururatzean, B bertsioan, *ene adiskide*. *Cathalin Marie Berrogain*. Ene ustez, igorlea Marie Berrogain da.

Testuan: hastapenean, *cathalina eta ene adiscidea*, bururatzean *ene adiscide cathalin marie berrogain veuve Detçheto*. Honen B bertsioa nik eman nezake: ene adiskide Cathalin. Marie Berrogain veuve Detçheto. Hartzailea, aldiz, *Catalin Laborde, Gelos-en alarguna*.

Liburuan, testuan, 26.2 r 27 lerroan, A bertsioan, *agerretaren*; B bertsioan, *Agerretaren*. Ene ustez, *agerretaren*.

Baionatik idatzia izanagatik Hendaian kokatu dut gutun hau, hendaiarra baitzen igorlea.

A mademoiselle mademoiselle catherine laborde veuve de jellos a louis bourc
abayonne 15 avril dije mars 1757

cathalina eta ene adiscidea desiratcen dut presentecoac causi çaitçan osasuna perfer batean çure familla guçiarecin, enea esta ona aspaldico demboran: çhagriñac eta persequioneac içatu tut familiarecin non hauçitan hari bainais: egjada presentean aphur osasuna piçca bat badudala suçhar langitac qitatu nau. Ene edaria da tiçana: arno batere gabe. bors illabete huntan; alaba gastia esconduda giçon prestubatecin çerbaites fagoratçen nau baita ene seme caharrenac ere, jencoac içan deçala nitas pietate, badaciçu hemen ascen içatu çinean fornitutu içan nosciqitçula botiatric escatu çinoscidanac contuan tut, luçe liteqe çehetasuna esplicatçea. liburuan diren arren, baita arançaçura guan çinean içan çintuen sosac, hala munta dute: guciec berrogoi libera eta hamairu sos. badu çembait dembora escribatu notçula. estut çure errepustaric içatu, etçaçula pensa lehenagoco contua; hemen ematen dudala eçen jacube aqerretaren ecutic içatu nituen. baita çure letra ere, ene adiscide erraten dotçut egias çorrac egintuteta bihar handitan nais. estimatuco dut pretstatçen baçiniot beçala es bada othoi falta, eçagutu duçu ene bihoxa çure ocasionetan. hala oroit çaitte ene bihar handias. jencoa laudatçen dut eta othoisten esnaçan arren abandona munduan biçi gareiño asco icus deçaqegu. cembat icusi dut. guti iguriqiric axegiñago egiñen dotaçu diruba egortçea. ecen: bacalluba jencoari. gomenda naçaçu ene othoixian etçare ahançia;

letra presentecoa ematen dotçuna, deitçenda monsieur martin larmet capitaiña, egor datçu horrecin othoisten çaitut: esparança hortan gelditçen nais çure çervitçary afflitua ene adiscide cathalin marie berrogain veuve Detçeto, salutatçendut çure familla

Jean Etcheto eta Marie Berrogain (hau Hendaian sortua) senar-emazteak Baionan bizi ziren senarra hil zelarik 1747ko urtarrilaren 2an. Heriotza-agirian aipatzen da Jean Etcheto merkataria zela, *marchand*, 60 urte zituela eta Marhum etxean zendu zela, *dans la maison de marhum quartier de Lachepaillet*.

Seme-alabak izan ziren: Marie (Hendaia, 1719), Jean (Akize, 1719-12-08), Martin (Akize, 1721-10-28), Jean Baptiste (?), Marie (Akize, 1730-07-14), Marie (Akize, 1731-12-10). Horietarik Martin eta lehen Marie, menturaz laster hilak. Akizeko agiritan eskas dira 1726ko otsailaren 5etik 1730eko otsailaren 20rainokoak.

Bataio-agirietan aipatzen da Jean Detcheto merkataria zela, eta 1719ko abenduaren 8ko bataio-agirian, *marchand d'eau de vie*. Akizeko beste bataio-agiri batean (1723-12-03), Jean Detcheto aitabitxia da eta ofizioz *faiseur d'eau de vie*.

1741eko urriaren 30ean Jean-Leon Barroilhet notarioaren aitzinean egin agiria (3E3239, 368. or.) argigarria da. Marhum etxean egina da, *dans la maison de L'héritage de Marhum appartenant à Sieur Pierre Saint Genes Bourgeois et Negociant de la Ville de Bayonne*; alde batetik, Pierre Saint Genes eta Marie Detcheto haren emaztea, eta, bertzetik, Jean Detcheto, *aussy negociant*; eta haren emaztea Marie Berrogain, *conjoints habitant aud. Bayonne*. Ezkontza-ituna sinatzen dute bi aldeek: senarrak 12.000 libera ekartzan ditu ezkontzara; emaztearen burasok Hendaia etxea, *de leur cotté D'assigner à lad. Demlle. Marie Detchetto leur fille en faveur dud. mariage la maison et jardin de Berrogainenea à eux appartenant le tout scitué au lieu de Hendaye ... dont elle est l'héritière coutumière*. Ezkontza-itunean aipatzen da gisa horretan Pierre Saint Genes bilakatzen dela, Lapurdiko ohiduren arabera, etxe horretako jauna. Etxearen balio estimatua: 1.000 libera.

1747ko agorrilaren 11n Laurent Delissalde notarioaren aitzinean egin agiri batean (3E4173, 609. or.) aipatzen da, bertzeak bertze, Etcheto/Berrogain ezkontza Hendaian egina izan zela, *par leur contrat de mariage passé au lieu de Hendaye ou ils epouserent*.

Ez da ezaguna zein etxetan bizi izan ziren Baionan, baina gauza ageria da alaba zaharrena Hendaian sortu zela 1719 inguruan eta bertze seme-alabak Akizen (1719-1731 urteetan). Iduriz, Jean Detcheto alabaren Marhum izeneko etxera joan zen hil aitzin, bertan zendu baitzen.

1747an, Marie Detcheto alaba alargunaren Marhum etxean bizi ziren Marie Berrogain ama (jada alargundua zen eta etxe hartara eramank zituen altzariak eta bertze puskak), eta 16 urteko Marie Pouponne ahizpa gaztea. Anaiak ez bide ziren bertan bizi, itsasgizonak izaki. 1747-08-11ko agirian (3E4173, 609. or.) Maria Berrogain-en inbentarioa agertzen da (530 liberako balio estimatua) eta Detcheto/Berrogain bikoteak Baionan zuen saltegi bat aipatzen ere, *ils avaient dans leur boutique à Bayonne différents liqueurs valant la somme de 600 livres*. Marie Berrogain-ek aipatzen du bazituztela 400 libera dirutan.

1747ko agorrilaren 14ko Delissalde notarioaren agirian (3E4173, 618. or.) Marie Detcheto Saint Genes-en alargunaren bi emaitza, *donnation*, aipatzen dira: amari urteko 400 liberako errenta betirako, eta Marie Poupone Detcheto, *agée d'environ seize ans*, ahizpari, 7.000 libera.

Marie Etcheto, alaba zaharrena eta 1719an Hendaian sortua, hirutan ezkondu zen Baionan:

- a) 1741eko agorrilaren 22an, Pierre Saint Genesekin, *veuf, bourgeois et negotiant de cette ville*; Pierre Saint Genes 1745eko buruilaren 14an zendu zen 72 urte zituelarik.
- b) 1747ko agorrilaren 16an, Pierre Dufau ontzi-kapitainarekin: Jean Etcheto aita hila zen, eta Marie Berrogain amak sinatzen du ezkontza-agiria, *Marie Berrogain d'Hendaye*. Ezkontzara emaztegaiak 25.000 libera ekartzen du eta senargaiak kopuru bera. Laurent Delissalde notarioaren aitzinean, 1747ko agorrilaren 14an egina izan zen ezkontza-itunaren agiria - 3E4173, 622. or.; Pierre Dufau Dominika uhartean hil zen 1748ko maiatzean.
- c) 1751ko urriaren 5ean, Pierre Laborde d'Arbrun noblearekin: Saint Severeko familia noble bateko semea zen, militarra, *capitaine au Regiment de Bourbonnois*, eta San Luis ordenako zalduna.

1747ko agorrilaren 14ko agiri batean (Laurent Delissalde, 3E4173, 622. or.), Marie Etcheto eta Pierre Dufauen ezkontza-itunean, Jean Detcheto eta Jean Baptiste Detcheto anaiak aipatuak dira, *officiers de marine ses frères*. Agiriaren azken partean diren sinaduren artean agertzen dira anaienak, *Detchetto Ainé* eta *Jean Baptiste Detchetto*.

Jean Baptiste Etcheto, ontzi-kapitaina, 1766ko maiatzaren 13an ezkondu zen, Hiriburun, Saubade Auger, Jean Auger ontzi-kapitainaren alabarekin. Senar-emaztegaiak Baionan bizi ziren.

Marie Poupine (edo Pouponne), 1731n Akizen sortua, 1756ko urtarrilaren 21ean ezkondu zen Baionan Etienne Pedesclaux donibandarrarekin, *negociant natif de Saint Jean de Luz*, eta gutunak dio: *alaba gastia eskonduda giçon prestubatecin*. Ezkontza-agirian aipatzen da emaztegaia Akizen sortua dela, *native Dacqs*. Bi ezkontideak Donostiako eliztarrak, *paroissiens*, direla, eta emaztegaiaren ama (Marie Berrogain) ere Donostian bizi zela, *la Demoiselle Contractante Demeurant dans cette ville avec sa mère depuis environ un mois*. Ezkontza honen kontratuaren arabera (Delissalde: 1756-01-20, 3E4182, 17. or.), emaztegaiak 8.000 libera ekartzen du ezkontzara eta senargaiak kopuru bera.

Etcheto-Berrogain familiaren goiti-beheiti anitz agertzen dira 1760ko agorrilaren 9ko Detcherry notarioaren agiri luzean (3E9836, 300. or.). Agiria etxe baten salketari lotua da. Etxea, *Mayour* karrikan da (oraiko Espainia

karrika), *confrontant d'un cotté à l'une des deux maisons de lad dame Elzaurdy et de l'autre à la seconde appelée Landerretche.*

Agiri horretan ematen dira ere bertze zonbait agirien kopiak, hala nola Pierre Laborde d'Arbrun jaunak emazteari egin ahalordeak: bata, Baionan Delissalde notarioaren aitzinean 1752-04-29an, eta, bertzea, Ostenden, Ryek notarioaren aitzinean 1759ko otsailaren 7an. Halaber, Zavala Donostiako notarioaren aitzinean egin espainierazko agiria, 1760ko uztailaren 28an. Azken agiri honetan, Marie Berrogain-ek Esteven Pedesclaux suhiari ahalordea ematen dio, *Yo Da. Maria Berrogain viuda de D Juan Decheto, vecina del Lugar de Hendaia en el Reyno de Francia, hallandome en esta Ciudad de San sebastian, Otorgo, doy y confiero todo mi poder.*

María Berrogain Hendaian sortu zen, bertan ezkondu zen eta lehen haurra Hendaian sortu zen 1718-1719an; Akizen (1731) eta Baionan (1741-1757 urteetan bederen) bizi izan zen. Baionan egin zuen gutuna, baina laster Hendaian zen berriro (1760). Bazukeen etxea, edo familia, Hendaian.

Catherine Laborde hartzailea 1710eko urtarrilaren 12an ezkondu zen Bidarten Joannes Gelos bidartarrarekin (ezkontza-agirian Catherinek sinatu zuen). Senarra noiz hil zen ez dakit. Catherine Laborderen anaia Jean Laborde zen; Louisbourgen kargudun handi (erregearen diruzain orokorra), ontzi-armadore, eta merkataria.

Marie Berrogain igorleak eta Catherine Laborde hartzaileak bazekiten idazten.

2.7. SARA

Oharra: Saran eskas dira 1720 ingurutik 1758 inguru arteko agiriak. Ondorioz, ezin giaztatu dira hainbat datu.

2.7.1. **5. gutuna (1757-02-14): Catalin Lalanne igorleak Esteban Gourdo senarrari**

La presente soit rendue a Esteben Gourdo marinier A Louisbourq

Ene espos maitea

Letra hau esquiribatcen darotçut çuri erraiteco errecibitu nuela çure letra 120 liberaco letra sanyarequin cenitaz pagatua içan bainaiz bercealde erranaracituz

çuc marcatcen cinarozquidan meçac. eztut berceriq çuri marcatceco, choilquy ossassuna dudala Desiratcendut nere bihotz guciaz çuc era hala Baçinu. çure semea unguida bere errespetuez seguratcen çaitu ortholopitzco andrea jincoac deithu du bereganat hilhunen hirurean sanblaz egunean andre gaztea. harburuco familiaq mila gorainçi darotçu bai eta ere çure arrebec eta coinatrec guciec ossassuna dute finean guerla hunen beldurrez deussen çuri igorcera ecin ausartatu naiz. Guelditcen naiz ene espos maitea çure ikhusteco esperançarequin çure cerbitçary humila eta obedienta

Catalin Lalanne
saran oxailaren 14an 1757 harburun egoiten naiz bethy

Esteban Gourdo 1707. urte inguruan sortua zen: Brest hiriko ospitalean hil zen (hileta-elizkizuna 1758ko urtarrilaren 4an egin zen) Louisbourgetik itzulera bidaian.

Lekuberria etxeko etxetiar, *locataires*, gisa aipatua da Gourdo-Lalanne bikotea. (Lekuberria, Xomindinenea eta Gaztainaldearen artean kokaturik egon zen etxea, 1804an jada errea bezala emana da). Bertako nagusia izan zen, urteetan, Joannes Etxeberri idazle famatua, XVIII. mende hastapenean. Lekuberriak eremu ttipia zuen etxe inguruan Lehenbizkai auzoan, eta zazpi hektarea, geroago Dotorarenborda izenez ezagutua izanen zen lekuan.

Estebanen arreba Etienneette Gourdo, (1720) Agorretan ezkondua zen Pierre Etcheverryrekin (23. gutunaren igorlearekin).

Pierre Gourdo semea, itsasgizona ere zena (1785ean, *officier marinier* gisa ezagutua), 1779an ezkondu zen Fusildegiko etxetiarren alaba Maria Hiribarren emaginarekin (ondotik Fusildegi edo Andrestegiko nagusi gisa azaltzen da). Ezkontzan zen Catalin Lalanne ama alargundua. Ezkontza-agirian aipatzen da lau lekukoetarik bik sinatu zutela agiria eta emaztegaiaren aitak ere; beste guziek ez zutela sinatu ez zekitelako idazten, *pour avoir déclaré ne le savoir*.

Esteban Gourdo 1751ko urriaren 9an, Saran Jean Etcharten omenez egin hileta-elizkizunean, aipatua izan zen, *la dite chaloupe ayant été trouvée vide et renversée par le gros temps de la veille par Esteban de Gourdo locataire de Lecouberria*.

Catalin Lalannen gutunak adierazten duen bezala, 1757an ez ziren Lekuberrian bizi, Harburuan baizik, *Harburun egoiten naiz bethy*, eta *Harburuco familiaq mila gorainçi darotçu*.

Esteban Gourdo Brest hirian hil zen, *agé de 55 ans ou environ mort à l'hopital de Brest en revenant de Louisbourg dans le vaisseau du Roy Le Dauphin Royal, suivant la lettre.*

Ikus 23. gutuna.

Catalin Lalanne igorleak ez zekien idazten.

2.7.2. **7. gutuna (1757-02-26): Miguel Harismendy igorleak Bernard Harismendy semeari**

La Presente Lettre soit rendue a Bernard harismendy habitant de Louisbourg
A louisbourg

Saran eguina oxailaren 26an 1757

Ene seme maitea

Badaquiçu bi urthe huntan ezdarotaçula ez bici çaren ez eta ere cure berriric batere eman; apparancias ahanxi çaitçu aita nauçula; aditu dut fortuna handi bat eguin duçula hor esconças, jainco jaunac lagun eta guida çaitçala, eta eguin deçaçula gratia cure baithan ongui onguy sarthuric çure faltac ongui essaguturic niri eta çure ama gachoari eta familia guciari eman darocussun nahigabe handia erreparatçeco nic desiratçen darosquiçudan gaixac aise jassanen tutçu. Errecibitu nituen çuc egorri cinerosquidan 250ac eta altchatcera eman niotçan M. Haranchipiry, eta guero ondoan nere behar handian erretiratu nituen handic eta emlegatu nere demboran uste dut aita qualitatean cenbait axeguin chumes lagundu eta favoratu caitudala; Bisquitartean egorri tutçun sossen galdea eguin dioçu eguin behar etçinionari erran nahi dut M. Haranchipiri, niri egorri çinerosquidan eta niri galdeguin behar cinerosquidan eta ez hari, eznuen pretenitçen sos hequin galdea eguin behar çinerotala, hor eguin duçun saltsa hor çhuçhen saçu, nitas beçanbatean estut pagatuco çure anaya primoa escondu ha goanareneco alabarequin berce familia guciac ere ossassuna du. Desiratçen darotçut ossassuna perfet bat eta guelditçen nais çuc ni ahanx arren çure aita ona

Miguel Harismendy

marcatu baitçinarotan collacareneco semeari prestatu ciniotçala hemecorcy libera, eta galde netçola, eta erretira netçola hartu dut particularrean guiçon gaste hura, eta dio egundaino ezdioçula eman; bioc hori elquarganatçen çaretenean churituco duçue Monsieur haranchipic milla gorainci darotçula jaincoari othoix eguinen diola çutas eta orhoit çaitecila heriotçeas eta çure arimaren salbamenduas

Miguel Harismendy-Catherine Etcheto ziren XVIII. mende hastapenean Xantakorenea etxeke jaun eta etxeke andereak. Etxaldearen eremua 4 hektareakoa zen orduan. Laster etxe berri bat eginik, lehengo Xantakoreneak Xantakorenezaharrea izena hartu zuen eta berriak Xantakorenea.

Harismendy-Etcheto bikotearen premua, Martin, Marie de Hiribarren Goanareneko alabarekin ezkondu zen 1757an, *çure anaya primoa escondu ha goanareneco alabarequin.*

Marcatu baitçinarotan collocareneco semeari prestatu ciniotçala; dudarik gabe delako Kolokareneko semea Jean d'Etcheberry zen, 1757ko apirilaren 16an itsasoan itoa Baionako *Le Chat* kortsarioan zelarik.

Miguel Harismendy igorleak ez zekien idazten: haren seme Martin izenekoaren (Xantakoreneko segida hartu zuen), eta honen emazte Marie Hiribarrenen haurraren bataioan (1758-10-01), aitabitxi gisa, ez du sinatzen, *pour ne le savoir.*

2.7.3. **10. gutuna (1757-03-01): Martin Borda igorleak Andreco Borda semeari**

A Monsieur Monsieur andreco de Borda Marinier demeurant a Larbador a terneuve Maitre de Grave Larbador

Saran eguina marchoarean lehenean 1757an

Ene seme maitea hartcen dut libertate Çuri Bi lerroren escribatceco eta Çuri gure familiaco Berri onen gastigatceco ossasuna dugu jaincoari Esquer eta desiratcen dugu denbora Berean Çuc ere hala Baçindu Çuc jgorri letra chanya Bat Baicen estugu erreçivitu esdausquigou lannesec sinatu nahi nola Bouryessari jgorria da arretcholará hadicaaco gastigouaren Beha gaude esdaquigou cer gastigou çanen dugun eta horco letra çhanyas balia Çaite possible Bada jgortcen darotçugou Betri maingouarequin athorra Bat bertceric ecin ausarta gaitesque jgortcerat hunat passatcera egicu ahal Badaguiçu anaya guanes Cortsuan dabila hirugarren Campaignan guanada eta aita Bera ere Bigarreanean doha Cortsurat joite handi Baten Beldurrean

Berrogoi untçi donibanetic eta Bayonnatic Badoha Corsurat orai artainocoan urus dabilla hemengo yendea untçi Bat Baicen estu hartu anguelessac hartu Corsulariric eta hartan Baciren Saratic Çortci guicon Çure adisqueide guciec guaraintci etaparticularqui amasso çaharrac

Cure Cerbitçari Martin Borda

Martin Borda-Marie Goyenetche Ihalarrezaharreko etxetiarrak ziren. Ihalarrezaharre etxea XIX. mendeko azken urteetan desagertu zen. Ihalarre auzoan eta Miranda inguruan zen etxe hori.

Andre Borda, *Andreco*, gutunaren hartzailea Arroxelako ospitalean hil zen (hileta-elizkizuna, 1758ko azaroaren 20an), 27 urte zituelarik.

Martin Bordaren iloba Jeanne Harambururen ezkontza-agirian (1772-02-11), lekukoen artean da Martin Borda, eta bertan aipatzen da ez zekiela idazten, *ce que n'ont fait les autres témoins*.

Borda-Goyenetche bikotearen seme bat, Pierre, 1774ko otsailaren 1ean ezkondu zen. Ezkontza-agirian Martin Bordak ez zekiela idazten aipatzen da.

Gutunean aipatzen da, *Badaguiçu anaya Guanes Cortsuan dabila*. Joannis (Guanes) Borda itsasgizona zen, *officier marinier*, Alfred Lassusen arabera.

Gutunean aipatzen da, *eta aita Bera ere Bigarrenean doha Corsurat*. Iduriz idazlariak berak, bere kontu, egiten du aipamen hori.

Martin Borda igorleak ez zekien idazten.

2.7.4. **14. gutuna (1757-03-02): Martin Durruitz igorleak Domingo Durruitz semeari**

Oharra: liburuan, izenburuan, igorlea, “Martin Durruitz”; hartzailea, “Domingo Durruitz”. Egiazki, Durruitz sinadura agertzen da gutunean eta sinadura bera ikusi dugu beste dokumentuetan. Baina bai ondorengoak eta baita ere aita-semeak Durruty deituraz azaltzen dira beti.

Liburuan, testuan, 14.2v (10-11 lerrotan) *biranda Etçheberico betirequin*. “Hiztegia”-n emana da *biranda* eta *bianda*. Dudarik gabe, Sarako Birandaetxeberria etxeaz ari da gutun igorlea. Etxe hori beti Mirandaetxeberria edo Birandaetxeberria bezala agertu izan da dokumentuetan: gaur egun Bintxeberria izendatzen dute bertakoek.

A Monsieur Monsieur Domingo Durruiits Sara fais dolhabide

Escibatua marçhoaren 2 saran 1757

Ene seme maitea Escibatçen darosquiçut bi Lero Çuri nere berien marcatçeco osasunadut neure famillia guçiarequin jaincoari Esquer Eta denbora berean desiratçen nuque Çurea hala balitz Eta Çuc Egoriac Ereçibitutugu hirur letra Eta

Çuc Egoriac berçe gauçac ere Ereçibitugu Eta Çure Erecuntra gaiçhtoez damu handi bat hartu dugu eta badaquigu damu hartua Çarela guc Çuri Letraric Ez Eguiteas bainan Espaiquinaquien Loisborcquen ala Chebequen Çinen Eta Letra ezquinaquijen norat jgor Eta piores Erregueren Çerbitçuan da urthe bat bada goana dela et Martin gazte corxurata goan Eta presan heldudela anguellesec harturic plemuan da hemen udaldia pasatu du bere dirua Emanguidion Eta hala ere bere ofiçioan hasi gabe corxurat goançen eta çhiquia ere corxurat goançen duela hogoi Egun Baijonatic Etçen beriric agueri oraino Eta içeba jxaso garatecoa hilçen bada urthe bat abançu Eta jgorcen darosquiçut urdai azpibat Eta luchainca cenbeit eta andolla bat biranda Etçheberrico betirequin Çure çerbitcari guelditçen nais cure aita maitea martin Durruitz

Martin Durruty, hargina, Argaineneko semea, eta Marie Hiriburu Olabideko jaun-andereak ziren (ezkontza 1718ko azaroaren 15ekoa da).

Domingo hartzalea 1760ko azaroaren 3an egin zuen ezkontza-kontratua Marie Heguy (Pielebaitako ondokoa) azkaindarrarekin (Jean Pierre Duhalde, 3E9603, 244. or.). Kontratuan aipatzen dira aita Martin eta bi anaia, Martin eta Pierre; aipatzen ere da Martin senargaiak Jean Etchevers ontzi-kapitainari zor zizkiola 100 libera.

Jçeba jxaso garatecoa hilçen badu urthebat abançu: alabaina, Gracianne d'Urruty (Argaineneko alaba), Martin Durrutyren arreba, Itsasgarateko etxeoanderea zena, 1756ko apirilaren 2an hil zen.

Martin gazte corxurata goan Eta presan heldudela anguellesec harturic plemuan da: Martinen aldeko hileta-elizkizuna 1757ko uztailaren 4an egin zen Saran, itsasgizon batek 1757ko maiatzaren 22an egin gutun baten bidez berria jakin-eta. Plymouth hirian zen preso.

Piores Erregueren Çerbitçuan da urthe bat bada goana dela: Pierre Durrutyren hileta-elizkizuna 1758ko urtarrilaren 21ean egin zen Saran. Brest hiriko ospitalean hil zen. Berria jakin izan zen anaiak (Domingo, gutunaren hartzalea) aitari egin gutunari esker, *agé d'environ vingt quatre ans - mort à l'hopital de Brest vers le 18 décembre dernier suivant la lettre du 22ème du même mois dudit port à son père sieur d'Olhabidea.*

Chiquia ere corxurat goan zen duela hogoi Egun Baijonatic. Delako *chiquia* izaten ahal zen 1760ko ezkontza-kontratuan aipatzen den Martin edo Pierre.

Martin Durruty igorleak bazekien idazten; haren sinadura agertzen da bataio-agiri batean 1759ko ekainaren 4an eta gutunean erabilitako sinadura berdin-berdina da.

2.7.5. **19. gutuna (1757-03-12): Joannes d'Etcheverry igorleak Joannes d'Etcheverry semeari (fils de la maison Maiteguenia)**

Oharra: liburuan, testuan, 19.1r (gutun-azalean), *fils de la maison de Maiteguenia de Sare*. Ene ustez: *Mailegurenea*. Etxea, desagertua, luzaz Mailegurenea izenez ezagutua izan da. Gaur egun bada Mailegurenearen ondotik sortu zen Mailegurenekoborda izeneko etxea, bertakoek Mailuenborda izendatzen dutena.

Monsieur Monsieur Joannes D Etcheverry Marinier demeurant a Louisbourq pour mieux dire fils de la maison de Maileguenia de Sare a present a Louisbourq Louisbourq

Sare le 12e Mars 1757

Ene seme maitea Errecibitudut çure letra abenduaren hogoi eta borcian Eguina ceinac Marcatu baitarotçu çure ossassuna ona, guissaberian ossassuna onbatean causitcen baicare gubere Jaincoaresquer, Errecibitu dugu çure letra chanja 919tt Liberaco bat ceina placer handia hartu baitut arribatu denean hainberce arriscuren ondoan, baldin harcen baduçu deliberacioneriq etcherat Ethorceco francian barna harçaçu mando gaztebat lau urtetaco çure eta çure bagaijen echartceco eta ustedut despendioac atheraco tutçun amac milla goraincy eta cure haurridec eta çure ahaidec eta adisquidec eta hauço guciec, finean guelditcen naiz çure aita eguiazcua eta fidella bicinaiceino

Joannes d'Etcheverry

Joannes d'Etcheverry eta Marie d'Etcheto Mailegurenea eta Bola etxeetako nagusi-etxeakoandereak ziren.

Jeanne Etcheverry, Mailegurenea eta Bolako ondokoa, eta Esteben Mendy senarra, ofizioz larru-langilea, aipatu bi etxeen nagusi-etxeakoandereak izan ziren ondotik. Bikotearen seme baten (Jean Mendy) bataioan, 1759ko buruilaran 26an, aipatzen da, *le parrain Jean D'Etcheberry (igorlea) et la marraine marie mendy qui n'ont pas signé, sçavoir Le pere pour etre absent et les autres pour ne le sçavoir de ce fait interpellés par nous*.

Joannes semea (gutunaren hartzailea) Ternuan hil zen: hileta-elizkizuna Saran egin zen 1758ko maiatzaren 15ean: *agé de 30 ans ou environ mort à Louisbourg suivant la lettre du 18ème février écrite par Pierre Lasserre aubergiste de la dite ville à Antonio Mocerrea matelot de cette paroisse*.

Etcheverry-Etcheto bikotearen bertze seme bat, Martin, 1705ean sortua, itsasgizona izan zen.

Joannes Etcheberry igorleak ez zekien idazten.

2.7.6. **22. gutuna (1757-03-14): Joanna de Bidart igorleak Joannes d'Etcheto semeari «olhaco errotaco semmeari»**

Oharra: liburuan, testuan, 22.2v (3. lerroan), *beti bianda Eçheberricoarrequin*. “Hiztegia”-n emana da *biranda* eta *bianda*. Ikus 14. gutunari egin oharra.

Presenteco leta hau errendatuco caijo joannes detçheto sara olhaco errotaco semmeari a jnnaniz jnnaniz

Escribatua marchoaren 14 saran 1757

Enne semme maitea harçendut libertate Curi bilerroren marcaçeco osassunadut jaincoari Escer nere fammilla guziarecin Ceinetan desiraçen bainuque Curea halla baliz denbora berean gorainçi Cure arrebec eta Coinnatac eta amaçhic eta jcebec eta Cussinec eta ahaide adiscide guçiec dolloratuac gara hagiz jçatu dugun berri tristeaz haren gauçac ahalic ungui alchaturic hunat pasaçerat Eguiçu lehenbiçico Comoitatean Ceren nihor gabe Causicen baicara Catalin eta bibioc gara eta maria eta arrangoiçen guelditudire hunat pasaçerat Eguiçu Ceren helduden neguco Ezbaçaïçaigu ethorcen uz ahal baitecaquegu errota letrahau hirur garrena Egorçen dugu jgorcen darosquiçug beti bianda Eçheberricoarequin Luqainca pusca baçuec Ez dugu passajaric jcan deussen Egorçeco eta mari maite argainecoc gorainçi finnean guelditcennaiz Cure ama fidela Cure Cerbiçari joanna debidart

Dolloratuac gara hagiz jçatudugun berritriaz: 1756-12-24an egin zen Saran Pierre Etchetoren aldeko hileta-elizkizuna, *filz des meuniers du moulin appellé d'Olha, noyé à Niganich en terre neuve suivant la déclaration de Joannes Etcheto frère du défunt dans sa lettre du 20ème novembre dernier écrite de niganich et adressée à sa mère au moulin d'Olha*. Pierre Etcheto 1752an joan zen Gaspésie-ra arrantzarat (Paronnaud).

Jgorcen darosquiçug beti bianda Eçheberricoarequin Luqainca pusca, Birandaetxerberriko etxetiarra zen Pedro Daguerre itsasgizona, *marinier*.

Oharra: 14. gutunean ere aipatua da Birandaetxerberriko Beti.

Senarra galdua zuen Joanna Bidartek, *Ceren nihor gabe Causicen baicara Catalin eta bibioc gara eta maria eta arrangoiçen guelditudire hunat passaçerut Eguiçu Ceren helduden neguco Ezbaçaiaigu ethorcen uz ahal baitecaquegu errota.*

Joannes Etcheto hartzailea Saint-Pierre eta Mikelune uharteetan hil zen 1775ean (Paronnaud).

Itxura guzien arabera, Joanna Bidart igorleak ez zekien idazten.

**2.7.7. 23. gutuna (1757-03-15): Piarres d'Etcheverry «mothela» igorleak
Joannes d'Etcheverry semeari**

La Presente Lettre soit rendue a joannes D'Etcheverry fils du nommé mothela a Louisbourg

Saran Eguina marzoaren 15. 1757

Ene seme maitea

Esribatçen darotçut lettra hau presenteco commoditate huntas baliatcea gatic, çuey nere amaren eta anayaren ossasunaren berri onac emaita gatic; desiratçen guinuque çuec ere hor ossassuna perfet bat bacindute. goanden urthean çuec egorriac errecibitu guinituen, Bai eta . urthe ere maitearequin hirur sey liberaco bisquitartean maitea etçen segur ea hirur ala lau eman çiniotçan; hurrenecoan lettran ongui marca çaçü. Aurthen guerla dela caussa ezdarotçuegou deus ere egorçen nihorc ere ez darocu deus ere hartu nahi; amac milla gorainci ossaba gorrari, eta çuequin batean hunat lehen bai lehen passa dadila; catalin bere emasteac ere othoix hori bera eguiten dio; agoretara chanjatu gara; çure ahaide eta adisquide guciec milla gorainci; eta particularqui monsieur haranchipy appeçac ossabari eta çuey, eta ni guelditcen nais çuen aita ona. Piarres D'Etcheverry

Piarres d'Etcheberry-Jeanne Zouelgaray (ezkontza, 1712an) luzaz izan ziren Motxarenea (= Harnabar) etxeko nagusi-etxekoandereak. Piarres, *matelot invalide* gisa aipatua, Saran hil zen 1762ko martxoaren 5ean, 75 urte zituelarik.

Piarres d'Etcheverry, *mothela*, semea eta gutunaren igorlea, Etiennette Gourdorekin (Esteban Gourdoren arreba, ikus 5. gutuna) ezkondua zen. Pierre 1716an sortua zen eta itsasgizona: zenbait urtez egon zen Niganichen 1742tik goiti, 1747an kortsu-ontzi batean zen eta 1748an preso hartua izan zen.

Etcheverry-Gourdo bikotearen semea, Joannes Etcheverry (hartzailea), 1740 inguruan sortua, 1762ko azaroaren 23an ezkondu zen Catherine

Hiribarrenekin, Pierre, aita, bertan zelarik. Ezkontza-agirian aipatzen da, *en presence et du consentement dudit pierre etcheberry père de l'époux ... desquels le dernier (pierre goyette) a signé et non les autres ni les époux pour ne le savoir de ce faire interpellés par nous.*

Ondotik Argaitzean bizi izan ziren etxetiar gisa. Horien semea, Salvat, 1766ko urriaren 27an sortu zelarik, Estonta Gourdo amabitxiak ez zekien idazten.

Etcheverry-Gourdo bikotearen bertze seme bat, Esteben, (1739) Haurra Maria Hiriartekin ezkondu zen 1768ko urtarrilaren 19an; arrantzan Ternuan eta Saint-Pierre eta Mikelunen, *maitre de grave* gisa egona 1780. urtean hil zen, anglesen preso zelarik.

Amac milla gorainci ossaba gorrari - cattalin bere emasteak; ama: Estonta Gourdo; osaba: Estebe Gourdo; Catalin Lalanne, Estebe Gourdoren emaztea.

Gutunean plurala erabiltzen da zonbait alditan, *çuey nere amaren - desiratçen guinduque çuec ere* Joannesen osabaz, Joannes Etcheverry Harnabarreko premuaz ari da, dudarik gabe.

Gutuna idatzia izan zelarik, bizirik zen Joannes premua, baina laster zendu zen (1758ko buruilaren 26an egin zen Saran haren aldeko hiletal-elizkizuna), *matelot héritier de la maison appelée Harnabar ou Motcharenea agé de 35 ans ou environ mort à Louisbourg suivant déclaration.*

Ikus 5. gutuna.

Pierre Etcheverry igorleak eta Joannes Etcheverry hartzaileak ez zekiten idazten.

2.7.8. **25. gutuna (1757-03-15): Martin Etchart igorleak Joannes Etcheverry ilobari**

Oharra: liburuan, testuan, 25.2 v 2. lerroan; A bertsioan, *samatchico*; B bertsioan, *Samatxiko*, “Hiztegia”-n *Samatxi*. Irakurketa zuzena: *samateluco*, hiztegian, Zamatelu behar luke. (Zamatelua Sarako etxea da).

La Presente Lettre soit rendue à joannes D'Etcheverry, neveu de martin saindua a niganisch

Saran Eguina marçhoaren 15.an 1757

Ene jloba maitea

Escribatçen darotçut lettra hau çuri ene eta gure familia guçiaren ossassunaren berri onac gastigatçea gatic, desiratçen nuque çuc ere hor ossassuna on bat baçindu; gu ere jaincoari esquer salboric eta fichoric arribatu guinen; behinçat goardia emoçu denboran lettra çhanjaric egorçera heldu baçara, ea noren ganat, eta nortas tiratuac eguinen tutçun; aurthen gou hemen changrinatuac gabilça nihorc ez sinatu nahis; oray bada Esperança eman darocute pagatuac içanen garela. Eztarotçugu deus egorçen guerla dela caussa, harçaçu paçientia eta horco berriac gastiga datçu lehenbico comoditatean, gorainci gure gende guciec, eta particularrean çure arreba Estebenic; Bai eta monsieur haranchipic eta bere familiar; guelditçen nais çure ossaba ona Martin D'Etchart monsieur haranchipic othoisten çaitu erraites samateluco semeari eztuela horren letraric batere içan, lettra chanja bat içan duela horren partes, bainan ezdela oraino pagatua, harçen baitu ungui goardatuco tuela. Harceco esperança oray baduela, ezdaquiela cer guerthatuco den. Monsieur Beuvassin arrochalaçoac oray esperança emaiten duela gauça bera erranen dioçu martin canderatzi çhotilen semeari ezduela monsieur haranchipic errecibitu oraino diruric oray esperançan dagoela

Martin Etchart-Estebenie Hiribarren bikotea Ibartsoron bizi zen etxetiar gisa. Ibartsoron sortu ziren Dominch (1747), Christophe (1748) itsasgizona, Sardiniako ospitalean hila 1768an, Gracianne (1754), Tristant (1760) eta Catherine (1762).

1754ko urriaren 26an Etienne Finondoren alde Saran egin hileta-elizkizunean aipatzen da, *Etienne Finondo noyé à Niganich en terre-neuve ... suivant les lettres écrites du même port par Martin Etchart locataire d'Ibarsoro et Joannes Mikheleperitzena fils de Harburua.*

Gu ere jaincoari esquer salburic eta fichoric arribatu guinen. Martin Etchart 1777ko urtarrilaren 22an hil zen Mixeltorenean (geroago Errekartenea). Aipatzen da etxe horretako nagusia zela, 69 urtekoa eta itsasgizon enbalditua, *matelot invalide.*

1768ko agorrilaren 9an Maria Etchart (Martin Etcharten alaba) Pierre Errecarekin ezkondu zen. Ezkontza-agirian aipatzen da emaztegaiak eta bi lekukoek sinatu zutela; ez besteek (beste bi lekukoek), senargaiak, burasoek (Martin Etchart barne) *ez zekitelako idazten, ont déclaré ne savoir signer.*

Gauça bera erranen dioçu martin canderatzi. Martin Canderatz, Minddaurreko etxetiarra eta itsasgizona, 30 urte zituelarik, ito zen itsasoan (Hileta-elizkizuna Saran egin zen 1758ko urriaren 29an).

Othoisten çaitu erraiteas samateluco semeari eztuela horren letraric batere içan. Joannes Etcheverry Zamateluko semea zen; ama Marie Etchart, Martin Etcharten arreba.

Martin Etchart igorleak ez zekien idazten.

2.7.9. **28. gutuna (1757-03-16): Ziburutik igorria. Cathalina Ithurriague igorleak Gabriel Ithurriague (marinier de Sare) anaiari**

Oharra: gutun hau Ziburutik igorria izanik ere, Sarari buruzkoekin eman dugu, igorlea eta hartzailea saratarrak izaki.

A Monsieur Monsieur Gabriel ithurriague marinier dulieu de Sare à Louisbourg

Cibourun marchoarean 16an. 1757

Ene anaya maitea

Escribatcen dausquitçut presenteco bi lerro hauc çuri ene ossassunaren marcatceco ceïña aguitz baita perfeta Jaincoari esquer, desiratcen nuque ene bihotz guciacz çurea hala balitz halaber ossaba franchiscuc eta matanta Cathalinec ossasuna dute, çure aita eta ama maiteec ere erranen dautçut haguitz direla offensatuac goanden urthean es escribatceaz, Escribatcen dautçute, Egorcen dausquitçut ene partes Cibouruco martin filissen semarequin attora churi bat galcerdi firlango pare bat eta çapata handi pare bat guciac berriac, hala othoizten çaitut haurten etcherat erretira çaitecen hori da çure bourassoen desira gucia, gure berce ahaide eta adisquide guciec ossassuna dute, estut deus ere çuri marcatceco baicic naicela çure icusteco desira handian Ene anaya maitea Çure arreba fidela

Cathalina ithurriague

Cathalina, Martin eta Gabriel Ithurriague Betry Ithurriague-Madeleine Sobre bikotearen seme-alabak ziren. Familia Apeztegitik (Apeztegia 1804/1839 urteetan desagertua) Teilariara pasatu zen.

Gabriel, Teilarian, 1731 inguruan sortua, ezkondu zen Gracianne Harishandietekin 1768ko urtarrilaren 12an; Teilarian bertan sortu ziren hiru haurride 1770, 1774, 1780. urteetan; bataio-agirietan Gabriel itsasgizon gisa aipatua da. Lehen bidaia 1751n egin zuen eta geroztik arrantzan ibili izan zen. Azkenik 1784ko uztailearen 19an ito zen Saint-Pierre eta Mikelune uharteetatik etxeratzen ari zelarik.

Martin Ithurriague, 1728 inguruan sortua, Catherine Etcheverryrekin ezkondua, itsasgizona zen.

Gabriel Ithurriague hartzailleak ez zekien idazten ezkontza-agirian agertzen denez, *ainsi que les époux qui ont déclaré ne savoir signer*. Gabrielen aitak ere ez zekien idazten.

Itxura guzien arabera, Cathalina Ithurriague igorleak ez zekien idazten.

2.7.10. **47. gutuna (1757-03-29): Marie Dithourriague igorleak Estebe de Echegaray semeari**

Oharra: liburuan, izenburuan, “Non idatzia: Donibane Lohizune”; baina Sara behar luke, hala agertzen da dokumentuan berean, horrela datatua, *A Sare ce 29 mars 1757*.

La presente ce sera randue a estebe de echegaray de sare a present aloisbourq a Louis bourq

A sare ce 29 de mars 1757

ene seme maitia

escribatcendarocout letra hau couri nere osasounaren marqatceco ceinetan ona baitout nere familia gouciareqin batian desiracen nouque couria hala balix aita maitiareqin batian errecibitou tout coubeq egori gouciaq couben erreputa batian oungui pena senticen dut coubeq ene letrariq es errecibiceas estaene falta haur maitia esta ouciric partitou non estoudan escribatou ene familiaren beriaq damou dout ceren estoucoun errecibitou coure letren errepoustaq aditou dout ene seme maitia aitaq eman caitoubela toqi onbatian otouy obedi cacou coure aita marqatou darot asqo gaucha behar cindouqiela eta ecin fagoreriq egin ene haur maitia penca cacoube couq eta aitaq cerpenetan ahal naitequen nahi coubei palacer egin gaucha goucies eta ecin egin oray marqatcen toudan nex baiciq egorcen darocout baril bat ceinetan betri harispeqoareqin labordaregoleta ceinetan baitire ourdaiaspibat louqainqa pagabat gasnabat belhar goutibat marsans handiareqin gorcen darosqicout aitarencant eta courecat galcerdi parebana athorabat courecat capata pare bana christoa hadiqo chanichonenen coletan bayonatiq aitari erocou nola marqa carotan egorceqo 12 libera cholat ene oustes hiriarteqin egori ouste nitouben baina bordelen gelditou da hortaraqox egorcen diosqat ganisoneqin bayonatic oungi precotioniaq hartouriq parti caistecte ene maitiaq gerla handi baten aparanciaq dire hemen angelesq hartu touste saratarceinbeit oray ere gouardia emocoube coben boroubei eichoqoq aitarochiq mila goraici mondou huntouriq goaten caigou coure

aitarochiq elordiqoq mila gorainci coure anaja mastaneq goraicic bayonan da canonier bethi galdiareqin coure anaya arebeq milagorainci geldicen naic coure ama maitia

Marie dithuriage
besarqacacou coure aita ene partes milia gorainci diodala”

Istilartea (geroago Harotxeta) etxean bizi izan ziren Joannes Etchegaray eta Marie Ithurriague (zombait agiritan Dithurbide gisa aipatua) senar-emazteak. Etxetiarrak ziren.

Desiracen nouque couria hala balix aita maitiarequin. Esteberen aita, Joannes Etchegaray, semea bezala, itsasoan zen gutuna idatzia izan zelarik. Laster zendu zen; 1758ko maiatzaren 13ko hileta-elizkizunean aipatzen zen: *Joannes d’Etchegaray matelot âgé de cinquante cinq ans ou environ marié avec Marie Ithurriaga locataires d’Istilartea, mort en mer sur le corsaire de monsieur Laborde négociant à Louisbourg, suivant la lettre du dix huitième février dernier écrite à Antonio Moccorrea du présent lieu par Pierre Lasserre aubergiste.*

Laster Esteberen beraren hileta-elizkizuna, 1758ko urriaren 29an, Saran, *Etienne d’Etchegaray matelot âgé de vingt ans ou environ, fils des locataires d’Istilartea ... noyé vers Plaisance en Terre Neuve suivant la déclaration* eta 1758ko azaroaren 29an, Martin Etchegaray itsasgizonaren aldeko hileta-elizkizuna Saran, *Martin d’Etchegaray matelot âgé de vingt un ans ou environ fils des locataires d’Istilartea du présent lieu mort à Kebec au service du Roy suivant la lettre écrite de Brest.*

Gutunean aipatzen da *egorcen darocout baril bat ... betri harispeqoareqi:* Betri hori Dithurbide zen, Harizpeko semea, eta itsasgizona; laster zendu zen (hileta-elizkizuna 1763ko abenduaren 2an egin zen Saran).

Gutunean ere aipatua: *coure aitarochiq elordiqoq mila gorainci,* Elordiko nagusia Etienne Ithurriague zen.

Itxura guzien arabera Marie Ithourriage igorleak ez zekien idazten.

2.8. SENPERE

11., 12., 16. eta 24. gutunen egilea bat eta bera da: Jean Dardamboure Senpereko errienta.

2.8.1. **6. gutuna (1757-02-20): Maria de Molleres igorleak**
(Etchegarayco Haurra Maria idazlari) Bitor edo Bernat de
Farandiret hartzaileari. Lotura: adiskideak

Oharrak: liburuan, izenburuan: Non idatzia? - Igorlea: Maria de Molleres (Etchegarayco Haurra Maria idazlari) agertzen da. Ene ustez, non idatzia: Senperen, dudarik gabe; gutunean agertzen diren pertsonaiak eta etxeen izenak, Kamieta, Hausteia, Etxegaraia, Agerrea, Landaburua, Estebenea... Senperekoak dira. Igorlea: Maria Molleres Etxegaraiko alaba da, hots, Etxegaraiko Haurra Maria.

Liburuan, testuan, A bertsioan, 06.1r (6. lerroan) *chebecat*; B bertsioan, *xebecat*. Quebec hiriaz ari baita, B bertsioaren *xebecat* ez da zuzena. Bestalde, ez da agertzen hiztegitan.

1754ko urritik hasi eta 1778. urterainoko agiriak eskas dira.

Presenteco letra hau errendatuco caio laures tirun mariacoeneco semeari chanpartierari chebecat eta harc errendatuco du bitor de Farandiret edo bernat de Farandiret anaia bata edo bercea ganat

Bitor de Farandiret eta Beinat de Farandiret ene adisquide maite maitiac haren dut libertate cuei bi lerroren eschribaceco jaquin deçaçuen amoreac gatic cuen aita eta amaren b eta arebaren ahaide eta adisquide gucien berriac gorainçi darotcue gastigacen ossasuna on bat dutela desiraçen luquetela cuec hala bacindute errecibitu dute cuec eguin letra ungui placer hartu baitute cuen berrien adicias aita eta ama hamar urtes gastatu dire cuen berrien adicias orai desiracen tute luquete ceboc cuen berriequin icustias marchoaren lehenbico jgandian eguin behartu bors urte hemendic partitu cinetela gerostic esquara hala satisfatu nola aurten jaincoac gracia handiac eguiten darosquicue eta estarotcue batere gutiaco eguinen baldin ematen badiocue satisfacionea cuen aitari eta amari cuen jcustecoa ecen hurren dire hagarandu cuec beguis jcusi nahis munduco ontasun guciac baino nahiago luquete cuec beguis jcusi guero hilen badire ere hain ungui cuen arebac cuen jcusteco desira baluque non uste balu munduco tresoric handienac guciac uts bailecaque cuen jcusteco non bordele becain hurbil balis esbailuque batere herabe urraxa cuen jcusteco hambat demboras jbiri dire cuen berriac jaquin nahis hirur urtes eguin tuste bors letra eta behin ere cuenic ecin jean bainan aurten comprenitu dute eguin tucuela cuec ere letrac arebac goraici, osaba eta jceba guciac gorainci cusina guciac gorainci etchegaraico familia guciac gorainci erotaco falia guciac gorainci aguereco familia guciac gorainci camietaco familia guciac gorainci andregaia escondu da hausteico cadetequin seme handi batequin daude cuen arebac eguin du hequien esconca cuenac ere

eguina dago baldin disposacen bacarete bitor ene anaia maitia compreniaraci jcatu daut marinel batec hor habitacen carela bainan guciarequin ere behinere estut sinesi cergatic espaicaoscat capable cu guri damu horren eguiteco beinat ene bihos maitia dio cure arrebac baduela hirur urte cure emaste gaia bilatua duela bethi dagoela hagorandua cu jcusi nahis bethi galdeguiten dioscala cure berriac eta bethi aguincen caituela baldin fraide eguin gogo espaducu esconca tratacale handi bat da hura baina berreric estu eguiten hargatic cuec eguiteco dauca hura apa landaburucoac mariac machume estebenecoc gachina chume castienecoc gaachic guci guciec gorainci bitor eta beinat ene adisquide eta hauco maite maitiac gororaici darotcuet particularsqui nic letraren eguilic gucien gainetic maria de molleres etchegaraico huramariac eguina oxailaren 20an eguina 1757 lapiceco andregaiac gorainci mila mila orai compreni cacue guc cuec cein maite caitustegun candela bat ere erre guinduen hunen eguitian berciac liberticionean etagu hunen eguiten

Joannes Farandiet (zonbait agiritan Pharandiet idatzia, baita ere Darandiet), *du lieu d'Arbouet en Basse Navarre* eta Marie Bidart (Senpere Bidarteko alaba) ezkondu ziren 1720ko urtarrilaren 30ean; ukan zituzten hainbat seme-alaba, eta horien artean Bitor eta Bernat. Bitor (Victor) 1727ko azaroaren 1ean sortu zen eta Bernat (Bernard), 1733ko buruilaren 19an, Landaburua etxean.

Gutunean aipatzen den arrea, *esconça trataçale handi bat da hura*, izan zitekeen Françoise (1720-09-25), Gratianne (1730-05-19) edo Catherine (1736-01).

Bernat Farandiet Quebecen ezkondu zen 1764ko urtarrilaren 10ean Marie Roletekin (Quebec, 1732-11-30).

1741eko martxoaren 15eko bataio-agirian (Jean Molerés Etxegaraiko semea) aitabitxia Jean Behola Kamietako jauna da; amabitxia Marie Molerés, *et la marraine Marie de Molerés fille de la susdite maison d'Etchegaraya, en foi de quoi j'ai signé avec le parrain*.

Maria Molerés Etxegaraiko ondokoak, 1758ko otsailaren 22an egina izan zen ezkontza-agirian (senargaia Joannes Diharce), ez zuen sinatu ez zekielako. (M Harismendy 3E3979, 86. or.)

Maria Molerés igorleak ez zekien idazten.

2.8.2. **11. eta 12. gutunak (1757-03-01): H1, Maria Dihitx igorleak**
Haurra Maria Hiriart alabari

A Mademoiselle Mademoiselle hiriart Basquese A Louis Bourg

A St pée le premier mars 1757

Ene alaba maitea

jcatu dugu ohore iquesteco çuq monsieur Diharci Vicarioari jscuiribatu jçatu dioçun Letra ceinetan marquatcen baitcinioen seigarren aldia cindubela eta datatuba baitcen goanden abendoaren hamaseian, bai eta guerorrec ere errecibitu dugu cure letra hainits placer hartu dugu çure ossasunas eta cure berri onen jaquiteas guq ere bada presentean ossasuna dugu familia guciac jaincoari esquerrac gure orhoitçapençat jgorcen darotçut çapata parebat martin pillisen semearequin eta Desiratcen nuque hemedic joan cinen sentimendu beretan causitcen bacine othoisten çaitut çure fideltasuna guardatceas eta onic nihorat ere es airatceas ecen bertcetan ere bada cerbait escasia eta badaçisu cembat samur tasun duben amabatec bere umen aldera desiratcen nuque hainits çure jjustea baldin jaincac eguiten badu gracia baquearen eguiteco eta badaquiçu orobat ume batec badubela obligacionea buraso baten obeditceco, beras hortaracots othoits eguiten darotçut neure ahal gucias guerla unec dirabeino hor egoteas eta guero baquea eguiten den pontutic etçherat erretiratceas horra cer othoits Dudan çuri eguiteco eta desiratcen nuque entçuna banins ene othoitsean guelditcen naicelatic cure ama maitea eta fidella bihots samurres bethea

Maria Dihitx

Maria Dihins uztariztarra 1715eko agorrilaren 27an ezkondu zen Joannes Hiriart Amotz Harginareneko semearekin. Ezkontza-agirian aipatzen da bi lekukoek sinatu zutela, baina ez ezkontideek, *et non les parties*.

Familia horretan sortu zen Haurra Maria Hiriart (1730-04-22); bataioa gertatu zelarik burasoak ziren *sieur et dame de karricarte chabatenea*, eta berdin beste seme-alaba guzien bataioetan.

Eta Desiratcen nuque hemedic joan cinen sentimendu beretan causitcen bacine othoisten çaitut çure fideltasuna guardatceas eta hortic nihorat ere es airatceas ecen bertcetan ere bada cerbait escasa. Iduri luke alabaren senargai berri baten berria hedatu dela herrian.

Maria Dihins igorleak ez zekien idazten.

2.8.3. **16. gutuna (1757-03-07): Joanes de Matet igorleak Joannes de Matet semeari**

Lapresente soit rendue a joannes dematet A Louis Bourg

A St pée le 7 mars 1757

Ene semea

Ohore dugu curi presenteco letra hunen jgorceco eta dembora berean gure berrien marcatceco osasuna dugu familia guciac jaincoari esquer eta Desiratcen daroçugu curi ere osasun bera guc dugun beçala baldin jaincoari conbeni baçαιο eta desiratcen guinduce cure jcustea cure anaiac othoisten çaitu çuben arteco duçuben jrabacia edo ontasuna lechu on eta escu segur batetan hor usteas badaquiçula cer jrrisqu litequen orai eta den anguelesarençat eta cerorri nihola ere posible bada jrrisca çaitaçilla alderdi huntarat pasatcerat aguian jaincoac eguinen darotçulla pasatceco gracia salboric eta bera corsuban dabila baionnatic adiu ene semea cure aita eta ama eta bai haurride gucias eta ahaide eta adisquide gucias

joannes de matet

Joannes Matet, Senpere Ehaltzeko etxetiarra, 1722ko maiatzaren 4an ezkondu zen Marguerite Dupouyekin. Ezkontza-agirian lekuko batzuek ez zuten sinatu, idazten ez zekitelako; halaber ezkontideek, *non plus les contractants*.

Matet-Dupouy familia, etxetiar gisa, hainbat etxaldetan bizi izan zen: Joannes 1727ko uztailaren 7an sortu zen Mirikuarenean; Pierre, (1729-12-29) Ola Joanesenean; Joseph, (1732-10-22) Ola Martinenean, Jean (1735-04-23) Ola Martinenean, Jean (1737-04-02)?, Jeanne (1740-01-02) Ehaltzean, Martin (1742-07-10) Ehaltzean.

Cure anaiac ... bera corsuban dabila baionnatic. Beste anaia ere, beraz, itsasgizona zen.

Joannes hartzailea izan zitekeen 1727an sortua (edo 1735ean edo 1737an). Ez dut sekula ikusi Joannes hartzailearen sinadurarik.

Joannes Matet igorleak ez zekien idazten.

2.8.4. **24. gutuna (1757-03-15): Betry d'Etcheberry igorleak Joannes d'Etcheberri semeari**

La presente soit rendue a joannes etcheberri chanpartier et menuisier A Louis bourg

A St pée le 15 mars 1757

Ene semea

Ohore dugu curi presenteco hunen jgorceas Ceinetan hirur garren aldia baitugu hau Bainan adituac gare errencurac eguin tutçula, estuculla gure berriric batere jaquiten, gure ustes esta gure falta çuc es errecebitcea hirur garrean aldia denas gueros hau, bada egundaino beçain ungui desiratcen guinduce gure famillaco berriac jaquin bacintça osasuna dugu presentean familla guciac jaincoari esquerrac bainan aitaso eritasun luce baten ondoan jaincoac mundu huntaric erretiratu darocu eta hainits behartu gare harequin eta badaquiçu lehen ere aphur bat gora behera gure etçheco miseriaren berria aditu dugu nola etçaren oraino plaçatua eta desiratcen guinduce niholare posible bada plaça bacinteci asqueneco letran gure ustes ungui gomendatu çaitugu Çure famillari eta Çuc ere Çure eguin ahala eguiçu, ene semea errecibitu dugu predoeneco semearequin jgorri hirur liberacoa eta orai egorceco desiraric hartcen baduçu ungui seguraturic jgoraçu ecen badaquiçu cer jrriscuden orai, esta deus ere berriric hemen Curi marquatceco guerla eta miseria baicen desiratcen darotçugu osasun on bat guc presentean dugun beçala baldin cobeni baçαιο jaincoari haren gloriarençat eta Çure eta gure arimaren salbamenduarençat Cure serbitçari Ni aita Bihots samurtasunes bethea eta ama orobat Besarcacen çaituellaric bere bihots gucias haurride guciec eta bai ahaide eta adisquide guciec Betry d'etcheberry cure anaia goan da donibanerat oficioaren jkhasterat aditcea badugu nola egorri Cintuben hogoi eta hemerezi libera bainan guc estugu deus ere hetas funsic eta Cerrrorec eguiçu Cerbait funs

Betry Etcheberry eta Gracianne Etcheto bikotearen semea izan zen Joannes (1733-09-14), burasoak Orkatzereneko jaun-andere gisa aipatuak direlarik. Familia berean (burasoak Amotze Joaneneko jaun-andere gisa aipatuak) sortu ziren Salvat (1729-02-11), Domins (1731-03-07) eta Sabine (1736-05-28). 1729ko maiatzaren 10ean gertatu bataio batean (Amotze Menta etxean) Betri Detcheberri aitabitxi izan zen. Ez zekien idazten.

Bertzalde, 1744ko otsailaren 2an Harismendy notarioaren aitzinean agertzen dira bi anaia: Sasco Detcheverry maiasturua, Betry Detcheverry Orkatzeneko nagusia eta bi lekuko. Lekukoetarik batek sinatzen du, baina ez

bertzeak, ez eta ere bi anaiek, *ce que n'a fait l'autre témoin non plus que les parties pour ne le savoir en étant sommés par moy* (3E3965, 358. or.).

Betri Etcheberry igorleak ez zekien idazten.

2.8.5. **30. gutuna (1753-03-15): Martin Larralde sieur de Bastidaguerre igorleak Saint Martin de Duronia Mirande ilobari**

A Monsieur Monsieur St martin de Duronia mirande, Maitre Capitaine de navires de a Louisbourct

Ene jloba jauna

plaçer handirequin aditu ditut Çure fortunaren berri onac, nahis Esconçaren partetic, eta Corsuco partetic, felicitaçen Çaitut guçias, Çeren on desiratçen baitarotçut neure bihots guçias; eta Erranen darotçut Çure ontassuna guibelat haridella, Çure ama andrea gai jçan gabes; eta asqueneco sasoina galdu du, harrias porrocaturic, hortic jujatuco duçu Çure ahalas lagundu Behar duçulla Çure ama andrea; Baldin nahi Baduçu Çure ontasuna Conserbatua jçan dadin, jauna ene jloba. Çure Çerbitçari nais neure Bihots guçias Martin Larralde Sieur de Bastidaguerre

à St pe le 16e de mars 1757

Martin Larralde, Bastida Agerreko ondokoa, 1723ko otsailaren 3an ezkondu zen Jeanne Duronea Mirandako alabarekin. Senarrak sinatzen du; emazteak ez daki sinatzen. Alabaina, Mirandako alaba da, eta, aita, “maître chirurgien” ofizioz, eta anaia Pierre Duronea, 1748an zendua, notario izana zen. Jeanne Duronea 1726ko uztailaren 26an zendu zen, haurra (Gracianne) sortu eta berehala.

Saint Martin Duronea Ziburun sortu zen 1730eko otsailaren 21ean (aita, Pierre Duronea notarioa; ama, Jeanne Sallaberry ziburutarra); ontzi-kapitaina, 1756ko azaroaren 23an ezkondu zen Kanadan Perrine Dupontekin, *plaçer handirequin aditu dut Çure fortunaren berri onac, nahis Esconçaren partetic, eta Corsuco partetic*: lehen haurra han berean ukan zuten eta ondotik beste bi Baionan. Baionan zendu zen 1761eko azaroaren 3an.

Sant Martin Duronearen anaia, Martin, Senperen 1734an sortua, itsasgizona izan zen. Erregeren zerbitzuan ari zelarik preso altxatua izan zen 1755ean; 1771n Dominika uhartean zen.

Senperen bazituen ondasunak. Paronnauderen arabera, bereak ziren Senpereko bi etxalde, Sabalenea eta Dolabaratsea. Gutunak dio: *Çure ontassuna guibelat haridella, Çure ama andrea gai jçan gabes; eta asqueneco sasoina galdu du, harrias porrocatunic.*

1759ko urtarrilaren 23ko Detcherry notarioaren agiri (3E9835, 25. or.) baten arabera, Saint Martin Duronea, *Bourgeois et capitaine de navire habitant de Ciboure* zen. Agirian, Duroneak ahalordetzen du Perine Dupont emaztea, Senperen dituen ondasunak kudea ditzan, *nottament les maisons de Sabatenea et Dolabaratsea*. Hain zuzen Duronea itsasora zihoan egun berean ordenua egin zuen Duroneak.

Martin Larralde igorleak eta Saint Martin Duronea hartzaileak bazekiten idazten.

2.9. URRUÑA

2.9.1. **1. gutuna (1757-02-02): Martin de Arrunde igorleak Martin de Arrunde semeari**

Oharra: liburuan, izenburua, “Igorlea: Martin de Arrunde; hartzailea: Martin de Arrunde”. Aitak semeari. Ene ustez, igorlea Pierre Arrunde da (34 urte). Gutunean agertzen den sinadura berdina da ezkontza-agirian (1757-08-30); bestalde agiri horretan Pierre izena marratua da eta Martin emana. Hartzailea Martin Arrunde (25 urte). Lotura, beraz: anaiak anaiari.

La presente letre rendu martin arrunde aLouisbourge Alouis Bourge

Urrugne le 2 fevrier 1756

Martin de arrunde escribacen darosquicut Bileru ossasuna dugula jeancoari Esquer Eta dessiracen guinducque Curia hala balix Eta Cerbeit egin ducula aditudugu eta unqigobernacaite Eta erecibitunuben Caspi libera martinen ganic deussic ecin jrrisca decaqueguque unciguciaccarcen tuste Eregeren cerbicutic Ethorinincen Eta Corsurat noa hogoietta sei pecetaquo fragata Berribatian Eta helduden urtian Cato Echerat eta Cerequin Ecdiru Guciiac jrisca Eta halic obecienua Eginen Ducu Eta Cerbicarry martin de arrunde

Pierre Arrunde Jeanne Larralderekin ezkondu zen 1757ko agorrilaren 30ean. Ezkontza-agirian senargaiak badaki sinatzen. Haren sinadura (Darrunde) eta gutunean agertzen den Arrunde bat eta bera da.

Erregueren cerbicutic Ethorinincen Eta Corsurat noa. Pierre Arrunde, *fil de la locataire de Gaztebaita, marié à Jeanne Larralde*, 35 urtekoa, Quebecoko ospitalean hil zen. Haren aldeko hileta-elizkizunean (1759-01-14), lau hilabete lehenago hila zela aipatzen da, beraz 1758ko irailean. Ez zuten seme-alabarik ukan.

Martin Arrunde hartzailea, *fil de la locataire de Gaztebaita - decedé dans les prisons de Falmuth - après avoir été pris par les anglais ... venant de Louisbourg*, 25 urtekoa. Hileta-elizkizunaren agirian (1758-02-18), lau hilabete lehenago hila zela aipatzen da, beraz 1757ko urrian.

Bien burasoak Joannes Arrunde eta Dominica Yraçabal izan ziren. Joannes Arrunde, lehen ezkontzaren (1723-01-13) bidez, Gaztebaitako nagusia izan zen: emaztea Jeanne Loret zen. Arrunde bigarren aldiz ezkondu zen, eta hil ondoren, haren emaztea (Dominica Yraçabal) Gaztebaitako etxetiar gisa agertzen da.

Pierre eta Martin bi anaien arteko adina ikusirik, batak 34 urte 1757an eta besteak 25, ulergarria da gutunean aipatzen dena, *Eta Cerbeit egin duculaaditudugu Eta unqigobernacaite*.

Pierre Arrunde igorleak bazekien idazten.

2.9.2. **39. gutuna (1757-03-23): Haraneder apaizak Pierre Etchegoyen ilobari**

La presente soit rendue a pierre etchegoyen demeurant a louis bourc A Louisbourg

Ene hiloba maitea

uste nuben aditu dembora gucietan Çutaz guicon beharden becalaco bat hicaren ciñela. Bizquitartean contrarioa aditçen dut; ainitç gare doloratuac Çutazco gaucen aditçiaz ez dut dudatçen Compania gaistoen effetu batçuec direla horiec Çorigaitçez hiçan Çarela herri hortan baina Cer eguin presentean? Erreparetçerat enxaiatu behar da iraganaren oraino gastea Çare hortaracotç en haur maitea, moyenic hoberena Çait alde huntarat pasatçea; ethortçen baçare borondate on batez betea, enxaiatuco gare Gaucen erremediatçerat; eta guc hiçaren dugu çure alderaco bihotç eçagutu daucuçuna ez deçaçula beraz falta ethortçeric çure anaiarequin bertçe alde

salvamenduaz çinçinez pensatu beharda. ez dut uste hor hambat ongui eguin deitequen; Mr iriberri amaren dioscatçu ene erespetuac. eta hiçatu nituela hirur ogoi libera marçans çenarenac; bainan aditu nuela oraino gueiago ere baçela; othoisten dudala deusic baldin badu egortçeaz çerbait funx oneco guiconequin; lehen bai lehen. erranden marçans çenaren humeren alchatceco. eguitçu gauca Guçiac funx onez; horren desira eta esparantçarequin guelditçen naiz. considerationerequin ebe hilloba maitea. çure cervitçari humilla eta obedienta. Haraneder apeça

A Urrugne le 23 mars 1757 çure amarochi handisqui hicustea desiratçen caituenac eta gure haurra mariac eguiten dausquiçute bere complimentuac...

1722ko otsailaren 4an ezkondu ziren Urruñan Martin Etchegoyen (Martinluziabitako ondokoa) eta Marie Dihabe (beste agirietan Erriart, Heguy, Hiriart eta Eriart). Seme-alaben artean badira bi Pierre, 1723ko apirilaren 28an sortua lehena eta 1730eko abenduaren 25ean sortua bigarrena. Azken hau zitekeen hartzailea: *oraino gastea Çare*.

Pierre Haraneder apaiza zonbait urtetan Urruñako bikarioa izan zen.

Pierre Haraneder igorleak bazekien idazten; dozenaka agiriren egilea da.

2.10. ZIBURU

2.10.1. **21. gutuna (1757-03-14): Jean Lafitte Bourguignon igorleak Joanis Lafitte Bourguignon semeari**

Oharra: liburuan, izenburuan, igorlea: Jean Lafitte Bourguignon. Ene ustez, igorlea: Jeanne Michau. Sinadura gisa senar-emazteen izen-deiturak agertzen dira *Jean Lafitte* eta *Jeaneton Micho Bourguignon*. Baina testuak garbiki erakusten du nor den igorlea, *Eta aita erebay*, geroago, *cure aita eta ama samurrac* eta ondoren, *Jean Lafitte et Jeaneton Micho bourguignon*

La presente sera rendue a joanix Laffitte, dit Bourguignon, Marinier apresent al'isle Royale a Niganiche

Asibourelle 14e mars 1757

Ene seme Maitea presenteco Commoditateas baliatcen nais letra haur çuri escribatceco, Eta curi errateco nahi nausquitçula cembait tresna egorri, baiñan guciec guibelatu naute erraten Dutela Beharbada Eta segurqui, hortie partitua çarela, mentura hortan esdausquitçut egorri

Çuc egorri cignautan letra de Changeas, es nais pagatuba issatu cergatic hura pagatu behar çubenac baitio Es çubela haren Eguilliaren funcic, Famillia Guçiec ossasuna dugu Jaincoari Esquer aguian Çuc ere haladuçu, Guçiec milla goransi dautçute, Mandataria pressatua da, hargatic es dautçut Chehetassun guehiago eguiten, nais Eta aita erebay cure aita eta ama samurrac

Jean Lafitte eta Jeanneton Micho bourguignon

Jean Lafitte eta Jeanne Michau ziren Joanisen burasoak (1733-06-02). Ezpeleteneko jaun-andereak ziren; bertan sortu ziren, besteak beste, Margueritte (1719-01-25), Filibert (1720-02-20), Marie (1722-01-15), Marie (1724-02-21), Marie (1725-11-04), Joseph (1727-11-30), Martin (1729-10-20), Marie Haurra (1731-04-13), Jean (1733-06-02) eta Pierre (1735-03-19).

Marie Lafitte (zein ote?) 1754ko azaroaren 20an ezkondu zen Ziburun Jean Castaignet milafrangarrarekin. Ezkontza-agirian hiru sinadura agertzen dira: bi lekukoenak eta emaztegiaren aitarenak; beste guziak ez dakite sinatzen. Castaignet-Lafitte bikotearen seme baten (Pierre, 1755-12-18) bataioan, Jeanne Michau amabitxi da, *et la marraine Jeanne Michau qui n'ont sçu signer*.

Aita, Jean Lafitte, 1773ko apirilaren 20an zendu zen, eta agirian *dit bourbouillon* aipatzen da. Ohartarazten dugu Burbouillon Urruñako etxe baten izena dela.

Seme Joanis (edo Jean), hartzailea, 1757ko abenduaren 18an zendu zen itsasoan, *en rade de Brest et au retour de Louisbourg dans le vaisseau du Roy*.

Lafitte-Michau bikotearen bertze seme bat, Filibert, Cap de Rayen ito zen 1743ko uztailearen 03an.

Jeanne Michau igorleak ez zekien idazten. Aldiz, Jean Lafitte senarrak bazekien idazten.

2.10.2. **29. gutuna (1757-03-14): Pierre d'Etchevers igorleak Pierre d'Etchevers anaiari**

A Monsieur Monsieur Pierre detchevers Mtre charpantie de navire A
Lisbourque

Fait a Siboure le 16 mars 1757

Ene anaya maitea harcen dut libertate Çury by leroren Escribatçeco Eta denbora berean gure osasunaren beria gastiatceco osasuna dugu familia Çureac Eta Eneac Ceinac baitire Çure Eta Ene aita Eta ama Eta areba ganeracoan Ene familian Ere osasuna dugu gustiec Eta Jaincoac Eman daucu fruitu bat bainan satifationecoa jcatecotx semebat galdeguiten nuben bainan aguery da Etcela Conbeny alababat Eman dauçu Jaincoac bainan hura asquy perfesiyonatuba Causitcen Caicu Jaincoary esquerac anaya Ercibitu ditut by letra oray bat Eta lehenago bertçe bat Ceinac axeguïn eguin baitçaucun Çure berien aditçeaq osasunaren partetic Eta uste nuben asqueneco letra beraren plaçan Çerory jchusico Cintudala hemen bainan aguery da Etçela Conbeny hanitx dire trabailu handiac francian vncy Eguiten particularquy bayonan Eta donibanen Ere bay Ecen donibanen Eguin ditut nic neronec Corsuçaleac nere planarecin bat bayonaco Eta berçeric hirur Edo lau asquy uncy galantac Eregueren Constricturaren planaren ganean Eta oray Ere baditut hirur Chume chantierean hasiac Eta handibat badut hasibehara Ene Contuco Eguiteco Ceinac 18 peça muntatuco baicitu anaya desiratu jcatu dut hanitxetan Çuben byen hemen Jçatea Çeren Çerbaiten Jrabasteco bide onac baitire Eta Esparanca dut Estucula horco amodioric Jçaren guehiago Eta Erretiratuco Çarela ahalic lasterena Çure familiarat ganeracoan Estautcut berçeric gomendatcen Çure Jaincoary Jarraitquitcea baicic Eta harc lagunduco Çaitu anaya Egorcen daucute aitag Eta amac picunen semiarequin Çerbait aldateco galca maripolisa athora mara galcerdy Eta Çapata Eta Ene partes Emanen dauçu martin filesen semeac Cintal Erdico baril bat nafar Eta tulicunec emaanen dausquitcu baril Çhume bat agorient Eta urdajaspibat Ene Esposaren partes Eta estucu gutis plenytu behar Ceren Cerory hanat galdeguiten baitcaitugu Eta hala Eregusituco duçu Eretiratcea Çure familiarat Eta haynitx axeguïn Eguinen duçu horen Eguitea ganeracoan salutacen Çaitut aitas amas arebas Eta Çure ahaide gusties Eta Ene Emasteac hanitx desira handia du Çure Jchusteco ganeracoan guelditcen nais Çure anaya pierre Detchevers tulicunequin Errecibituco ducu berce letra bat Enea Eta hartan Escribatuco dauquitcut berce Chetasunac

Pierre d'Etchevers azkaindarra zen sortzez, eta Ziburun ezkondu zen 1756ko otsailaren 11n Marie Hirigoyenekin. Ezkontza-agirian aipatzen da ontzi-egile zela, *maitre constructeur de navires*, azkaindarra, eta Donibanen bizi zela. Agirian haren sinadura agertzen da.

Gutunean anaiari aipatzen dio egiten ari den lanen berri *Ecen donibanen Eguin ditut nic neronec CorsuÇaleac nere planarecin*.

Eta Jaincoac Eman daucu fruitu bat bainan satifationecoa jcatecox semebat galdeguiten nuben bainan - alababat - asquy perfesiyonatuba: 1756ko azaroaren 17an sortu zen Catherine alaba.

Pierre Etchevers igorleak bazekien idazten.

2.10.3. **49. gutuna (1757?): Non idatzia: ? Francha Barere igorleak**
Pierre Hayete senarrari

Oharra: liburuan, izenburuan: “Non idatzia ?”, Ziburun, dudarik gabe. Liburuan, testuan: 48.3v (28. lerroa), *Amen*. Ene ustez, ez liteke agertu behar ”Hiztegia”n *ama* hitzaren azpian.

Monsieur Monsieur Pierre hayete maistre cordonné apresante A Louisbourf

Ene Espos maitia

Baliatçen nais Presenteco Comoitate hunaz Çuri satisfazione emateco Çenbat consolacione eta boscariorquin Causitcen naisen aditçias Çure ossasunaren berriac seiña satifatu bainaute çure ganic ereçibitu ditudan bortz Letretec, arosoiñeiquin diot haiñitz Conzolaciones bethia Causitçen naizela Çure ossasuna onaren berrien aditçia Çeren presentian Çure Presençias Landan ez bainuen desiratçen bertçe ontaçunic eta abe aberastasunic baizen çure ossasunaren satisfacionias bada nic ere satifatçen Çaitut gurias = seiña baitugu haiñitz perfecta Jaincoary esquer eta hala desiratçen nuque ene bihotz guçias çuria hala balix eta horen conserbasioniaren intençionetara Jaincoa Erecredituco dut eguin ahal deçaquedan molde diferent Guçies diçula Lehenic ossasuna izpirituala eta Guero) temporala bay diot. Lehenic izpirituala eta Guero temporala Çergatic hura gabe ez baicare arbola idor fruituric ecarsen) ez duena bat baizen seiña arbola fruituric ecarsen ez duena Condenatua baita picatçerat eta Çurat hartiquitçerat eta idia Justu huntas seguratçen Gaitu Jesus Christoc bere Evangeliguan; Compreniarasten dauqularic hitz Labur hautas gugarela arbola hura eta esbaitugu Fruitu onac ecartçen Condenatuac izaren izaren garela; eta nola Fruitu on-hequin ecarseco ez-baitugu deuseure inportantago; ossasuna izpirituala baiño hargatic desiratçen dautçut Lehenic eta Guçien gaiñetic; ossasuna ezin asqui presa-daitequen hura; seiña gabe ez baicare deusic nic baiño hobequidaquičun beçala gauça guciac harequin baditugula ez bedi beras secular aparta gure ganic guretçat haiñ inportant de perla presiata hura biçia galduco badugu ere haren sustengutan eta çhedehori ec) gure bihotzetan Vngui fincatuac baitugu, seguratuac izan bihardugu temporalian ere nola ezdaquigula abantçatuaz garen garela eta ezparantça dut eguia inportant horiec Çure bihotzian hobequi imprimatuac eta seguituac direla enian nic baiño = Guçia suprenitua nais çuc ez markhatçia deuz Etcherat etorseco Conturic non haiñitz afligitçen bainau gauça horrec; eta othoisten çaitut eguidaçun haren bertçe Atçeguain haurten etcherat etorsia Erregueren Vntcy batian munduan Posible bada = ÇureLetretan markhatçen dausquidatçun Letrade change eta bacaillau guciac ereçibitutut eta othoisten çaitut comoitate guçietan egorsias posible bada qintal bana ezen hemen ere gauça guciac Garastia dire Ezdut bada ene Vstes

çu hemen çifñenian baiño Prodigalitate gihiago eguiten baiñan den gutienic ere familiar asco bihardu çuc Vngui daquiçun beçala baiñan harçaçu Quraie haurre galant batçuen hasten hari çare eta iqusten baçintu segurnais Content çintesquela Joanis Galant Vngui eraqursen eta mesa Laguntçen ikasiric Escribatçen harida seiña Letra hau hari sinarasten diot eta nauçia haiñitz Content du; oyer guçia çure Patroiña hemenda orobat alaba Chumia = piarres millafrancarra ganic ereçibitutum 80 tt Çuc martinican çalzeco emanciñoiscan 15 sapata pareren Alderat berogoy etaborz nasos çaldu omentu, eta haren ganic ereçibitu beçain Laster Lapeirery emanioscan = harismendy ganic ereçibitutumçun Çolac Gana Dardaiganic Çiren seiña Eman baitioscat 140 tt Çhabat erotacharecoary Bertçe 140 tt gaiñeraco hehun eta hogoi Liberequin guelditçen nis ene famillareiquin etorquiçuneco Çure zocorriaren esparançan desiratçen nuquen haren Çuri Çerbeit Laguntçen Eguitia famillairen hasteco deuz esqutan izan gabe ezda deuzere irabasteo molderic eta othoisten Çaitut egorçias Lehenbico Comoitian 100 esqutuco Letrade çchange bat irabas deçadan nic ere bi illaibetetaco oguia ezparança dut orai artian beçala hemendic harat ere fagoratuco nauçula = Egortçen dausquitçut masans handiarequin barille bat nafar Vrday aspi 2 galtçardy pare belar piscabat eta biper pisca bat = Toliqunequin vrday aspi bat eltçe handi bat zahesqui horen contra maistruarequin 30 Laurdeneco baril bat agorient et galtçardy pare bat = martin Larumentequin urday aspi bat eta 30 laurdeneco barill bat agorient = Mr Daguerreri escribatçerat nua hia plaser dautçun eguin atçeguin ekarçia 40 Laudeneço barill bat Arno çuc hor pagatçeco edo nic hemen ezdaquit azetatuco duen azetatçen badarot emaren dautçu salbamendua duelaric = ene Letra batequin horiec dire nic Egor ahal dietçaquedatçun guçiac presentian desiratçen nuquen harren haiñitz gihiagoren egortçia ezin gihiago egor dieçaçquet eta Vste dut Çeronec ere comprenitçen duçula ene ahala Çenbatetarañnooa den Atorrac hemen dauscat ezin hiriscatus baiñan halere banaqui etçintesquela haurten etcherat etorr egor cinçasquet baiñan esparança horec gibelaxen nau = hemen Guelditçen nais Çu helduden Vrtian iqusteco ezparançan, Çure servitçary humilla ene bihotz guçiaz Çure ezpos fidela = Francha Barere milla goaintcy harismendic eta Gure Familia Guçiac Amen

Memorio hau Egortçen dautçut çuri satifaione Emateco oray arterañnoço gure eguitecoac nola duazen edo nola guelditçen diren gana dargain Çor guelditçen da Gatian eman Çausquitçun eta guerostic egorri Çausquitçunen (Alderat Çure ordenas 600 tt emanic arastatçen da hartçeco - 113 tt harismendic Ecarri Çauquitçun zoletaric - 031 saraco Cristuali eman dioscat çuc ordenatu beçala) 300 tt eta haren marçhandizec balio 334 tt arasta zor - 34 ezdu onic eguin nahi batere haren añaiary eman Çinioscan hemesorçy Liberaric = Plaçançhary eman nioscan çuc haren semiari Fornitu çifñoiscanen Gaiñeira 555 tt liberaco letra de change hura Contu harturic Çorda - 100 eta

bertçe Alde Ganden Vrtian biçitçeco) idequiac) 200 Presenteco hauc dire
Çure eta ene obligaçioniac - 478 tt

Casanab Chumiary Emaniguen 1500 Liberaco Letra de çange hura eguia da çure ganic ordena nuen emateco 1400 tt baiñan nola neronec Eguin bainuen 100 Liberaren obligaçonia Garniçione bat harturic eta diru batçuec idequiric sempertarraren auçïaren seguitçeco hargatic emaniosca 1500 tt

Digo Leheneco haren marçhandisetaric oraiño baduela hor Çenbeit zaltçeco haurten Egortçen dautçu toliquenequin) barica bat Çare çenbeit tresnequin eta bertçe bat Larumentequin Marçhandiçac Çuri ene Gaiñian segurtaturic egorçeco Eguindut eguin ahala baiñan ezin progoitçatu naiz çergatic mr. Laraldec es baitarot permetitu nahiçatu digoelatic bere gaiñian nahituela hiriscatu segurtatu gabe Çure Ezquetara, haguïen Jaincoac permetitçendu gu malur handiago batetaric beiraitceco Jaincoac hala permeti ditçala

Pierre Hayet, angeluarra eta Hau (edo Gau) etxearen ondokoa, Françoise Barrererekin ezkondu zen Ziburun 1744ko azaroaren 4an. Francha (edo Françoise) Barrere Ziburun sortu zen 1727ko apirilaren 24an, burasoak Jean Barrere eta Mari Martin Faget zirelarik.

Ezkontza-agirian garbiki aipatzen da senargaiak bazekiela idazten; ez, aldiz, emaztegaiak, *et non l'épouse et Martin Barrere pour ne çavoir interpellés de ce.*

Gutuna bera semeari sinarazten dio: *Joanis Galant Vngui eraqursen eta mesa Laguntçen ikasiric Escribatçen harida seiña Letra hau hari sinarasten diot.* 1746ko agorrilaren 24an sortu zen delako Joanis (bataioan, Jean).

1752ko apirilaren 8an sortu zen Oger, Pierre Hayet eta Francha Barrere bikotearen semea *oyer guçia çure Patroiña hemenda.* Oier Hayet 1775eko urtarrilaren 7an zendu zen itsasoan, *noyé à la pêche de la morue ... coup de vent.* Beste seme-alaba guziak Ziburun sortu ziren (gorago aipatuak, Jean eta Oger, eta ere Marie (1748-11-09), Martin (1750-04-08) eta Marie (1754-11-23).

Françoise Barrere igorleak ez zekien idazten. Aldiz, Pierre Hayet hartzaileak bazekien idazten.

2.11. EZEZAGUNA

2.11.1. 17. *gutuna (1757-03-09): ? Igorlea: ? – Hartzailea: Bernat Aroqi*

Oharra: liburuan, testuan, 17.1v (18. lerroan) A bertsioan *callupamasturbaencatere*; B bertsioan *kalupa masturbaentzat ere*. Ene ustez: (t)xalupaz ari da igorlea dudarik gabe. B bertsioan behar luke: *xalupa masturuaentzat ere*.

Presenteco letra hauErendatuco caigo bernat aroquiry a lurjs bourcq
Lurjsburcq

Marsoaen 9 eguina 1757

Bernat daroqui harcendut libertate hemen cer pasacen den cury adiaracteqo hortiq ethori cicaiqun berj tiristia gucq guti ustecaberi ethory ciçaiqun cure jceba goan martin coenecqoc gastigacen daucu Estaqigu Cehetassunyc gehigago baldin cuq hunat deusjq escirbattu edo gastigatu badauqucuere estugu deusic aditu allabainan cucen eta justu den becala cure baitan dugu Esparanca ene seme defuntu cena cure compainigan eedo cure Sumicygonnecoqo cenacs gerosticq otoicentcaitut cure cussina goanes defuntu cenaen jcate edo mojpgana hor gelditu denas contu edo arta jduqicias etahortic ahalic lasterena hunat hedatceas

Estebene Ecgorainez

halalaber bernat gaucabera gactigacen daucu curybelx cenaen Emastiac otoi curebaitan dubere Esparanca eta eta orobat cusina goanes defuntu cenaencat becala haren callup a masturbaenca t ere horduben moigan edo ontasunas contu eta arta bera jcatias eta Lehen ba Lehen hedaceas cure cerbicary

Ez dut aurkitu gutunean ziurtasunez non idatzia izan zen errateko frogarik. Arroqui deitura arrunta da Ipar Euskal Herrian. Baina Zuribeltzea, *curjbelex cenaen Emastiac*, Urruñako etxe baten izena dela-eta ez da ezinezkoa Urruñakoak izatea igorlea eta hartzailea. Beste daturik ez.

3. IGORLEAK

Orotara, 48 igorle agertzen dira gutunierian: 31 emazte eta 16 gizon. 17. gutunaz ez dakit zein zen igorlea ez nongoa zen ere. 36 kasutan adina ezagutzen da: 24 emazterena (batez beste, 44,1 urte) eta 12 gizonena (batez bestekoa 50,9 urte).

3.1. NONGOAK DIRA?

Parentesi artean gutun mota eta adina emana da, zombait alditan gutxi goiti-beheitikoa bada ere. Gizonen izena azpimarratua da.

Sara: 10 Catalin Lalanne (C-5 - 48); Miguel Harismendy (B-7 - 74); Martin Borda (B-10 - 53); Martin Duruty (B-14 - 63); Joannes Etcheverry (B-19 - 57); Joanna Bidart (A-22 - 55); Pierres Echeverry (B-23 - 53); Martin Etchart (G-25 - 40); Catherine Ithourriague (D-28 - 25); Marie Ithourriague (A-47 - 50)

Getaria: 8 Joanna Salla (E-13 - 55); Joanna Castillou (K-15 - 30); Marie Lamarque (A-18 - 53); Betry Daguerre (F-33 - 35); Catherine Desclaux (A-35 - 47); Joanna Duhalde (C-38 - 52); Sabadine Clauset (A-42 - 55); Joana Apendisteguy (C-43 - 30)

Donibane Lohizune: 6 Marie Darburu (H-20 - 50); Teresa Labadie (A-34 - 48); Gana haurra Fumat (A-37 - 58) - Machume Bastres (A-41 - 50); Estonta Durquiet (D-45 - 22); Marie Bordachipy (A-46 - 59)

Senpere: 6 Maria Molerres (E-6 - 40); Marie Dihins (H-11-12 - 55); Joannes Matet (B-16 - 60); Betry Etcheverry (B-24 - 57); Martin Larralde (G-30 - 57)

Ziburu: 4 Jeanne Michau (J-21 - 57); Pierre Etchevers (F-29 - 28); Marie Saint Martin (A-32 - ?); Francha Barrere (C-49 - 29)

Azkaine: 4 Marie Bortairay (J-8 - ?); Marittipo Subiet (C-27 - 50); Gachina St. Pée (I-36a - 40); Pierre Etchegaray (I-36b - ?)

Hendaia: 4 Marie Etcheverry (A-2 - ?) - Gachina Biscarrondo (D-3 +D- 4 - ?) - Gachina Diharce (C-9 - 40) - Marie Berrogain (E-26 - 60)

Bidarte: 2 Cattalin Douat (C-31 - 37); Gracianne Gorte (D-44 - 23)

Urruña: 2 Pierre Arrunde (F-1 - 34); Pierre Haraneder (G-39 - ?)

Ahetze: 2 David Borrotra (B-40 - ?); Joannes Larralde (B-48 - ?)

???: 1 ???

Gutun motak horrela sailkatzen ditugu: adibidez A-21 = A motako 21. gutuna

A: amak semeari (12); B: aitak semeari (9); C: emazteak senarrari (7); D: arrebak anaiari (5); E: adiskideak, auzoak (4); F: anaiak anaiari (3); G: osabak ilobari (3); H: amak alabari (2); I: koinatu-koinatak (2); J: kusunak (1); K: alabak aitari (1); ?: (1)

3.2. IGORLEAK, IDAZLEAK

47 igorle dira izen-deituraz identifikatuak. Horiatarik 41 kasutan badakit, -frogak «herriz herri» deitu atalean dira-, idazten zekitenak 10 zirela (3 emazte eta 7 gizon) eta idazten ez zekitenak 32 (23 emazte eta 9 gizon).

Haste-hastetik erran behar da idazten jakiteak ez duela nahitaez igorlea = idazlea ekuazioa ekartzen. Kasu batzuetan, igorleak badaki idazten, eta bere sinadura ezagutzen dut eta ez du berak gutuna egin. Adibide garbia Pierre Etcheversen kasua (29. gutuna). Bere sinadura ezagutzen dut ezkontza-agirian agertzen baita. Sinadura horrek ez du zerikusirik gutunaren «sinadurarekin». Bigarren adibidea da 21. gutunean: igorlea Jeanne Michau da, baina «sinadura» gisa, gutunaren bukaeran Jean Lafitte eta Jeanne Micho (senar-emazteak) agertzen dira. Alabaina Jean Lafittek, idazten jakin arren, ez zuen berak gutuna idatzi.

Aldiz, idazten ez zekitenek (aipatu 32 igorle horiek) ezin zuten idatzi, eta ez zuten idatzi.

Idazten zekitenak ondoko 10 izenak dira:

- 1. gutuna: Pierre (liburuan Martin) Arrunde (Urruña); iduriz, berak egin zuen gutuna.
- 14. gutuna: Martin Durruty (Sara)
- 15. gutuna: Joana Castillou (Getaria)
- 20. gutuna: Marie Darburu (Donibane Lohizune)
- 26. gutuna: Marie Berrogain (Hendaia, baina Baionan idatzia)

- 29. gutuna: Pierre Etchevers (Ziburu) (iduriz, ez zuen idatzi)
- 30. gutuna: Martin Larralde (Senpere)
- 33. gutuna: Betri Daguerre (Getaria)
- 36b gutuna: Pierre Etchegaray (Azkaine); berak egin ote zuen gutuna?
- 39. gutuna: Pierre Haraneder (Urruña)

Idazten ez zekitenak ondoko 32 hauek dira:

- 2. gutuna: Marie Etcheverry (Hendaia)
- 5. gutuna: Catalin Lalanne (Sara)
- 6. gutuna: Marie Molleres (Senpere)
- 7. gutuna: Miguel Harismendy (Sara)
- 8. gutuna: Marie Borthairy (Azkaine)
- 9. gutuna: Gachina Diharce (Hendaia)
- 10. gutuna: Martin Borda (Sara)
- 11-12. gutuna (gutun bera bi aldiz): Maria Dihins (Senpere)
- 13. gutuna: Joanna Salla (Getaria)
- 16. gutuna: Joannes Matet (Senpere)
- 18. gutuna: Marie Lamarque (Getaria)
- 19. gutuna: Joannes Etcheverry (Sara)
- 21. gutuna: Jean Michau – (Ziburu); Jean Lafitte senarra ere agertzen da «sinadura» gisa.
- 23. gutuna: Pierres Etcheverry (Sara)
- 24. gutuna: Betry Etcheberry (Senpere)
- 25. gutuna: Martin Etchart (Sara)
- 27. gutuna: Marittipo Çubiet (Azkaine)
- 31. gutuna: Catalin Douat (Bidarte)
- 32. gutuna: Marie Saint Martin (Azkaine, Ziburutik idatzia)
- 34. gutuna: Terecha Labadie (Donibane Lohizune)
- 35. gutuna: Catherine Desclaux (Getaria)
- 36a gutuna: Gachina St. Pée (Azkaine)
- 37. gutuna: Gana Haurra Fumat (Donibane Lohizune)
- 38. gutuna: Joanna Duhalde (Getaria)
- 40. gutuna: David Borotra (Ahetze)
- 41. gutuna: Machume Bastres (Donibane Lohizune)
- 42. gutuna: Sabadine Clauset (Getaria)
- 43. gutuna: Joanna Apresteguy (Getaria)
- 44. gutuna: Gracianne Gorte (Bidarte)
- 46. gutuna: Marie Bordachipy (Donibane Lohizune)
- 48. gutuna: Joannes Larralde (Ahetze)
- 49. gutuna: Francha Barrere (Ziburu)

Ez dakigu idazten ba ote zekiten 5 hauek:

- 3. eta 4. gutunak: Gacina Biscarrondo (Hendaia)
- 22. gutuna: Joanna Bidart (Sara)
- 28. gutuna: Catalina Ithurriague (Sara, Ziburutik idatzia)
- 45. gutuna: Estonta Durquiet (Donibane Lohitzune)
- 47. gutuna: Marie Ithurriague (Sara)

Ez dakigu non idatzia eta nork idatzia, 1: 17. gutuna.

4. HARTZAILEAK

Orotara, 45 hartzaile dira: 4 emazte eta 41 gizon. Adina soilik 37 kasutan ezagutzen dugu: 33 gizon (batez beste, 29,6 urte); 4 emazte (batez beste, 40,2 urte). Ondoko lerroetan nongoak ziren eta zer zuten izena ematen dut.

4.1. NONGOAK DIRA?

Parentesien artean gutuna eta adina, zombait alditan gutxi goiti-beheiti emana. Gizonen izena azpimarratua da.

Sara: 10	<u>Esteben Gourdo</u> (C-5 - 49); <u>Bernard Harismendy</u> (B-7 - 35); <u>Andreco Borda</u> (B-10 - 26); <u>Domingo Durruty</u> (B-14 - 33); <u>Joannes Etcheverry</u> (B-19 - 29); <u>Joannes Etcheto</u> (A-22 - 30); <u>Joannes Etcheverry</u> (B-23 - 23); <u>Joannes Etcheverry</u> (G-25 - 20); <u>Gabriel Ithurriague</u> (D-28 - 23); <u>Estebe Etchegaray</u> (A-47 - 19)
Donibane Lohizune: 6	<u>Marie Duhalde</u> (H-20 - 25); <u>Joanis Dupuy</u> (A-34 - 18); <u>Adrien Salla</u> (A-37 - 25); <u>Esteben Lafontaine</u> (A-41 - 30); <u>Martin Durquieit</u> (D-45 - 25); <u>Pierre Lahitun</u> (A-46 - 27)
Senpere (5 gutun): 6	<u>Bitor & Bernat Farandiet</u> (E-6 - 29 eta 25); <u>Haurra Maria Hiriart</u> (H11/H12 - 26) (gutun bera bi aldiz); <u>Joannes Matet</u> (B-16 - 27); <u>Joannes Etcheberry</u> (B-24 - 23); <u>Saint Martin Duronea</u> (G-30 - 27)
Getaria: 5	<u>Jean Castillou</u> (E-13/K-15/C-38 -53) (3 gutun, <u>Bernat Dupouy</u> (A-18 - 4); <u>Martincho Daguerre</u> (F-33 - 37); <u>Martin Heuty</u> (A-35 - 23); <u>Martin Arango</u> (A-42/C-43 - 31) (2 gutun)
Hendaia: 4	<u>Pierre Daguerre</u> (A-2 - ?); <u>Patchiqu Biscarrondo</u> (D-3 - ?); <u>Martin Josepe Biscarrondo</u> (D-4 - ?); <u>Joannes Hiraburu</u> (C-9 - ?)
Azkaine: 4	<u>Joannes Hiribarren</u> (J-8 - ?); <u>Laurens Perusqui</u> (C-27 - 55); <u>Joanis Diharce</u> (A-32 - ?); <u>Catherine Gelos</u> (I-36a/I-36b - 45) (2 gutun)
Ziburu: 3	<u>Joanis Lafitte</u> (A-21 - 23); <u>Pierre Detchevers</u> (F-29 - 23); <u>Joanis Diharce</u> (A-32 - ? - Ziburutik idatzia); <u>Pierre Hayet</u> (G-49 - 33)
Bidarte: 1+2	<u>Catherine Laborde</u> (Baionatik idatzia) (E-26 - 65); <u>Pierre Lartigue</u> (C-31 - 27); <u>Dominique Gorte</u> (D-44 - 21)
Urruña: 2	<u>Martin Arrunde</u> (F-1 - 25); <u>Pierre Etchegoyen</u> (G-39 - 29)
Ahetze: 2	<u>Martin Borotra</u> (B-40 - ?); <u>Betry Larralde</u> (B-48 - ?)
???: 1	<u>Bernat Aroqi</u> (? - ?)

4.2. NON DIRA?

Oharra: distantziak lerro zuzenean hartuak dira.

Louisbourg: 38	Louisbourg (18. gutunean aipatzen da « <i>La presente lettre soite reandeu a Bernat de Lupoy çhentiqa a Louisbourg</i> »; iduriz, <i>çhentiqa</i> (oraiko Chéticamp) egona lehenago eta izengoiti gisa erabilia.
Niganiche: 4	« <i>innaniz</i> », « <i>inanis</i> », « <i>niganisch</i> ». Oraingo Ingonish, Louisbourgetik 100 km ingurura (Joanis Lafitte ziburutarra – Joannes Etcheto saratarra - Martin Etchart saratarra - Betry Larralde aheztarra)
Quebec: 2	« <i>chebec</i> ». Louisbourgetik 840 km ingurura (Bitor & Bernat Farandiet senpertarrak)
Labrador: 1	« <i>larbador</i> ». Red Bay izan daiteke, Louisbourg-etik 720 km.
Percebiac: 1	(Andreco Borda saratarra) « <i>en terre neuve a percibiac</i> ». Egiazki ez da Ternuan Gaspésie deitu tokian baizik. Louisbourgetik 450 km ingurura (Martin Daguerre getariarra)

4.3. OFIZIOAK

28 kasutan (24 gizon eta 4 emazte) ez da ofiziorik aipatzen; pentsa daiteke gizon gehienak itsasgizonak zirela, eta emazteak, menturaz, zerbitzariak ala ofiziorik gabeak.

- 10 itsasgizon: 9 *marinier* edo *matelot* ekarriak; 1 ontzi-kapitain.
- 2 ontzi-maiasturu *charpantie marein*, *charpantie de navire*.
- 2 *maitre de grabe*; bakailoaren gatzatze eta idortze prozesuaren arduradunak.
- 1 zurgin *chanpartier et menuisier*. Iduriz, lanik gabea: *aditu dugu nola etçaren oraino plaçatua*.
- 1 zapatagin *maitre cordonnié*.
- 1 mutil (*pour Remettre a martin Borrotra son garson*).

5. IPAR EUSKAL HERRIKO HERRITARREN ALFABETATZE MAILAZ

«*Le Dauphin* itsasontziko gutuneria (1757) edo euskararen historia behetik» atalean, *Lapurdumen* 45-77 orrialdeetan, Manuel Padillak defendatzen duenaz ene iritzia ematen dut ondoko lerroetan.

5.1. LAPURTARRAK, ALFABETATUAK XVIII. MENDEAN?

Padillaren aipamenak:

Lehenik, argia ematen dielako populu xumearen epistola usantzei eta, oro har, XVIII. mendeko lapurtarrek zuten euskaraz idazteko ohiturari (45. or.)

Bildumako gutun gehienek eskemarik sinpleen honi obeditzen diote: pertsona batek luma har, eta bere mezua papereratzten du, bere buruari diktatuz (55. or.)

Guztiarekin ere anitz gutun, beharbada erdia baino gehiago, norik bere buruari diktatuz eginak izan ziren. Idazlarien aurkikuntzak, beraz, ez du kentzen garai hartan Iparraldeko euskal herrietako biztanleriaren zati handi bat alfabetatua izatea. Gehiago dena, ez dugu asumitzen gutun idaztea beste norbaiten esku uzten zutenak oro alfabetatugabeak izan litezen (59. or.)

Le Dauphineko igorle gehienak alfabetatuak ziren, kasu anitzetan populu xumeko kideak izanda ere. Oro har, beren desir, emozio eta izuak adierazten zituzten langile jendeak ditugu. Louisbourgen zeuden marinelen familiak eta adiskideak. Halako jende apala euskaraz izkribatzeko gai izateak Oyharçabalen tesiak (2001a; 2001b) bermatzen ditu: XVII. eta XVIII. mendeetan Akitaniako euskal herrietan bazen euskarazko alfabetatze sistema bat (60-61.or.)

Batetik, emazteek igorleen artean duten pisu handia, menturaz, uste genuen baino, alfabetatze femenino hedatuago batez mintzo da (73. or.)

Padillak aurreko pasarteetan babesten dituen zenbait ideia ez datoz bat eskuratu ditudan datu dokumentalekin.

Beñat Oihartzabalen bi artikulua (ikus bibliografian) ditu gogoan Padillak baina eskuratu ditudan datu dokumentazioek besterik diote:

- Genealogian erabiltzen diren teknika edo dokumentuak aztertzea nahikoa da uste horren oinarri gabezia egiaztatzeko. Gutitan aurkitzen dira sinadurak, eta emazteenak beti gizonenak baino kopuru ttipiagoetan.

- Erretoreen -eta bikarioen- esku zen bataio, ezkontza eta ehorzketen agirien egitea. Ezkontza gehienetan, senargaia, emaztegaia eta bien burasoak presente dira, burasoen onarpena behar baita ezkontza egiteko. Baina zombait ezkontzatan burasoetarik bat falta da, edo bat baino gehiago, zendua delakoz edo zenduak direlakoz. Beharrezkoak dira ere lekukoak, gehienetan lau; lekukoak dira ahaide hurbil edo adiskide, baina baita ere jende ospetsuak. Lekuko gehienak gizonak dira. Ezkontza-agirietan, apezak aipatzen du zein diren sinatzaileak eta zein diren sinatzen ez dutenak. Eta garbiki erraten du apezak zein den arrazoa: ez dakite. Eta agiriaren azken partean agertzen dira sinadurak, zombait kasutan soilik apezarena.
- Ahalaren arabera -zombait urtetako agiriak falta dira, eta zombait herritan ez da agiririk-, egin dudan azterketako zenbakiak argigarriak dira. Ezkontzak aztertu ditut eta ezkontide sinatzaileen kopurua agerian eman:

Herria	Urteak	Ezkontzak	Senargai sinatzaileak	Emaztegai sinatzaileak
Bidarte	1748/1760	91	33 (% 36,26)	9 (% 9,89)
Donibane Lohizune	1751/1754 1755/1756	117 26	58 (% 49,57) 26 (% 59,09)	25 (% 21,36) 10 (% 22,72)
Getaria	1748/1763	48	15 (% 31,25)	3 (% 6,25)
Hendaia	1757/1777	57	17 (% 29,82)	5 (% 8,77)
Sara	1759/1790 1762/1763 1768/1769 1771	95	26 (% 27,36)	7 (% 7,36)
Senpere	1738/1746 1747/1754	100 79	12 (% 12,00) 11 (% 15,19)	1 (% 1,00) 1 (% 1,26)
Urruña	1755/1759	47	11 (% 23,40)	7 (% 14,89)
Ziburu	1753/1759	108	43 (% 39,21)	21 (% 19,44)

Bestalde, argigarri direlakoan, bi notario-agiri aipatuko ditut:

- 3E9623, 621-628. or.; Getarian egina, 1756ko uztailearen 23an, Michel Garrin notarioaren aitzinean. Bertan 35 jende dira aipatuak. Horietarik 29, gutuneriako 10 herrietakoak, 16 gizon eta 19 emazte. Gizonetan 6 sinadura (% 31,25); emazteetan 0 sinadura.
- 3E9623, 589-600 or.; Bidarten egina, 1759ko uztailearen 13an, Michel Garrin notarioaren aitzinean. Bertan 47 jende dira aipatuak. Horietarik 39, gutuneriako 10 herrietakoak, 19 gizon eta 28 emazte. Gizonetan 7 sinadura (% 36,8); emazteetan sinadura bat (% 3,57).

Bildutako datuek erakusten dutena hauxe da: desberdintasun handiak badaude herri ttipi eta hirien artean, eta kasu guzietan emazteen kopuruak apalagoak dira.

Baina gure kasu zehatzetara jautsiz, zenbakiak erabat garbiak dira: 48 igorleetatik, 47 kasutan, izen-deiturak ezagunak dira.

47 igorle identifikatuetan (31 emazte eta 16 gizon), 5 kasutan (guziak emazteak) ez dut jakin idazten ba ote zekiten ala ez zekiten. Baina bai 42 kasutan (26 emazte, 16 gizon).

42 jende horietarik bazekiten idazten 3 emaztek eta 7 gizonek (orotara 10 igorle, % 23,81), eta ez zekiten 23 emaztek eta 9 gizonek (orotara, 32 igorle, % 74,19).

Eta emazteak eta gizonak bereizirik harturik, emazte horien % 88,46k ez zekien idazten eta gizon horien artean % 56,25ek.

5.2. LAPURTAR EMAZTEAK EUSKAL IDAZLE XVIII. MENDEAN?

Galderari datuek garbiki erantzuten diote: zati handi batean, ez.

Zer erran Manuel Padillak horrelakoak erraten dituelarik, besteak beste, 49. gutunaren «idazleari» buruz, “Francha Barrerez, *emazteki honek hizkuntza idatziaren errejistro gorenen ezagutza erakusten baitu*” (65. or.) edo “*Lapurdiko emazte kulto honek zein testuak irakur zitzakeen*” (66. or.), edo “*Guztiagatik, idoki daiteke Barrere andereak idaztearen esperientzia zuela, bere egunerokotasunean ongi errotua ere*” (67. or.), jakinez, egiaztatu dudan bezala, Francha Barrerek ez zekiela idazten?

Gutunari fidatuz, Manuel Padillak laudorioak egiten dizkio ustezko egileari, dudarik gabe, Francha Barrereren egiletza alde batera utzirik, egiazko idazle ezezagunarentzat izan behar liratekeenak. Egiazko egile hori (menturaz apez bat) zein den jakin gabe gelditzen gara oraingoz.

Bestalde, gogoeta batzuk egin behar ditut emazte igorleei buruz. Louisbourg hirian ziren euskaldunen gehiengoa gizona zen, dudarik gabe. Familia guti batzuk kendurik, bertze guziak epealdi laburretara joan itsasgizonak ziren.

«Hartzaileak» deitu atalean ikusten denez, 45 hartzaile ezagunetarik 4 dira emazteak eta 41 gizonak.

4 emazteen artean, badira bi gazte: Haurra Maria Hiriart senpertia, 26 urte (11-12. gutuna) eta Marie Duhalde, donibandarra, 25 urte (20. gutuna).

Besteak, iduriz, Louisbourgen instalatuak dira: Catherine Gelos bidartarra, 45 urte ingurukoa, Jean St. Pée azkaindar kapitaina hilez geroz Louisbourgen bizi dena, eta Laborde familiari hurbila (36a eta 36b gutunak) eta Catherine Laborde bidartarra, 65 urte inguru, Jean Laborde-ren arreba (26. gutuna).

41 gizon hartzaileen arteko 33ren batez besteko adina -gehienetan zehazki ezagutua, besteetan gutxi goiti-beheiti emana-, 29,6 urtekoa da.

Gutun motak ikus ditzagun:

A: amak semeari (12); B: aitak semeari (9); C: emazteak senarrari (7); D: arrebak anaiari (5); E: adiskideak, auzoak (3); F: anaiak anaiari (3); G: osabak ilobari (3); H: amak alabari (2); I: koinatu-koinatak (2); J: kusunak (1); K: alabak aitari (1); ?: ? (1).

Horra zein diren A motako gutunen 12 igorleatarik ezagunak diren 10ak:

- Marie Lamarque donibandarra (Getariatik), eta, gutunean aipatu bezala, alargundua. (18. gutuna)
- Joanna Bidart saratarra, alargundua ere *Ceren nihor gabe Causicen baicara Catalin eta bibioc* (22. gutuna)
- Marie St. Martin azkaindarra (Ziburutik); senarra bizi da (32. gutuna)
- Teresa Labadie donibandarra; iduriz alargundua (34. gutuna)
- Catherine Desclaux getariarra; alargundua (35. gutuna)
- Gana Haurra Fumat donibandarra; (37. gutuna)
- Machume Bastres donibandarra; alargundua (41. gutuna)
- Sabadine Clauset getariarra; senarra eri (1758an zendua) (42. gutuna)
- Maria Bordachipi donibandarra; alargundua (46. gutuna)
- Marie Diturriague saratarra; senarra bizi da (47. gutuna)

Gehienak alargunduak dira. Semeak urrun, etxean miseria, bidezkoa da horiek igorleak izatea, ardua semea *erresurtza* bakarra baita.

5.3. LAPURTAR HERRI XUMEA EUSKAL IDAZLE?

Padillaren lanean behin baino gehiagotan aipatzen da herri xumea zela idazle Lapurdin:

Lehenik, argia ematen dielako populu xumearen epistola usantzei eta, oro har, XVIII. mendeko lapurtarrek zuten euskaraz idazteko ohiturari (45. or.) edo Le Dauphineko igorle gehienak alfabetatuak ziren, kasu anitzetan populu xumeko kideak izanda ere. Oro har, beren desir, emozio eta izuak adierazten zituzten

langile jendeak ditugu. Louisbourgen zeuden marinelen familiak eta adiskideak. Halako jende apala euskaraz izkribatzeko gai izateak Oyharçabalen tesiak (2001a; 2001b) bermatzen ditu: XVII. eta XVIII. mendeetan Akitaniako euskal herrietan bazen euskarazko alfabetatze sistema bat (60-61. or.). Azpimarrak eneak dira, ez Padillarenak.

Horri buruz badut erratekorik. Hasteko ikus dezagun emazteen kasua:

31 emaztetarik 5 dira idazteari buruz daturik gabeak. Datuetan oinarriturik badakigu idazten ez zekitenak 23 zirela, eta zekitenak 3. Hiru horien kasuak aztertuz geroz, gauza ageria da Maria Darburu (20. gutunaren igorlea) eta Maria Berrogain (26. gutuna) ez zirela jende xumeak edo langileak, aberats klasekoak baino. Joanna Castillou (15. gutuna) Getaria Xuhurrarenea etxeko ondokoa zen.

Gizonen kasuan, 16 gizonetarik, datuetan oinarriturik, badakigu idazten ez zekitenak 9 zirela eta zekitenak 7. Horra zekitenen artean zonbait datu:

- Pierre Arrunde (1. gutuna): datu sozioekonomikorik ez.
- Martin Durruty (14. gutuna): Sara Olabideko nagusia.
- Pierre Etchevers (29. gutuna): ontzi-maiasturu eta itsasontzi askoren egile gisa mintzo da, eta ofizio bereko anaiari erraten dio baduela harentzat ere lana. Ez da, beraz, jende xumeetarik.
- Martin Larralde Senpere Bastidagerreko nagusia, eta familiaz jende aberatsekin gurutzatua, ez da jende xumeetarik.
- Betry Daguerre (33. gutuna): ontzi-kapitaina zen, eta ez jende xumeetarik. Emaztea eriturik haurra *unidetan* emana zuten.
- Pierre Etchegaray (36b. gutuna): ez zen maila sozioekonomiko apalekoa: ontzi-maiasturua zen eta Baionan ari zen lanean, eta, orobat, Donibanen; semea eskolan emana zuten Baionan.
- Pierre Haraneder apeza (39. gutuna). Apezen kasu gehienetan bezala Haraneder ez zitekeen jende xumeetarik.

Orotara, 10 igorleetarik 7 (2 emazte eta 5 gizon) maila sozioekonomiko handikoak ziren. Bertze hiruren kasuetan ez dut heien maila sozioekonomikoari buruzko daturik, nahiz biga (gizon bat eta emazte bat) etxeko nagusiak ziren.

Oro har, ezkontza-agiriek erakusten dutena da alfabetatze-tasa handiagoa zela goi-klasetan beherekoetan baino, eta handiagoa ere gizonetan emazteetan baino.

Gauzak argiturik, ez da batere dudarik euskara biziki erabilia zela, eta nahiz irakurtzen edo izkiriartzen ez jakin, euskara bera zela bertako askoren hizkuntza bakarra. Argigarri zaizkigu bi kasu:

- 26. gutuna; Marie Berrogain hendaiar emazte aberatsak, Baionatik, Catherine Laborderi (Louisbourgen bizi zen adiskide, hau ere, aberatsari) egin gutuna. Kasu honetan igorlea eta hartzailea jende aberatsak dira.
- 49. gutuna; Francha Barrerek Pierre Hayet angeluarra den senarrari (Louisbourg-en zapatagina denari) egin gutuna. Jakina da angeluarren euskalduntasuna ukatua izaten dela gehienetan. Kasu honetan, Ziburura ezkondu zen Pierre Hayet, 1744. urtean. Ziburura etorri-eta ikasi ote zuen euskara, ala Angelun ikasia zuen? Dena den, gutunean, luze-zabal emanak dira zapataginak bururatu gabe utzi zituen arazo ekonomiko eta praktikoen azken berriak eta xehetasunak.

6. ITSASGIZONEN BIZITZA LABURRA

Euskal Herriko itsasgizonak, hastapenetik eta luzaz, arrantzaleak eta balea-ehiztariak izan dira. Nabigazio-teknikak eta ontzigintza biziki garatuak izan ziren Euskal Herrian.

Ondorioz, merkataritza izan da euskal itsasgizonen bigarren aktibitate nagusia. Gerla denboretan arrantza eta merkataritza zailagoak ziren. Euskal Herrian agintzen zuten bi estatuen gorabeheren arabera moldatu behar ziren euskal itsasgizonak. Ezaguna da Hego Euskal Herriko itsasgizon batzuen parte-hartze zinez handia Espainiako hainbat konkista eta kolonizazio gertaeretan. Ipar Euskal Herrian, gerla denboretan, itsasgizon anitz ari izan dira Frantziaren alde Erregeren ontzietan eta gehiago oraino kortsu-ontzietan.

Itsasgizonen hilkortasun tasa beti izan da, orokorrean, biziki handia. Heriotzetan batez besteko adina 30 urtetik azpikoa da, beste ofizioetako jendea baino 20 urte inguru apalagoa (Sarako datuak). Marinelek ez zekiten igeri egiten; uretara erortzearen ondorioa, gehienetan, heriotza zen.

Gerla denborak desberdinak ziren. Gure gutuneria egina izan zen urteetan, gerla denbora zen: Zazpi Urtetako Gerla deitua jada 1756an hasia zen. Baina 1758ko uztailean ondorio handiak ukanen zituen gertakaria izan zen. Louisbourg hiria anglesen eskuetara pasatu zen eta bertako biztanleria kanporatua. Hain zuzen, gutunen hartzaile gehienak, 38 orotara, Louisbourgen ziren, eta beste 5 uharte berean (*Isle Royale*, oraingo Cap Breton). Gerla eta gerlaren ondorioak bete-betean harrapatu zituen bertan ziren euskaldunak, eta hori argiki ikusten da hainbat gutunetan.

Ipar Euskal Herrian, itsasorako deia handiagotu zen. Ohi baino jende gehiago itsasoratu zen; arrantzan ezin egin eta arrantzaleak eta arrantzaleak ez zirenak ere gerlara. 44. gutunean azaltzen zen bezala: *nahidubenac martchantean 60 libera jlabetean Eta chortçurat hilabetenentça 150 libera*. Xabier Lamikizek argiki erakusten du “*Le Dauphin* itsasontziaren testuinguru historikoa: Louisbourgeko euskaldunak, ekonomia atlantiarra eta gerra (1713-1758)” lanean, eta, batez ere, 3. atalean: “Kortsuaren erakarmena eta arriskua”.

Eta, hain zuzen, arriskuak biderkatu ziren. Lehenik, itsasgizonen garrantziaz bi hitz: ez da gauza bera gertatzen, adibidez, Getarian eta Saran. Getaria herriak 142 hektareako eremua du, eta Sarak 5.150ekoa. Begi bistakoa da Getarian ziren etxeak (100 inguru) ez zirela, parte handi batean, laborantza-hazkuntzatik bizi. XIX. mendean laborantza-hazkuntza etxaldeak 26 ziren, gehienak Plaza deitu auzoan, elizatik hurbil. Jende gehiena itsasotik bizi zen.

XVIII. mendean, gutuneria egina izan zen denboran, zenbaki horiek berdintsuak zitezkeen.

Arras desberdina zen Sara: 300 etxe baino gehiago, gehienak laborantza-hazkuntzari emanak; halere, bazen jende, % 15 baino gehiago, itsas lanetan ari zena, nahiz kasu batzuetan laborantza eremu ttipiko etxaldeetan bizi.

Gutunerian aipatzen diren herrietan, erran daiteke Ahetze eta Getaria zirela orduan itsasgizon gutien eta gehieneko herriak (A. Lassus jaunaren datuak). Eta, naski, itsasgizonen heriotzak araberakoak ziren. Halere, 1758. urteko heriotzak ikertu ditugu zombait herritan: gutuneria egina izan zen ondoko urtea da. Louisbourg utzi beharra, itzuli beharra aipatzen baita:

- Donibane Lohizunen, 1758ko 97 heriotzetan, itsasgizonenak 30 izan ziren, (% 31).
- Bidarten, 1758ko 41 heriotzetan, itsasgizonenak 18 izan ziren, (% 43,90).
- Getarian, 1758ko 15 heriotzetan, itsasgizonenak 10 izan ziren, (% 66,6).
- Saran, 1758ko 113 heriotzetan, itsasgizonenak 41 izan ziren, (% 36,28).
- Urruñan, 1758ko 77 heriotzetan, itsasgizonenak 34 izan ziren, (% 44,15).

Heriotza horietako itsasgizonen ehunekoak biziki handiak ziren, urte «normaletakoak» baino anitzez handiagoak. Zendu zirenen artean anitz ziren, anglesek preso harturik, ospitaletan edo presondegietan hil zirenak. Anitz ere, Louisbourgeko itzulera bidaian zenduak. Bidartar bat anglesek hil zuten Louisbourg hiria eskuratu zutelarik.

Bidarteko kasuan, 12 itsasgizonen adina zehazki emana zen (horien artean, 14 urteko mutiko bat), batez besteko adina 27,41 urte zelarik.

Sarako 38koen adina (zehazki emana dena), batez bestekoa: 31,65 urte.

7. 1757KO LAPURDIZ OHAR BATZUK

Orai artekoak ibilbide baten ondorioak dira. Ibilbidea, hain zuzen, *Lapurdumen* irakurketarekin abiatzen da. Irakurketa gogoangarria: 1757ko Lapurdiko kostaldea, eta kostaldearekin lotura duten herri zombaiten historiara hurbildu nauena, eta hori, harrigarriki, euskararen bidez, 1757an idatzi 50 euskal gutunen bidez. Gorago aipatu dut liburu hori enetzat berri on bat izan zela, eta hala da, baina ondorengoek, nik topatu ditudanek, historia osatu dute eta nolazpait gorpuztu. Horrela, mende horretako lapurtarren bizia buruzko gogoeta zombait egin nahi nituzke.

7.1. LAPURDIKO JENDE GEHIENA BIZIKI HERTSIKI BIZI ZEN

Laborantza eremuetan, etxaldeak gehienetan txikiak ziren, lurra ez aberatsa eta jatekoa doi-doa. Bistan da herri bakoitzean bazirela zombait aberats, etxalde handien jabe edo zombait etxalderen jabe, biziki ongi bizi zirenak, eta, batez beste, familia handiki batzuen eskuetan zen herrietako boterea eta ordezkartza ere. Jende xumeak ez zuen ondarrerik, eta bizia uztaren arabera zen, ez beti ona. Uzta eskasaren ondorioz, eritasunak eta miseria nagusi, eta heriotzen kopurua gora. Mendia zuten herriek, menturaz, segurtasun handiagoa zuten.

Itsasoa zen kostatar gehien bizi, eta hor ere, sasoiaren arabera zen bizimoldea. Kostaldean ere baziren aberatsak, eta, partikularzki, Donibane inguruan, armadore-merkatari burgesia oparoa. Bertzeak itsasgizonak ziren. Horien artean baziren itsasgizon soilak, baita ere ontzi-kapitainak, gehienetan eskolatuak. Oro har, batzuk nola bertzeak egunean-egunean bizi ziren, irabazien arabera; batzuk aberats gisa eta bertzeak justuago, baina ondarrerik metatu gabe. Gerlarik ez zelarik, itsasgizonek gutiago irabazten zuten, eta urtearen erdia arrantzan egiten zuten eta bertze erdia etxean.

Etsenplu batek argitzen du gorago aipatu duguna, hots, itsasgizonak egunean-egunean bizi zirela. Ez da dudarik Pierre Duhalde-Mari Darburu (20. gutuna) bikotea eta familia ongi bizi izan zela senarra, ontzi-kapitaina, bizi zelarik. 1745ean zendurik, familian ez da dirurik lehen bezala, eta gutunean ematen diren berriek hori frogatzen dute: alaba Marie Duhalde Louisbourgen zerbitzari; seme Dominique, 13 urte ez zituelarik kortsurat abian.

Gerla denboretan dena aldatzen zen: irabaziak anitzez handiagoak ziren. Itsasoan denbora gehiago egiten zuten eta etxeokak diru-igortzearen beha. Gutun gehien hartzailak kanpoan ziren zombait urte itzuli gabe egonik (bertze batzuk bertan bizi ziren). Dirua zen familietako kezkarik handiena eta hori aski nabarmendua da gutun anitzetan.

7.2. ELKARREN BERRI ETA EUSKARAREN ERABILPENA

Lapurtarren zati handi bat elebakarra zen, euskara baizik ez zekien.

Le Dauphin ontziaren gutunerian garbiki agertzen da gutuna urruneko komunikazioaren oinarria zela. Hain zuzen, 50 gutunetarik 35etan aipatzen dira bertze gutunen kontuak. Zonbait aldiz igorleek berek igorriak eta ez beti hartuak, baita ere hartzaileek igorriak. Kasu batzuetan gutun bakarra aipatzen da, baina bada ere bertzerik:

11. gutunean aipatua da: *Diharci Vicarioari jsquiriatu jçatu dioçun Letra ceinetan marquatcen baitcinioen seigarren aldia cindubela eta datatuba baitcen goanden abendoaren hamaseian, bai eta guerorrec ere errecibitu dugu cure letra..* Igorlea zen Maria Dihins senpertarra eta hartzailea, Diharce bikarioari sei alditan idatzi ziona, haren alaba Haurra Maria Hiriart.

15. gutunean, Joanna Castellou igorleak Jean Castellou aitari erraten dio: *Goanden urthian egori darosquitcut corciletra Eta Estaquit jçatu othe ducun batere.*

20. gutunean, Maria Darburu igorleak Marie Duhalde alabari aipatzen dio: *nic eguin dausquinat beti unsi gusietan letrac et hic es jsatu estun beras ene faltaric egori dinat bat lanxecaneturequin bersea hire cusina defuntubarequin ... eta berce bi letra patineneco siburuco premubarequin.*

29. gutunean, Pierre Etchevers igorleak Pierre Etchevers anaiari: *anaya Ercibitu ditut by letra oray bat Eta lehenago berçe bat... tulicunequin Erecebituco ducu berce letra bat Enea eta hartan Escribatuco dauzquitcut berce Chehetasunac.*

31. gutunean, Catalin Douat igorleak Pierre Lartigue senarrari: *Cuc egori letra gainda... eta bi letra errecibitutut behar orduban eguin dautcut anitz Letra eta Cuc batere... eguitentut Biltra bentan bat espada bertcea aguiian aribatucodela.*

38. gutunean, Joana Duhalde igorleak Jean Castellou senarrari: *Egun Erecibitudugu Cure letra francian gaindi letra sangia barnian baina aurthen Estugu jsatu Cure letrariq batere bia baiciq Eta heq letra sanjaq barnian Eta guq Egiten ditugu qomoditate gucietan letraq.*

44. gutunean, Gratianne Gorte igorleak Dominique Gorte anaiari: *hirur letra jçatu ditugu Eta nic Egorridut lehen bat amac biia eta connatac bat Eta orai hirur bat banna bat marsanç handiarequin Eta bertçe bat larrametequin Eta berçebbat tulliquinnequin.*

47. gutunean, Marie Ithourriague igorleak Estebe Etchegaray semeari: *errecibitout coubeq egori gouciaq couben erpousta batian oungi pena senticendout coubeq ene letrariq es errecibiceas estaene falta haur maitia esta ouciriq partitou*

non estoudan escribatou ene familiaren beriaq damou dout ceren estoucoun erecibitou coure letren erepoustaq.

49. gutunean, Brancha Barrere igorleak Pierre Hayet senarrari: *seiña satifatu bainaute çure ganic ereçibitu ditudan bortz Letretec.*

Le Dauphin ontziak eramaki zuen gutuneria ez zen zerbait harrigarria. Bertze anitz ontzik ere bideratzen zituzten, zentzu batean eta bertzean, ehunka eta milaka gutunak, zoritxarrez, ezagutzen ez ditugunak.

Horren frogak dira hainbat eta hainbat hileta-elizkizunetan aipatzen ziren gutunak. Adibidez, Saran 1754ko urriaren 26an, Etienne Finondo aipatzen da, *noyé à Niganich en TN suivant les lettres du premier septembre écrites du même port par Martin Etchart*, ala, Saran ere, 1757ko urtarrilaren 21ean, Miguel Daguerre, *mort à Quebec suivant la lettre de Joannes Larralde à sa femme Marie Belescabiet.*

1753-1758 urteetan, Saran, zenbatu ditugu 31 gutun, agirietan aipatuak. Gutun horiek euskaraz eginak ote? Ez dakigu baina pentsa daiteke parte handi batez euskaraz eginak zirela. Idazlariak, beraz, Euskal Herrian baziren, baita Louisbourgen ere.

8. FAMILIA BATEN HISTORIA

Irakurleak 26. gutunaren transkripzioa 2. atalean aurkituko du.

8.1. FAMILIAREN KONPOSAKETA

- Jean Etcheto, 1747ko urtarrilaren 12an zendua, 60 urtetan; 1686 inguruan sortua, (menturaz Ziburun).
- Marie Berrogain, Hendaian sortua, 1685-1690 urte inguruan. Iduriz, Miguel de Berrogainen alaba.
- Miguel Berrogain 1678. urtean “Berrogaigeneña” etxeko jauna (A. Lassus).
- Ezkontza Hendaian 1718. urte inguruan izan zen eta ezkontza-ituna egina izan zen.

Seme-alabak izan zituzten:

- Marie Detcheto 1718-1719an Hendaian sortua.
- Jean Detcheto 1719ko abenduaren 8an Akizen sortua.
- Martin Detcheto 1721eko urriaren 28an Akizen sortua (menturaz laster hila).
- Jean Baptiste Detcheto 1722-1726 inguruan sortua.
- Marie Detcheto 1730eko uztailaren 14an Akizen sortua (menturaz laster hila).
- Marie (Poupponne) Detcheto 1731ko urriaren 10ean Akizen sortua.

Jean Etcheto eta Marie Berrogain (Hendaian sortua) senar-emazteak Baionan bizi ziren senarra hil zelarik 1747ko urtarrilaren 2an. Heriotza-agirian aipatzen da Jean Etcheto merkataria zela, *marchand*, 60 urte zituela eta Marhum etxean zendu zela, *dans la maison de marhum quartier de Lachepaillet*.

Bataio-agirietan aipatzen da Jean Detcheto merkataria zela, *marchand*, eta 1719ko abenduaren 8ko bataio-agirian *marchand d'eau de vie*. Akizeko bataio batean (1723-12-03) Jean Detcheto aitabitxi da, eta ofizioz *faiseur d'eau de vie*.

Bataio-agiri guzietan Jean Detchetoren sinadura agertzen da. 1721eko urriaren 28ko bataioan aitabitxia Martin Detcheto ziburutar bat da. Menturaz, bada, Detcheto horiek Ziburukoak ziren.

8.2. FAMILIA BAIONAN, ALABA ZAHARRAREN EZKONTZAK

Detcheto-Berrogain familia, beraz, luzaz Akizen bizi izana (1719-1732 urteetan, gutienez), Baionan agertzen da lehen aldiz 1741ean, baina ezin jakin zehazki noiz joan ziren hiri horretara, ez eta ere zoin etxetan bizi izan ziren. Iduriz, Jean Detcheto alabaren Marhum izeneko etxera joan zen hil aitzin, bertan zendu baitzen.

8.2.1. 1741eko agorrilaren 22ko ezkontza-agirian emaztegaia Marie Detcheto da, *notre paroissienne fille de Sr Jean Detcheto et Marie Berrogain*. Senargaia, Pierre Saint Genes, *veuf, bourgeois et negociant de cette ville*. Erran behar da Pierre Saint Genes hil zelarik (1745-09-14) aipatua dela 72 urte zituela. Ezkontza egunean, beraz 68 urte zituen eta emaztegaia 22. Pierre Saint Genesen lehen ezkontza 1700eko otsailaren 16an gertatu zen; emaztea, Marie Casenave, 1733ko abenduaren 13an hil zen 57 urte zituelarik.

Ezkontza honek gogora ekartzen du *Amak ezkondu ninduen* kantu ezaguna:

*Neska, ixilik hago,
 aberatsa dun hori
 aberatsa dun hori.
 Nola hala igaro,
 urte bat edo bi,
 laster hilko dun eta
 biziko haiz ongi
 biziko haiz ongi.*

8.2.2. 1741eko urriaren 30ean Jean-Leon Barroilhet notarioaren aitzinean egin zuten ezkontza-ituna (3E3239, 368. or.). Harrigarria: ezkontza-ituna BETI ezkontza bera baino lehenago egiten da, eta bi parteak, gehienetan, bi ezkontideen burasoak dira; kasu honetan, bi hilabete eta zortzi egun ezkondu ondoren. Marhum etxean egina da, *dans la maison de L'héritage de Marhum appartenant à Sieur Pierre Saint Genes Bourgeois et Negociant de la Ville de Bayonne*, alde batetik, Pierre Saint Genes eta Marie Detcheto haren emaztea, eta, bertzetik, Jean Detcheto, *aussy negociant* eta haren emazte Marie Berrogain, *conjoints habitant aud. Bayonne*. Baionan bizi zirela aipatzen da, baina ez bertzerik. Agiri horretan aipatzen da senarrak 12.000 libera ekartzen duela ezkontzara; emaztearen burasoek Hendaiako etxea, *de leur cotté D'assigner à lad. demlle. Marie Detchetto leur fille en faveur dud. Mariage la maison et jardin de Berrogainenea à eux appartenant le tout sçitué au lieu de Hendaye ... dont elle est l'héritière coutumière*. Ezkontza-itunean aipatzen da

gisa horretan Pierre Saint Genes bilakatzen dela, Lapurdiko ohiduren arabera, etxe horretako jauna. Etxearen balio estimatua: 1.000 libera.

8.2.3. 1746ko apirilaren 3ko agiri batean (Delissalde 3E4172, 179. or.) Jean Detchetok sinatzen du alaba zaharrenaren ordeztu, *demlle. Marie Detcheto - absente, sieur Jean Detcheto marchand habitant de cette ville son père présent et acceptant.*

8.2.4. 1747ko agorrilaren 14an egina izan zen Marie Detchetoren bigarren ezkontzaren ituna (Delissalde 3E4173, 622. or.). Marie Detcheto Saint Genesen alargunaren bi emaitza, *donnation*, aipatzen dira: amari 400 liberaren urteko betirako errenta, eta Marie Poupone Detcheto, *agée d'environ seize ans*, ahizpatri 7.000 libera.

Bertan aipatuak dira Jean Detcheto (Akize, 1719-12-08) eta Jean Baptiste Detcheto, *officiers de marine ses frères*. Agiriaren azken partean diren sinaduren artean agertzen dira anaienak: *Detcheto Ainé* eta *Jean Baptiste Detchetto*. Itxura guzieren arabera, ez ziren bizi ama alargunarekin (Jean Detcheto, aita, 1747ko urtarrilaren 2an zendua zen Marhum etxean).

8.2.5. 1749ko urtarrilaren 13ko agirian (Delissalde 3E4175, 690. or.) 1746ko abenduan egina izan zen merkatari-tratu bat aipatua da; bertan ez da agertzen Jean Detchetoren izena. Eri zitekeen, laster, 1747ko urtarrilaren 2an zendu baitzen. Agiriaren azken lerroetan agertzen da dokumentuaren zergatia, *moy Notaire ay retenu acte a la requisition de lad. demlle. veuve Detcheto icy présente pour luy servir et valoir.*

Agirian Joannes Duhalde zapatagin nagusiak eta Saubat Larremendy ofizioz *duranguier* zenak, biak hazpandarrak, adierazpen bat egina dute, bi urte lehenago gertatu zen salketa bati buruz. 1746ko abenduaren lehen egunetan Marie Berrogain andereak nahi zizkion Duhalde zapataginari 400 zapata pare erosi bi semeentzat, *qu'elle luy dit vouloir donner à ses deux fils lesquels devoient s'embarquer quelque tems après*. Une horretan, Pierre Dufau ontzi-kapitaina (oraino Marie Detcheto alaba alargunduarekin ezkondu gabea), Marie Berrogainekin eta haren familiarekin zegoen, eta Joannes Duhalderi erranzion nahi zizkiola 100 zapata pare erosi. Prezioan antolatu ziren: 46 sos pare bakoitzarentzat (2 libera eta 6 sos). Zonbait egunen buruan Duhaldek eramazarazi zituen 50 zapata pare Marie Berrogainen etxera, eta honek eman zizkion 40 edo 45 ezkutu (ezkutu bat = 3 libera, 120 edo 125 libera, beraz) 400 zapata pareen ordainaren lehen parte gisa.

Ondotik, 1747ko urtarrilaren azken egunetan (ordukotz Jean Detcheto zendua zen) ekarrarazi zituen Joannes Duhaldek Hazparnetik Marie Berrogainentzat 350 zapata pare eta Dufau jaunarentzat 100 zapata pare; Pierre Dufauk agindurik, haren eskaera Combes jaunaren etxera eraman zuten. Marie Berrogainen etxera joan zen harentzat ziren 350 zapata pareekin zer egin behar zen jakiteko eta haren agindua izan zen Combes jaunaren etxera eramateko eta upeletan sartzeko, eta gauza bera egiteko etxean zituen 50 zapata pareekin. Adostu ere zuten ordainketa: Combes andereak eginen zuela eta gauza bera Dufau jaunaren eskaerarekin. Eta Duhaldek erran zion notarioari horrela gertatu zela zonbait egun berantago. Saubat Larremendy (Duhalderen koinatua zela hemen aipatzen da) izan zen lagundu zuena garraiatzen eta upeletan ematen. Dokumentua sinatu zuten notarioak, bi lekukoek, Marie Berrogain andereak eta Joannes Duhalde zapataginak; ez, aldiz, Saubat Larremendyk, idazten ez zekielako.

Dokumentuan aipatua den Combes jauna, iduriz, Jacques Combes da; hain zuzen, Dufau-Detcheto ezkontza-itunean (Delissalde 3E4173, 622. or.) Pierre Dufau senargaiaren laguntzaile gisa aipatzen dena, *assisté de Sr. Jacques Combes pareillement bourgeois delad. ville et capitaine de navire.*

8.2.6. 1747an, Marie Detcheto alaba alargunaren Marhum etxean bizi ziren: Marie Berrogain ama (jada alargundua zen eta etxe hartara eramana zituen altzariak eta bertze puskak), eta 16 urteko Marie Pouponne ahizpa gaztea. Anaiak ez bide ziren bertan bizi, itsasgizonak izaki. Agirian (Delissalde 3E4173, 609. or.) Maria Berrogainen inbentarioa agertzen da (530 liberaren balio estimatua) eta Detcheto-Berrogain bikoteak Baionan zuen saltegi bat aipatzen ere, *ils avaient dans leur boutique à Bayonne différents liqueurs valant la somme de 600 livres.* Marie Berrogainek aipatzen du bazituztela 400 libera dirutan.

8.2.7. 1747ko agorrilaren 25eko agiri baten (Delissalde 3E4173, 639. or.) arabera, gorago izan den emaitzak, (400 liberaren urteko betirako errenta), baditu zonbait berezitasun: Pierre Dufau eta Marie Decheto ezkonberriak mintzo dira:

on fait don et donation entre vif et irrevocable à lad. demlle. Marie Berrogain veuve de sieur Jean Detcheto marchand, leur mère et belle mère aussy demeurante en la dite maison de marhum à ce présente et acceptante, de son logement, sa nourriture à leur table et son entretien de toutes choses necessaires tant en santé qu'en maladie qu'ils promettent à lad. demlle. Berrogain durant sa vie et celle de lad. demlle. Detcheto sa fille donnatrice, seulement la pension de

400 livres portée par led. Acte - si lad. donnataire survit à lad. demlle. sa fille, lequel cas arrivant lesd. logement, nourriture et entretien cesseront de lors, et ne seront plus fournis à lad. demlle. Berrogain - la présente donation aussy faite pour l'amitié que led. sieur Dufau et la demlle. son épouse portent à lad. demlle. donnataire leur mère et belle mère, à la charge pour elle de leur donner tout le secours qu'elle pourra dans le menage par ses soins et attentions aussy utilement et agreablement qu'elle l'a donné depuis quelques ans à lad. demlle. Detcheto sa fille - il est évalué le logement, la nourriture et entretien cy dessus à la somme de 200 livres pour chaque année.

8.2.8. 1747ko agorrilaren 16an, Marie Detcheto Pierre Dufau ontzi-kapitainarekin ezkondu zen Baionan: Jean Etcheto aita hila zen, eta Marie Berrogain amak sinatzen du ezkontza-agiria: *Marie Berrogain d'Hendaye*. Ezkontzara emaztegiak 25.000 libera ekartzen du eta senargaiak kopuru bera (Laurent Delissalde notarioaren aitzinean 1747ko agorrilaren 14ko ezkontza-ituna, 3E4173, 622. or.); Pierre Dufau Dominika uhartean hil zen 1748ko maiatzean, *La Victoire Amédée* ontzian kapitain gisa egiten zuen lehen bidaian.

Ezkontza-itunaren arabera, seme-alabarik gabe ezkontide bat hilez geroz, bizirik gelditzen zenak eskuratzen ahal zituen zenduaren ondasunetik 20.000 libera.

Senarra 1748ko maiatzean zendurik, Marie Detcheto alargunaren indar guziak 20.000 liberako dirutza eskuratzearen alde izan ziren. Zenbait agiritan agertzen da indar horien froga:

1749ko otsailaren 22an, egin ahalordetze agirian (Delissalde 3E4175, 568. or.) aipatzen da, *on luy a écrit dud. lieu du havre qu'il s'y trouvoit des effets dud. Deffunt - même une somme entre les mains du sieur Genier - qu'il y a de la difference à cet egard de certains comptes - qu'il luy a été aussy marqué que plusieurs négociants de Rouen.*

1749ko urtarrilaren 17an (Delissalde 3E4175, 420. or.), ahalordetuak berritzen ditu.

8.2.9. 1751ko urriaren 5ean hirugarrenez ere ezkondu zen Marie Detcheto. Pierre Laborde d'Arbrun, Saint Severeko familia noble bateko semea, militarra, *capitaine au Regiment de Bourbonnois* eta San Luis ordenako zalduna, bilakatu zen Marie Detchetoren hirugarren senarra.

8.3. AMA-ALABEN BILAKAERA

8.3.1. 1747az geroz Marie Berrogainen biziak alaba zaharrenarekin zerikusi handia izanen du: haren etxean bizi da, gisa batez zerbitzari gisa.

8.3.2. 1753ko uztailaren 28ko agiri batean (Delissalde, 3E4179, 349. or.) Marie Detcheto andereak adierazten du egina duela testamentua eta notarioaren eskuetan uzten duela, zigilaturik, *a déclaré avoir fait testament mystique ou secret - led. testament daté du premier de ce mois ... cacheté en plusieurs endroits.*

Bi orrialdeko dokumentua da; hastapenean aipatzen du 34 urte dituela, *étant grace adieu parvenue a l'age de trante quatre ans*; ondotik betiko formulak erabiltzen ditu eta ehorzketako egunean egingen diren mezetatik landa bertze 400 meza apal, *messes basses*, ematea agintzen du. Amari egin zion emaitza errepikatzen du eta sei liberaren dirua ematea agintzen ere. Ahizpari egin zion emaitza ere errepikatzen du eta bertze sei libera, *pour une marque d'amitié*, uzten dizkio. Bi anaiei, bakoitzarentzat 30 libera, *a jean detcheto et baptiste detcheto mes freres germains la somme de trante livres a chaqun pour une marque d'amitié*. Azkenik, senarra izendatzen du ondoko orokorra, *heritier general et universel noble pierre de laborde arbrun, Ecuyer Capitaine dans le regiment de bourbonnois mon mary actuellement a Calais ou Est le dit regiment.*

8.3.3. 1756ko urtarrilaren 21ean ezkondu zen Baionan, Marie Pouponne Detcheto (Akize, 1731-12-10) Etienne Pedesclaux donibandarrarekin, *negociant natif de Saint Jean de Luz: alaba gastia eskonduda giçon prestubatecin.* Ezkontza-agirian aipatzen da emaztegaia Akizen sortua dela, *native Dacqs*, bi ezkontideak Donostiako eliztarrak, *paroissiens*, direla, eta emaztegaiaren ama ere, Marie Berrogain, Donostian bizi zela, *la Demoiselle Contractante Demeurant dans cette ville avec sa mère depuis environ un mois.* Ezkontza honen kontratuaren arabera (Delissalde, 1756-01-20, 3E4182, 17. or.), emaztegaiak 8.000 libera ekartzen du ezkontzara eta senargaiak kopuru bera.

8.3.4. 1760ko buruilaren 8ko biziki argigarri den agiri batean (Detcherry 3E9836, 299-335. or.), adierazten da Marie Detchetok (Laborde d'Arbrunen emazteak) saltzen diola, 8.000 liberatan, Daubas donibandarrari, 1749an erosi zuen Baionako Mayour karrikako etxe bat. Dirutza horren parte bat, 6.000 libera, han berean ordaindua izan zen eta 2.000 libera geroago. Agiri berean aipatzen da 6.000 libera horiek Etienne Pedesclaux (Marie Pouponne Detcheto ahizpa gazteenaren senarra) jaunari emanak izan zitzaizkiola, 1747an egin emaitza baten ordain gisa. Erraten da ere Marie Detchetoren lehen senarraren

testamentuan aipatzen zela, *un leg à elle fait par le testament de feu sr. Saint Genes premier mari de lad. Dame - en datte du 31 octobre 1743 - laquelle donation a meme été confirmée par arret du Parlement de Bordeaux du 5 juin 1758.*

Etienne Pedesclauxek (Maria Berrogain amaginarrebaren ahalordeduna) adierazten du Marie Berrogainek ez duela saldua den etxearen kontrako ekintzarik eginen, *par rapport aux pretentions et hypoteques qu'elle peut avoir sur lesd. maison et place vendues, et qui naissent de l'inventaire fait le onze du mois d'aout mil sept cents quarante sept.*

8.4. DOKUMENTUAREN IRAKURKETA ETA INTERPRETAZIOA

Azter dezagun orain dokumentu horietan irakurtzen dena eta ulertzen ahal dena.

Marie Detchetok Marie Pouponne ahizpari egin emaitza ez zen borondatez egina, Pierre Saint Genes lehen senarraren testamentuan agindua baizik, *un leg à elle fait par le testament de feu sr. Saint Genes premier mari de lad. dame - en datte du 31 octobre 1743*, Marie Pouponne Detcheto ezkondu zelarik (1756an) bete beharra zena, baino 1760an bakarrik gauzatua.

Marie Detchetoren testamentuan ahizpa gazteari eta bi anaiei utzi behar zizkien diruak, *pour une marque d'amitié*, hitzez aipatuak dira. Amaren kasuan ez da holakorik, iduriz, ez da horrelako adiskidantzarik.

1760ko dokumentuan aipatzen da Bordeleko Parlamentuan hartua izan zen deliberoa, *laquelle donation a meme été confirmée par arret du Parlement de Bordeaux du 5 juin 1758.*

Ikus dezagun orain zer izkiriartzen zuen Marie Berrogainek 1757ko martxoaren 15ean: *cathalina eta ene adiscidea desiratcen dut presentecoac causi çaitçan osasuna perfet batean çure familia guçiarecin, enea esta ona aspaldico demboran: çhagriñac eta persequçioneac içatu tut familiarecin non hauçitan hari bainais.*

Iduriz gorago aipatu Bordeleko Parlamentuko aginduak badu zerikusirik gutunean agertzen denarekin. Bertzalde, 1749ko urtarrilaren 13ko agiriaren izenburua hau zen: *Déclaration par Joannes Duhalde & Saubat Larremendy de Hasparren à Marie Berrogain de Bayonne.* Agiri honek ere baluke zerikusia auzi honekin.

Marie Berrogainek, gutunean, ez du aipatzen ere Marie Detcheto alaba zaharrena; bai, aldiz, alaba gazteena, *alaba gastia esconduda giçon prestubatecin çerbaites fagoraçen nau. baita ene seme caharrenac ere.*

Badakigu Baionan datatu zuela Marie Berrogainek gutuna, baina ezin jakin zoin etxetan zen orduan. Aipatzen duen alabaren ezkontza 1756ko urtarrilaren 21ean gertatu zen Baionan, eta ezkontza-agirian aipatzen da hilabete bat lehenagotik Donostian bizi zela alabarekin. Delissalde notarioaren aitzinean egin zen ezkontza-itunaren arabera, (1756-01-20, 3E4182, 17. or.), Baionan bizi zen, *consentement exprés de lad. demlle Berrogain sa mere habitante de cette ville ici presente.*

1760ko uztailearen 28an Donostian egin agiri batean Marie Berrogainen hitzetan Hendaian bizi zen, *Yo Da. Maria Berrogain viuda de D Juan Decheto, vecina del Lugar de Hendaia en el Reyno de Francia, hallandome en esta Ciudad de San sebastian, Otorgo, doy y confiero todo mi poder.* Eta dokumentu beraren 1760ko uztailearen 30eko frantses bertsioan, *habitante du lieu de Hendaye.* Bi dokumentu horiek Detcherry notarioaren 1760ko buruilaren 8ko agiriaren (3E9836, 299-335. or.) barnean dira.

Ezin jakin, halere, Hendaiaiko Berrogainenea etxean zenetz.

Gauza ageria da familia horretan alaba zaharrena ezkontzatik ezkontzara fortuna handitzen joan zela; dokumentuetan aipatzen diren diru kopuruak biziki handiak dira, edozein ezkontzetan baino hamar-hogei aldiz handiagoak kasu batzuetan. Marhum etxea ez zen etxe soila eta bazituen lurrak, menturaz, etxetiarrek erabiltzen zituztenak. Jakingarria da denbora haietan eta gutienez 1831ko kadastra zaharra egina izan zen arte, Baiona harresiek mugatzen zutela eta kanpoko etxeak aipatzen zirelarik horrelako erranaldien bidez zela: *la maison Marhum hors la porte Lachepaillet, jurisdiction de Bayonne.* Ez da dudarik Marhum karrikaren izenak izen bereko etxearekin lotura duela.

Ama, aldiz, gutunean aipatzen duen bezala, *ene adiscide erraten dotçut egias çorrac egintuteta bihar handitan nais,* azken denboretan zailtasunean da.

Alaba gazteena Donostian bizi zen Etienne Pedesclaux senarrarekin, eta Donostian sortu zen, 1756ko abenduaren 23an bikotearen lehen alaba, Maria Manuela Vittoria; menturaz, Donostiatik Hendarainoko bidea noizean behin egiten zuten.

Aipagarria ere bada Etienne Pedesclauxen anaia zaharrago eta izen bereko bat Donostian ezkondu zela 1746an Maria Josepha Larralde Daguerre izenekoarekin, eta bertan sortu zirela bikote honen 9 seme-alabak.

Bi Detcheto itsasgizonei buruz ez dugu bertze daturik.

8.5. IBILBIDE DESBERDINAK

Ikusten denez, familiako guzien ibilbidea ez da berdina izan.

Jean Dechetori buruz erraten ahal da ez bide zela aberats handi horietarik, (ez da sekula *bourgeois* hitza aipatzen), nahiz merkataria izan, *marchand*. Dena den, familia guzia eskolatua da eta bi seme kapitainak nonbaiteko eskolan ibiliak ziren, dudarik gabe.

Marie Berrogainek alabaren etxe handikian pasatu ditu hainbat urte senarra hilez geroz, baina ikusi dugu nola zen “lotua”.

Marie Detcheto, alaba zaharrena, hirutan ezkondua, eta beti aberatsekin, maila goreneko emaztea bilakatua da. Ezkontza kontratuetan aipatzen diren dirutzak frogarik hobereenak dira: lehen ezkontzako senargaiak 12.000 libera eta Marhum etxea eta lurrak; bigarren ezkontzakoak, 25.000 libera. Hirugarren ezkontzari buruzko xehetasunik ez dugu.

Betiere dirutza biziki handiak ziren ordukotz; hain zuzen ezkontza-itun askotan, alde batetik etxaldea, eta, bertzetik, 350 edo 500 liberako ekarpenak aurkitzen ditugu; edo 1757an, Senperen, etxalde baten urteko alokairua (lurrak barne) 100 libera zen; zapata parearen prezioa 3 edo 4 libera; Senperen ere, etxe baten konponketa larrien, *grosses réparations*, kostua 898 libera eta 8 sos harginentzat, eta 735 libera, 10 sos eta 9 denario maiasturuentzat.

Bertzalde, Louisbourgetik igorri diru kopuruak (gorena, 19. gutunaren 919 libera, baina anitzez apalagoak gehien-gehienak), eta Marie Detchetoren dirutzak ez dira batere berdintsuak.

Batzuen eta bertzeen arteko aldea biziki handia zen.

9. AHETZEKO HILKETA ETA BERRI TRISTEAK

Irakurleak 40. gutunaren transkripzioa 2. atalean aurkituko du.

Ahetzeko David Borotra izenekoak Martin Borotra semeari 1757-03-23an egin 40. gutunean erditsua familiako berriek osatzen dute.

Bertze erdian “Ahetzeko hilketa eta berri tristeak” gertakaria aipatzen da.

9.1. LEHEN DATUAK

Lehen-lehenik aipatu beharra dut Ahetzeko bataio-ekontza-ehorzketa agiriak eskas direla 1697-1770 urteetako denboraldi luzean. Beraz, bete-betean gutunaren denboran; ondorioz, datuen eskuratzea handizki trabatua da!

Ahetzen ez da sekula notariorik izan. Bertakoak ondoko herrietara joaten ziren: Bidartera, Senperera, Azkainera, Donibanera, Ziburura.

Gutunean aipatzen diren etxeen izenak bai, ezagunak dira: Ostaleria, Amizola, Betrienea, Dorrea (Dorrea eta Amizola Bidarteko mugatik hurbil dira).

Izena (edo deitura) eta etxearen lotura dira argitasun zerbaiten esperantza, hala nola *Sabat dorreco Çena - ostaleriaco premua - amicolla ohiaren colpatcea*

David eta Betry Borotra, gutunaren igorlea eta hartzailea, Ahetze Garateneko nagusia eta semea ziren (ikus Herriz herri atala);

Sabat dorreco Çena, Saubat Behotas maiasturu nagusia zen (*maitre charpentier sieur des maisons de marrorenea, et dorrea*) eta Marie Borotra-ren senarra.

Amicolla ohiaren colpatcea. Amizola etxeko nagusi ohia Bertrand Etchegoyen zen.

Ostaleriaco premua, Jean Hirigoyen zen, Pierre Hirigoyen eta Marie Duhart Ostaleria etxeko jaun-andereen seme premua.

Dena den, gauza ageria da bi gertakari izan zirela.

– Lehena. Dorreko **Saubat Behotas**en hiltzailatzat hartua izan zena, *ehaile gaisçoa preso harturic jondone laurendy egunian, 1755co urthean, parisat eramadute, Sabat dorreco Çena norbaitec hilçea delamedio, eta by hilabete badu jendec daraçatela, bidean heldu dela libro bere etcherat, Baignan oraino esta agueri gaisçoa,*

- Bigarrena. Ezin jakin lehenarekin zerikusia duenik, baina norbaiten kolpatzea ez du iduri aski arrazoi kolpatzailea betiko presondegiratzeko (*eta ostaleriaco premua urthe berian jondoni jauni inguruan preso harturic toulon nen da condenaturic galleretarat seculacots, adisquideac ongui mellaturic Es urcatçeco. eta diote denbora bates harequin jbili Çen guiçon bat orobat hura beçalla jujamendu beras condenatua dela, amicolla ohiaren colpatcea eta, seroraren leiho hausteco sujeta delamedio*).

Urthe berian jondoni jauni inguruan, iduriz, 1755eko ekainaren 24an, preso hartu zuten Pierre Hirigoyen; alabaina ezin jakin nor zen *harequin jbili Çen guiçon bat orobat hura beçalla jujamendu beras condenatua dela*.

9.2. BIKTIMAK, ERRUDUNAK ALA ERRUDUN EKARRIAK

Dorreko **Saubat Behotas**, maiasturua, HILA.

Amizola ohia, **Bertrand Detchegoyen** (nagusia izana zen, baina Jeanne Harambillague emaztea hilez geroz, 1747an -seme-alaba bizirik gabe-, koinatu eta Amizolako nagusi berria zen Arnaut Harambillague apezarekin bizi zen Amizolan). KOLPATUA.

Serora: kalteak, leiho haustea.

Saubat Behotas maiasturuaren hiltzailea *ehaile gaisçoa*.

Amizola ohiaren kolpatzaileak: **Jean Hirigoyen** Ostaleria etxeko premua eta harekin ibili zen gizon bat.

9.3. SAUBAT BEHOTAS

Maiasturu nagusi gisa izendatua da hainbat agiritan, Dorre eta Marroreneko etxeko jauna. 1733. urtean, auzapez zelarik, lau aldiz egon zen Uztaritzeko biltzarrean Ahetzeko ordezkari gisa.

9.3.1. 1743-06-22ko agiria (Martin Harismendy, 3E3964, 216. or.). Izenburua, *obligé de la somme de 73£ 14 s 3 d pr Saubat Behotas et Marie Borotra mary et femme sous le cautionnement de Domingo herauzet, en faveur de Betry hiriart*.

Saubat Behotasek ordaintzeko epe bat galdatzen dio Betry Hiriart Senpereko Plazako errotazainari; Domingo Herauzet Ahetze Etxezaharreko

nagusia berme da, *ledit Hiriart a sursi les executions Contre ledit **Behotas** pendant ledit delay sans prejudice.* Iduriz, **Saubat Behotas**en kontra auzi bat abiatua zen. Lekukoak dira Cinqualbres senpertarra eta Pierre Hirigoyen Ostaleriako nagusia.

9.3.2. 1744-11-10eko agiria (Martin Harismendy 3E3965, 155. or.). Guimbillart-Chibau senar-emazteen eskuetarik **Sauba Behotasek** hartu 150 libera, lur baten truke.

9.3.3. 1749ko martxoaren 8ko agiria (Martin Harismendy 3E3970, 146. or.). Izenburua: *Convention entre Jean darretche sieur de Benessa, et **Saubat Behotas.***

ont comparu - Jean Darretche sieur de Benessa - et **Saubat Behotas** maitre charpentier sieur des maisons de marrorenea, et dorrea – lesquels - on dit que ledit **Behotas** a Cause des Raisons enoncées dans un Contrat du 28-03-1743 retenue par m^o dithurbide aussy NR devait une somme de 500 £ audit darretche et domins deluc maitresse de ladite maison de Benessa sa mère - delaissé et baillé a titre d'engagement une piece de terre - mentionnée audit Contrat de 1743 et dans Celuy du - ledit **Behotas** encore debiteur desdits mere et fils - **Behotas** faira deux fournées de Chaux dans Son four de chaux neuf qu'il a fait près La Croix appelée chaleta dudit ahetze - le prix de chaque fournée etant fixé à Cent £.

Darretchek sinatu zuen, **Behotasek ez. Behotasek** gisu-labeen bi egosaldi egin behar ditu.

9.3.4. 1750eko buruilaren 2ko agiria (Martin Harismendu 3E3971, 251. or.) Lembeye-**Behotas** ituna. Izenburua: *Du 2^o 7bre 1750 - afferme de la m. Betricorenea et autres Conventions d'entre michel Lembeye et marie hirigoyen Conjoins sieur et dame desd m., et **Saubat Behotas** maître charpentier.*

Agirian (bi orrialde) notarioak dio bertan direla:

michel Lembeye laboureur, et marie hirigoyen conjoins, sieur et dame des maisons de Sascorenea, et Betricorenea de la paroisse d'ahetze - d'une part; et **Saubat Behotas** maitre charpentier et des maisons de dorrea, et marrorenea dudit ahetze aussy y habitant d'autre; et ont dit que les dites maisons de Bertricorenea et marrorenea qui son contigues ont le jet des eaux sur son mur mitoyen qui en fait la sep.. lesquelles coulent par un - qui reçoit les dites eaux que ledit mur qui se trouve endommagé - si bien que les parties conviennent qu'il sera élevé par le dit **Behotas** à son propre dépens de façon qu'il pourra servir de pignon aux dites deux maisons - de façon que si la dite maison de Betricorenea souffre par le changement le dit **Behotas** - responsable; de plus il s'oblige de

fermer le devant de la dite maison de Betricorenea - les parties ont convenu de faire experter par deux - après qu'ils seront faits - pour la fin deu mois d'octobre prochain - les dits conjoints afferment par cet acte au dit **Behotas** le acceptant la dite m de Betricorenea avec son jardin - pour neuf années prochaines et consecutives à Commencer du jour et fete de Sr martin -a raison de 24 £ par an.

Lekukoek eta notarioak sinatzen dute, ez bi parteek.

9.3.5. 1753ko uztailearen 2ko agiria (Detcherry 3E9829, 234. or.) **Saubat Behotas** eta Marie Borotra senar-emazteen 25 liberako errenta baten sortzea. Izenburua: *du 2° Juillet 1753 - Constitution de 25 £ de rente au princpal de 500 £, contenant aussi obligé de 103-3-4 pour des interets liquidés par Saubat Behotas et marie Borotra conjoints m et msse dedorra d'ahetze en faveur de mr michel Derresteguy Docteur en medecine de St Pé.*

Aujordhui deuxieme de Juillet 1753 après midi en la paroisse de Saint Pé, Pais et Bailliage de Labourt Par devant moi NR soussigné en presence des temoins bas nommés ont comparu **Saubat Behotas** charpentier de maison et marie Borotra sa femme qu'il autorise pour la validité des presentes m et msse des maisons de dorrea et de marrrorenea, habitants de la paroisse d'ahetze apres que lad Borotra a approuvé et Confirmé deux Contrats d'obligations consentis en faveur de M Derresteguy devant feux m° saint castet et Duronea NR par led **Behotas** les 23-08 et 07-11 1733, dont lecture lui auroit été faite par moid N, presents lesd temoins - constitué - 25 £ de rente annuelle"

9.3.6. 1754ko urtarrilaren 28ko agiria (Martin Harismendy 3E3975, 460-465. or.) Lembeye/Behotas ituna (agiria 460-461. orrialdeak, euskarazko testua 462-464. orrialdeetan, izenburua 465. orrialdean). Izenburua: *du 28 Janvier 1754 - Acte d'acord passé entre Miguel Lembeye, et Saubat Behotas habitants du lieu D'ahetze.*

460-461. orrialdeak:

Le 28-01-1754 après midy en la paroisse de Saint Pée - ont comparu en leurs personnes miguel Lembeye laboureur sieur des maisons de chaiscorenea, et de Betricorenea de la paroisse d'ahetze d'une part, et **Saubat Behotas** maitre charpentier sieur de celles de dorrea et marrrorenea dud ahetze - ont dit que par un Contrat passé devant moyd N le mois de septembre 1750 les parties auroient convenu que le dit **Behotas** feroit certaines reparations -

ayant Jugé à propos qu'il devait etre fait encore d'autres reparations en ladite maison de Betricorenea il en fut fait un etat du gré des parties sous seing privé, écrit de la main du Sieur de Benessa dudid ahetze qui restera Joint aux presens a

telle fin que de raison, suivant lequel les reparations faites et a faire par ledit **Behotas** en la susdite maison de Betricorenea montent à la Somme de trois cens deux livres, payables par loyers de la même maison de Betricorenea, laquelle a Cet effet feut loüé audit **Behotas** par ledit Lembey

Sieur de Benessa = Jean Darretche (“maître d’école”)

Euskarazko testua, 462-464. orrialdeak:

Betricoeneco etchean **Sabat de Behotazec** eguin Cuen erreparaçionea, espetatua eta estimatua içan da, Joannis de Hirigoyen, donibanecoa eta Bernat de goihetche Charpanter naussies, jaquitecots erran den etche hortan Jadanic eguina içan direnac, eta oraino eguin behar dena Çein baita aitçindeguia etche hortacoa Çerratu Beharra, adrailus eta By aldetaric palotatua eta inbocatua Castaco morteros, eta Leiho eta partadura eta Crisqueta eta gaineraco Çarratceco Behar direnac, eguinen dituelaco promessaren aspian, erran den **Sabat de Behotazec**, Çein obligatcen baiçaiote Contratus oren guçias, eguitera eta gauça guçiac huneranocooan esplicatu ondoan, erran diren esperten eta partida hauc guçien artian, accort et Content içan dire, eta estimaçionea eguinada muntatua, eguinac eta erranac diren eguin beharrac, montatçen dute hirur ehun eta By libera; 302 £, eta **Sabat de Behotazen** hartçecoa da erran den suma hory, acabatu ondoan obra hory, eta condiçionea **Sabat de behotazec** etche hory Betricoenea goçatuco duen hameca urthes, jaquitecots, urthe Bacotchean hogoi eta sasy Libera Çein harçecodun heldu Baita erranaden espertaçioa 302 £, allocario etche hortaco 297 £ry, bors Libera, erran nahi da **Sabat de Behotaz**, Segnarra eta emaste horien aldera, 11 urtheren buruan heldu dela hartçecodunegun Ce 2? marts 1753, eguina eta iracurria erran diren Miguel de lambey eta maria de hirigon Sascoeneco eta Betricoeneco Jaun andrien eta **Sabat de Behotaz** marroeneco Jaunaren eta erran diren esperten presençian eta martin de Borrotra, Charpaten nausien presençian, signatua, Content eta content, eta estute signatu estaquiteneç,

goietche BORROTRA Jean darretche

partiden othoistera eguina contratua eguiteco condiçionearen aspian, partidec prometaturic,”

9.3.7. 1754ko uztailaren 31ko agiria (Bertrand Planthion 3E4760, 474-481. or.) *ahetze 31e Juillet 1754 – acte D’opposition fait a la requete de martin Detcheverry abbé de la communauté D’ahetze, entre les mains de Joannes Detcheverry me de la maison de moulineneia, au prejudice de Saubat behotat me de la maison de marrorenia*

Eta agiriaren testuan,

luy a dit qu'il demeure averty qu'il a acheté du pouvoir de **Saubat behotat** me de la maison de marrorenia du meme lieu D'ahetze une fournée de chaux qu'il doit faire decharger et transporter incessamment, et qu'il luy en doit encore le prix, et comme led **Saubat behotat** doit certaines Sommes a la communauté dud present lieu

9.3.8. 1755eko martxoaren 26ko agiria (Detcherry (3E9831, 104. or.) Lembeye-Borotra, **Behotasen** alargunaren arteko ituna.

Izenburua: *du 26 mars 1755 - Contrat d'accord d'entre miguel Lembeye et marie hirigoyen conjoints, d'une part et marie Borotra veuve de **Saubat Behotas** d'ahetze et obligé de 120 £ par lersd conjoints, en faveur de mr michel Derresteguy docteur en medecine.*

Aujourd'hui 26 3 1755, avant midi en la paroisse de Saint Pé, pais de Labourt,.. ont comparu Miguel Lembeye laboureur et marie hirigoyen sa femme qu'il autorise - sieur et dame des maisons Chaiscorenea et Betricorenea habitants de la paroisse d'ahetze, d'une part; et marie Borotra veuve de **Sauvat Behotas** vivant charpentier de maison, maitresse de celes de dorrea et marrorenia d'autre: disant lesd parties que par le contrat d'accord passé entre lesd conjoints et led feu **Behotas** le 28 janvier de l'année dernière devant m^o Harismendy NR.

9.4. BERTRAND DETCHEGOYEN

Sortez itsasuarra eta Altzuietako semea, Amizolako etxeko jaun bilakatua bertako ondokoa zen Jeanne Harambillaguerekin ezkonduz geroztik. Geroago ikusiko dugun dokumentu batean aipatzen da hainbat kargu ukan zituela Ahetzen, *député, Jurat, abbé, et marguillier de l'église Saint Martin*; Uztaritzeko biltzarretan Ahetzeko diputatu gisa agertzen da bi alditan 1736an.

9.4.1. 1743ko azaroaren 6ko agiria (Martin Harismendy, 3E3964, 393. or.).

Izenburua: *quittance generale accordée par marie harambillague - en faveur de la maison et propriétaires d'amicola. -*

Marie Harambillague demoiselle veuve de Sieur Estienne Duhart vivant maitre Chirurgien maitresse ancienne de la maison et Biens dostalerie du present lieu; Laquelle de Sa bonne volonté, et pour la decharge de Sa Conscience, a dit avoir été payé et entierement satisfaite de la somme de 900 livres que feüs Joannes harambillague, et marie duronea Ses pere et mere sieur et dame de la maison damicola de Cedit Lieu luy promirent et Sobligerent de payer par le Contrat de son

mariage avec ledit feu Sieur duhart de vingt unieme mars 1686 Retenu mar m° habans aussy NR, pour dot principal - ont été payés et delivrés par sesdits pere et mere et leurs Representans en la dite maison damiçola avant les presens et du vivant de feu Sieur Jean de harambillague Sieur de la susdite maison d'amiçola Son neveu - et décharge de la même maison d'amiçola, laquelle Somme elle dit avoir employé avec d'autres a la Batisse de partie de la dite maison dostalerie dit apartimendu berria - de la manierequ'elle avoit convenu avec feu Sr harambillague Son neveu.

Dokumentu horretan bi aldiz aipatua da Marie Harambillagueren iloba, *du vivant de feu sieur Jean de harambillague sieur de la susdite maison damiçola Son neveu*

9.4.2. 1744ko urtarrilaren 23ko agiria (Martin Harismendy, 3E3965, 363. or.): Betry Beholaren aldeko **Bertrand Detchegoyen**-en ituna (“démision faite par Sieur Bertrand Detchegoyen en faveur de Betry Behola cabaretier et Conjoins”).

9.4.3. 1745eko urtarrilaren 24ko agiria (Martin Harismendy, 3E3966, 18. or.): Xoxarenea etxearen alokatzea Bertrand Detchegoyenen alde.

9.4.4. 1755eko uztailaren 23ko agiria (Martin Harismendy, 3E3976, 142. or., 144 or.): 205 £ 10 sos balioko lur baten uztea Fagondo-Derrecart-en artean; berme gisa **Bertrand Detchegoyen**en lur bat ematen da.

144. or. Izenburua: *Du 23ème Juillet 1755 Degagement d'une terre pat Joannis fagondo laboureur du pouvoir de sieur **Bertrand detchegoyen***

Le vingt troisième Juillet mil sept cens cinquante cinq après midy, en la paroisse d'ahetze en labourt, devant moy notaire royal soussigné et des temoins bas nommés a comparu Sieur **Bertrand detchegoyen** sieur exhere .de la maison et Biens damiçola de Ce lieu y habitant et de Sa Bonne volonté a dit que pour assurance (?) d'une Somme de deux cens livvres dix sols par Luy Ceddée à joannes fagondo laboureur sieur dagueerrea de cedit lieu par le Contrat du vingtième octobre mil sep cens quarante huit, en consequence dudit Contrat il a joüi à titre (?) d'engagement d'une pièce de terre des dépendances de ladite maison dagueerrea sictuée en Cette dite paroisse, limitée en Confrontée au susdit Contrat, et d'autant que ledit fagondo luy a tout presentement en bon argent et de cours devant moy dit notaire et temoins Compté et remboursé ladite Somme de deux cens livvres dix sols; ledit sieur **detchegoyen** après avoir devers luy retiré ladite Somme L'ayant bien Comptée s'en est Contenté, en a accordé quittance audit fagondo et - et S'est demis en sa faveur de la jouissance et possession de ladite pièce de terre, voulant et Consentant qu'il en Jouisse, et fasse à sa volonté, et que le susdit Contrat d'engagement soit et demeure - et de nulle valeur, au surplus les dites parties ayant réglé leurs comptes independants de Cet engagement a

la reserve des frais de la fauche du foin qui es a présent Coupé sur Ladite terre, il S'est trouvé déduction faite de dix huit livres que ledit fagondo en Sus de ladite Somme de deux cens cinq livres dix sols, a compté audit Sieur **detchegoyen**, que Celuy Cy est encore Creancier sur ledit fagondo de la Somme de trente livres que ledit fagondo S'oblige de payer à toute heure audit Sieur **detchegoyen** ou ordre, dans le reglement des Comptes étant nomement Compris une Somme de cent cinq livres que ledit fagondo devaiyt audit Sieur **detchegoyen** par Contrat passé devant m° Planthion également notaire peut avoir treize ans; L'... de seize livres pretendüe par le meme Sieur detechegoyen avoir payé pour ledit fagondo à la nommée Nogues Cabaretiere, et Celuy cy Le Con..., demeurant en son entier; et par reflexiòan ledit fagondo a payé lesdites trente livres au même sieur **detchegoyen** luy ayant Ceddé vingt quatre livres sur le nommé Larrain faucheur, e. luy ayant remis six livres presentement et - Lesdites parties Se Sont interpellées, et ont par la garantie affecté obligé et hipotequé tous leurs Biens en Cours presents et a venir et ceux soumis à la Justice En presence de Sieurs pierre hirigoyen et Joannes Cassabon harosteguy habitants de Cedit lieu temoins requis et Cy Signés avec lesdites parties et moy

142. or. Izenburua: *Du 23ème Juillet 1755 Obligé de 205 £ 10 sols contenat engagement d'une pièce de terre pat Joannis fagondo laboureur en faveur de martin derrecart et Jeanne dornaletche Conjoins.*

Agiri horretan Fagondok berme gisa belardi bat ematen du, *il leur livre par Cet acte. a titre d'engagement une piece de terre prairie qu'il Se propose de degager du pouvoir de Sieur **Bertrand detchegoyen** Sieur exhered - de la maison et Biens damiçola de Cedit lieu, laquelle il avait engagé audit Sieur*

9.4.5. 1756ko apirilaren 4ko agiria (Martin Harismendy, 3E3977, 253. or.).

Izenburua: *Du 4 avril 1756 Declaration par les Sieurs Jurats d'ahetze en faveur de sieur **Bertrand detchegoyen***

Le quatrième d'avril mil sept cents cinquante six après midy au lieu des assemblées de la présente paroisse d'ahetze en Labourt devant moy notaire royal soussigné et des temoins bas nommés ont comparu en leurs personnes sieurs arnaud Borrotra Lissarrague pierre Larrain Menautene, et martin derrecart chairene abbé et jurats de la présente paroisse y habitants et de leurs Bonnes volontés (en execution de la délibération capitulaire desdits habitants, de ce jour) ont déclaré et declarent que sieur **Bertrand detchegoyen** fils legitimaire de la maison et biens dalçuyeta de la paroisse ditxatzou se maria en l'année 1728 avec demoisselle Jeanne Harambillague heritiere Coutumiere de Celle d'amiçola de cette paroisse, que le mariage a duré jusques l'année 1747 que la dite harambillague est decedée sans avoir Laisse d'enfant en vie Bien qu'elle en ay eü nombre, que pendant son mariage ledit sieur **detchegoyen**

a jouti par toutes les charges d'honneur de la présente paroisse, ayant été nombre de fois député, Jurat, abbé, et marguillier de l'église Saint Martin de cette dite paroisse S'étant bien acquitté des fonctions desdits emplois, jusques a rendre son Compte d'oblat (?) a la dite Communauté - le 27 8bre 1743, déclarent encore qu'au decés de feu Sieur Jean harambillague Son Beupere aussy sieur de ladite maison d'amiçola qui etait Capitaine de la Compagnie de milice que fournissent La presente paroisse et Celles d'arbonne et Bidart dans le regiment de Labourt, ledit Sieur detchegoyen feut nommé Capitaine pour les trois paroisses, et qu'il en a fait les fonctions Jusques au decés de ladite feüe harambillague qui L'obligea a S'en demettre Sas qu'il y feut Contraint, et enfin déclarent que quoiqu'il soit exheret de la dite maison amiçola il y fait sa residance de L'agrement de Me arnaud de harambillague pretre docteur en theologie Son Beaufere maitre de ladite maison, et qu'il a été toujours reconnu dans la paroisse pour un homme de Bien et d'honneur, Comme il L'est encore, cest de quoi Les Sieurs Comparants m'ont requis - pour servir et valoir ce que de raison; octroyé en presence de Sieurs martin permartin Joaneto, de Jean fagondo aguerre, de Jean Cassaubon harosteguy, de martin delissalde harotzarene, ancien abbé de Cette dite paroisse et de Sieur esteben darons - et antoine dithurbide dolhare ancien Jurat et Jean Darretche greffier dicelle aussy y habitant temoins requis et Cy signés avec ledit Sieur borrotra abbé ce que n'ont fait lesdits Larrain et derrecart pour avoir déclaré ne le scavoir en etant sommés par moy

9.5. JEAN HIRIGOYEN

Pierre Hirigoyen, *maitre chirurgien*, eta Marie Duhart Ostaleriako jaun-andereen seme premua.

9.5.1. 1746ko abenduaren 29ko agiria (Martin Harismendy, 3E3967, 4. or.) Hirigoyen-Lafargueren arteko ituna. Ostaleria etxeko premuaren (Jean Hirigoyen) aipamena.

Izenburua: Transaction passé entre le sieur Hirigoyen, l'Abbé d'ahetze et le sieur de harretchea.

ont été presens sieurs Joannes Casaubon maitre de la maison de harostegua maire abbé - d'une part, sieur pierre hirigoyen maitre chirurgien et de la maison d'ostaleria, et demoiselle marie duhart conjoins cy presens et du Consentement de Sieur Jean de hirigoyen leur fils heritier coutumier de ladite maison dostaleria quils déclarent emanciper partant que de Besoin d'autre, Et miqueto Lafargue maitre de - harretchea D'autre.

9.5.2. 1754ko ekainaren 17ko agiria (Martin Harismendy, 3E3975, 249-251. or.). Izenburua: *quittance de 300 £ par m^o arnaut harambillague pretre et prebendier et sieur pierre de hirigoyen maitre chir et dostalerie de Cette paroisse, prebandier et patron de la prebende appelée dostalerie - d'une part, et sieur Jean Behola*. Ikus "Amizola eta Ostaleria".

Gauza ageria da Jean Hirigoyen 1746an Amizolako premua zela, eta halaber 1755eko ekainaren 24an preso altxatua izan zelarik.

Ez dakigu presondegian laster zendu ote zen (presondegietan hilkortasun tasa biziki gora zen denbora haietan), baina Ostaleriako jaun-andere gisa agertzen dira Michel Etcheverry eta Jeanne Hirigoyen, 1786ko otsailaren 21ean, Ostaleriako ondokoa, Marie Etcheverry alaba, François Olhagaray arbonarrarekin ezkondu zelarik. Marie Etcheverry 1786ko azaroaren 6an zendurik, haren anaia Jean Etcheverry, Stephane (edo Etiennette) Heguy Bidarte-Apeztegiko alabarekin ezkondu zen 1793ko otsailaren 13an, Ostaleriako jaun-andere izan zirelarik.

9.6. AMIZOLA ETA OSTALERIA

Amizola etxea Ahetzeko plazatik aski urrun da, Bidarteko lurretatik hurbil (Dorrea etxetik 500-600 metrotan). Ostaleria eta Serorategia, aldiz, Ahetzeko elizatik hurbil.

Amizola etxeko nagusiak Harambillague deiturakoak izan ziren hainbat belaunalditan. Iduriz, etxe aberatsa zen: bertako alaba, Marie Harambillague, Estienne Duhart-ekin (Ostaleriako premu eta ofizioz *maitre chirurgien*) ezkondu zelarik 1686. urtean (ezkontza-kontratua, 1686-03-21), Joannes Harambillague eta Marie Duronea emaztegiarten burasok 900 libera eman zuten ezkontzarako.

9.6.1. 1743ko azaroaren 6ko agiria (Martin Harismendy, 3E3964 – 393. or.) *quittance generale accordée par marie harambillague...en faveur de la maison et propriétaires d'amizola*

Marie Harambillaguek, *maitresse ancienne de la maison et Biens dostalerie*, agirian aipatzen du diru hori erabilia izan zela, *entre autres a la Batisse de partie de la dite maison dostalerie dit apartimendu berria*. Dokumentu horretan bi aldiz aipatua da Marie Harambillague-ren iloba: *du vivant de feu sieur Jean de harambillague sieur de la susdite maison damizola Son neveu*, 1743an Marie Harambillague adin handikoa zen (80 urte inguru).

9.6.2. 1754ko ekainaren 17ko agiria (Martin Harismendy 3E3975, 249/251. or.). Izenburua: *Quittance de 300 £ par m° arnaut harambillague - et sieur pierre hirigoyen*

Dokumentu honetan Arnaut Harambillague (Amizolako nagusia), *pretre docteur en theologie habitant du present lieu*, gisa aurkeztua da, eta Pierre Hirigoyen, *maitre chirurgien et de la maison dostalerie de Cette paroisse, prebandier et patron de la prebande appelée dostalerie fondée en L'église de Ce lieu*

9.6.3. Amizola etxean izan ziren nagusiak, beraz:

- Joannes Harambillague-Marie Duronea.
- Saubat Harambillague 1696ko otsailaren 15eko ezkontza batean lekukoa (Marie Harambillagueren anaia).
- Jean Harambillague (1721ean Ahetzeko auzapeza eta Uztaritzeko biltzarrean Ahetzeko ordezkaria, Ahetze-Arbona-Bidarte herrien soldaduen buru: *feu Sieur Jean harambillague Son Beaupere* (Bertrand Detchegoyez mintzo) *aussy sieur de ladite maison d'amizola qui etait Capitaine de la Compagnie de milice que fournissent La presente paroisse et Celles d'arbonne et Bidart dans le regiment de Labourt*.
- **Bertrand Etchegoyen**, 1728an Jeanne Harambillague Amizolako ondokoarekin ezkondu zena. Jeanne Harambillague-ren heriotzaren ondotik (1747), haren anaia, Arnaut Harambillague apezka, agertzen da nagusi gisa.

9.6.4. Ostaleria etxean:

- Estienne Duhart-Marie Harambillague (Amizolako alaba), 1686an ezkonduak; 1696ko uztailearen 20an sortu zen Joannes Duhart semea, aitabitxia zelarik Amizolako Joannes Harambillague.
- N. Duhart.
- Pierre Hirigoyen-Marie Duhart.
- 1745ean ondokoa zen **Jean Hirigoyen**, *sieur Jean de hirigoyen leur fils heritier Coutumier de la dite maison dostaleria quils declarent emanciper*, baina, iduriz presondegiratzearen ondorioz, ez zuen honek etxea eskuratu. Honen arreba, Jeanne Hirigoyen Michel Etcheberryrekin ezkondu izan zen Ostaleriako anderea.
- 1786ko otsailaren 21ean ezkondu ziren François Olhagaray arbonarra eta Marie Etcheberry Ostaleriako ondokoa (1786ko azaroaren 6an zendua, 23 urtetan). Etxearen segida Marie Etcheberryren anaiari, Jean Etcheverryri, egokitu zitzaion. Jean Etcheverry, 23 urte zituelarik, 1793ko otsailaren 13an ezkondu zen Etiennette Heguy bidartarrarekin (22 urte).

Ostaleria etxean izan zen gertakari larri bat 1774an:

L'an mil sept cens Soixante quatorze et le trente unième jour du mois de Juillet, le corps de marie fourquie qu'on a trouvé étranglé dans la maison d'ostalerie du present lieu le vingt neuvieme jour du Courant, agée 'environ soixante dix ans, a été enterré avec la permission de monsieur de hodi jeune avocat et juge de la Cause dans le cimetiére de Cette Eglise en foy de quoy j'ay ci Signé – Monduteguy vicairé.

9.6.5. 40. gutunaren igorlearen arabera, hilketa gertatu zen 1755eko Jondoni Laurendi (agorrilaren 10a) baino lehen (data horretan eraman zuten "erailea" Parisa), baita ere 1755eko martxoaren 26a baino lehenago (ikus Detcherry 3E9834, 104. or.).

Ez da dudarik gutunaren egilearentzat preso eraman zuten hori ez zela gaiztagin bat: bitan erabiltzen du "gaixo" hitza; lehenean, eramana izan zela errateko. Bigarrenean dioenez, gutuna izkiriaturia izan zen baino bi hilabete lehenago herrian uste zuten preso heldu zela etxera, gutuna izkiriaturia izan zen baino bi hilabete lehenago herrian uste zutela preso heldu zela etxera, *Baignan oraino esta agueri gaisçoa.*

Dokumentuek frogatzen dute nor zen Dorreko Saubat: Saubat Behotas, maiasturua. Bertzalde, dokumentuek erakusten dute 1754ko uztailaren 31n bizirik zela eta 1755eko martxoaren 26 baino lehenago zendua zela.

Dokumentuen arabera, Saubat Behotas Ahetzeko auzapez izana zen 1733an, eta hainbat dokumentuen bidez gauza ageria da gisu-labe bat ere berea zuela eta zorbait zorren ordaintzeko edo arintzeko gisu egosaldiak egin zituela.

9.7. NORK HIL ZUEN SAUBAT BEHOTAS ETA ZERGATIK? NORK KOLPATU ZUEN BERTRAND DETCHEGOYEN?

Nork zuen kolpatu Bertrand Detchegoyen, *amicolla ohiaren colpatcea* Itsasu Altzuietako semea? Lapurdiko ohituren arabera, etxeen segida ondokoaren ezkontzan finkaturia zen, baina ondokoaren senarra edo emaztea alargunduz geroz, eta seme-alaba bizirik ez bazen, alarguna ez zen gehiago etxearen nagusia. Hori zen gertatu Bertrand Detchegoyenekin.

Dena den, biziki harrigarria da 1756ko apirilaren 4ko agiria (Martin Harismendy – 3E3977, 253. or.), *Du 4 avril 1756 Declaration par les Sieurs*

Jurats d'ahetze en faveur de sieur Bertrand detchegoyen. Dokumentu horretan Ahetzeko hautetsien eta bertze jende ezagunen erranak, Bertrand Detchegoyenen defentsarako eginak dira, alta ez da ageri zergatia. Gutunaren arabera Bertrand Detchegoyen kolpatua izan zen.

Jean Hirigoyen Ostaleriako premuaren historia, iduriz, presondegian bururatu zen.



BIBLIOGRAFIA

- Lamant-Duhart, H. (ed.), 1987: *Ciboure*, Ekaina.
- Lamant-Duhart, H. (ed.), 1991: *Ascain*, Ekaina.
- Lamikiz, X.; Padilla, Manuel & Videgain Xarles, 2015: «Othoi çato etchera. Le Dauphin itsasontziko euskarazko gutunak (1757). Correspondance basque du bateau Le Dauphin», *Lapurdumen* ale bereziak 2.
- Lassus, A., 1989: «Corsaires et capitaines de navire d’Urrugne», in Lamant-Duhart, *Urrugne*, Ekaina, 311-354.
- Lassus, A., 1991: «Les anciennes maisons d’Ascain» in Lamant-Duhart, *Ascain*, Ekaina, 79-134.
- Lassus, A., 1994: «Sare et ses marins», in Lamant-Duhart, *Sare* II, 409-439.
- Oyharçabal, B., 1999: «Euskarazko irakaskintzaren historia: ororen eskolen ildotik, frantses iraultzaren garaiko eskola liburuxka bat», *Lapurdum* 4, 81-105.
- Oyharçabal, B., 2001: «Statut et évolution des lettres basques durant les XVIIème et XVIIIème siècles», *Lapurdum* 6, 219-287.
- Paronnaud, J.-C., 2014: *Basques et Gascons en Amérique septentrionale aux XVII^e et XVIII^e siècles*, Paue, Centre généalogique des Pyrénées-Atlantiques.

